


"Juan  
San Martín"  
GIZA  
ESKUBIDEEN  
BILDUMA



## SEXU-ESPLOTAZIORAKO PERTSONEN SALEROSKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Ikerketa txostena

Izaskun Orbegozo Oronoz

**ararteko**

Herriaren Defendatzaillea  
Defensoría del Pueblo

[www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)



**“Juan San Martín” GIZA ESKUBIDEEN BILDUMA**

**10**





# **SEXU-ESPLOTAZIORAKO PERTSONEN SALEROSKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**

**Ikerketa txostena**

**Izaskun Orbegozo Oronoz**



**VITORIA-GASTEIZ  
2020**

Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa \(CC BY 4.0\)](#) lizentziapean dago



Lan honen bibliografia-erregistroa [Arartekoko liburutegiaren katalogoan](#) kontsulta daiteke

**Arartekoaren argitalpenak eskuratzeko:**

- [web gunean](#)
- [posta elektronikoz](#) eskatuz
- aurrez aurre gure hiru bulegoetako batean, idatziz (Prado 9, 01005 Vitoria-Gasteiz) edo telefonoz (945 13 51 18)

ARARTEKO

Egilea: Izaskun Orbegozo Oronoz

Itzulpena: HORI-HORI S.A.L.

Diseinua, azaleko irudia, maketazioa eta inprimaketa: Eps-Comalpa-Irudi, UTE

<b>ARARTEKOAREN AURKEZPENA</b> .....	9
<b>EGILEAREN AURKEZPENA</b> .....	11
<b>SARRERA</b> .....	13
<b>METODOLOGIA</b> .....	15
<b>I. KAPITULUA. PERTSONEN SEXU ESPLOTAZIORAKO SALEROSKETAREN FENOMENOA</b> .....	19
1.1. Kontzeptua .....	19
1.2. Ezaugarriak .....	20
1.3. Sexu esplotazioaren helburua: esplotazioa prostituzioan edo bestelako sexu esplotazio formak .....	21
1.3.1. Salerosketaren biktimen ezaugarriak: eragin psikologiko larria eta eskubideen urraketa .....	22
1.3.2. Salerosleak: arau-hausleen tipologia eta modus operandia .....	22
<b>II. KAPITULUA. ESPARRU JURIDIKOA</b> .....	25
2.1. Nazioarteko esparru arautzailea .....	25
2.2. Estatuko araudia .....	31
2.3. Araudi autonomikoa .....	37
<b>III. KAPITULUA. BESTE SALEROSKETA-MODALITATE BATZUK</b> .....	39
<b>IV. KAPITULUA. AZTERLAN ENPIRIKOA: SEXU ESPLOTAZIOA HELBURU DUEN PERTSONEN SALEROSKETARI BURUZKO EAEko DIAGNOSTIKOA</b> .....	45
4.1. Datu estatistikoak .....	45
4.1.1. Polizia ikerketako eginbideak .....	45
4.1.2. Gizarte erakundeen laguntza jaso duten sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima diren emakumeak .....	46
4.1.3. Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketari buruzko hautematea .....	49
4.2. Biktimen profila eta egoera .....	49

4.3.	Delitu fenomenoa ikertzeko zailtasunak: polizien jarduketa eta zigor prozedura .....	52
4.3.1.	Biktimak detektatzea eta identifikatzea .....	52
4.3.2.	Identifikazioaren ondorengo prozesua, bereziki, indarberritze eta hausnarketa aldia .....	52
4.3.3.	Delitua ikertzeko egiten den zigor prozeduraren ezaugarri nagusiak .....	54
4.3.4.	Pertsonen salerosketaren biktimak babestea .....	56
4.4.	EAEEn sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei ematen zaien arreta eta babesa .....	58
4.4.1.	Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren alorreko erakundeetako politika publikoak .....	58
4.4.2.	Biktimei arreta ematea: zerbitzu publikoak eta pribatuak ematea .....	62
4.4.2.1.	<i>Osasun zerbitzuak</i> .....	62
4.4.2.2.	<i>Gizarte zerbitzuak</i> .....	63
4.4.3.	Gizarte erakundeek arreta emandako sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima diren emakumeak .....	65
4.5.	Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurka egiteko eta biktimei arreta emateko koordinazioa .....	67
<b>V. KAPITULUA.</b>	<b>ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK</b> .....	<b>71</b>
5.1.	Ondorioak .....	71
5.2.	Hobekuntza proposamenak .....	77
<b>ERANSKINAK</b>	.....	<b>83</b>
1.	Datu estatistikoak .....	83
2.	Galdetegiak .....	85
<b>GLOSARIOA</b>	.....	<b>89</b>
<b>ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b>	.....	<b>91</b>



## ARARTEKOAREN AURKEZPENA

Gizakien salerosketa mundu mailako fenomeno kezkarria da, dagoen bidegabekeri handienetako bat, gizakia objektuaren pare jartzen baitu, salgai huts bihurtzen. Aldi berean, giza eskubideen hainbat urraketa larri eragiten ditu. Sexu-esplotazioarako giza eskubideen salerosketa, emakume eta haurrena batez ere –bere biktima nagusiak–, legez kanpoko merkataritza honen alderdi krudeletako bat da. Egia esan, emakumeek munduko leku askotan jasaten duten desberdintasun-egoeraren adierazpenetako bat da, baita emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen argia ere, Nazio Batuen 1993ko emakumearen aurkako indarkeria baztertzeko adierazpenetik ondorioztatzen den moduan. Egiturazko desberdintasun unibertsalaren adierazpide zital bat da, dudarik gabe, eta munduko emakume eta gizonen artean dirau oraindik ere.

Duela zenbait hilabete, 2018ko amaieran, Europako Batzordeak gizakien salerosketaren aurkako borrokan eta biktimak babesteko European egindako aurrerapenari buruzko bigarren txostena argitaratu zuen, eta fenomeno horrek European izandako hedapena azpimarratzen zen bertan. Txosten horretan adierazi denez, Europar Batasunean salerosketako 20.532 biktima erregistratu dira, eta haietatik %56k, hau da, 11.000 baino gehiagok, sexu-ustiapena zuen xede.

Euskadin ere badago fenomeno hau, ditugun datuak oso mugatuak eta adierazgarritasun gutxikoak diren arren. Hori guztia dela eta, zaurgarritasun bereziko gizarte taldeen giza eskubideak Euskadin aplikatzeari buruzko ikerketarako Arartekoaren bekaren esparruan, erakunde horretako eta Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkariak osatutako aukeraketa-batzordeak interesgarritzat jo zuen Izaskun Orbegozo Oronoz ikerlari andreak aur-

keztutako ikerlana. Honi buruzkoa da, hain zuzen: sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketa Euskal Autonomia Erkidegoan.

Ekimen horren bidez, pertsona-salerosketaren biktimen egoera aztertu nahi izan zen, diziplina anitzeko ikuspegitik eta giza eskubideen ikuspuntutik. Ikerlanaren ardatz nagusia sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketa bada ere, askotariko salerosketa egoerak ere aztertzen dira. Ikerlanak honako hauek biltzen ditu: sexu-esplotaziorako salerosketaren egoera EAEn, politika publikoak eta biktima horiek prebenitzeko, hautemateko eta babesteko erakunde-, gizarte- eta elkarte-programak. Beste gai batzuk ere jorratzen ditu, esaterako: araudia aplikatzea, protokoloak, askotariko eragile sozial eta instituzionalekin lankidetzatza estua izatea, bai eta sortzen ari diren esperientziak eta jardunbide egokiak ere. Emakume horiekin lan egin duten elkarteek sustatutako elkartasun-ekimenei egindako berariazko erreferentziak sartzen dira, eta babes arloko maila goreneko eragile bihurtzen dira.

Ez da alferrikakoa gogoratzea beharrezkoa dela aldi berean lan egitea, bai biktimen arretan eta babesean (batez ere emakumeen eta haurren arretan), bai delituen eta erakunde kriminalen jazarpenean, prebentzio- eta hezkuntza-neurriak abian jartzeari buruzko erantzukizuna saihestu gabe, bai sexu-esplotazioa desagerrarazteko beste jarduketa mota batzuetan. Giza eskubideak errespetatzen dituen gizarteak ezin du esklabotza-praktikarik izan, ez eta talde zaurgarrienen esku utzi ere bizitza duina eta librea izateko aukerak.

Ikerlan honek garrantzi handiko gai bati buruz ikuspuntu berriak ematea nahiko nuke, eta, batez ere, salerosketaren biktimen egoeraren gainean begirada erabat humanoa sortarazteko gai izatea. Haiek izan behar dute pertsona guztien berdintasuna eta duintasuna bermatzera bideratutako hausnarketa eta politika publiko guztien erdigunea. Finean, esklabotasun-era moderno hauen aurkako borrokarekin jarraitu nahi da, hain zuzen, uste genuenean gizarte zibilizatueta esklabotza hori desagertuta zegoela.

*Manuel Lezertua Rodríguez*

Arartekoa

## EGILEAREN AURKEZPENA

Azterlan honek gaur egun puri-purian dagoen iker-gai bat jorratzen du: sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketa.

Fenomeno honek interes eta kezka handia sortu dizkit alor horretan egin ditudan lehenengo ikerlanen ondoren. Gai horretan egindako azken ikerketa Bordeleko Unibertsitatearekin lankidetzan izan zen, eta sexu-esplotaziorako salerosketan dagoen lankidetzaren mugaz gaindiko izaerak bultzatu ninduen salerosketaren fenomeno eta egoera eskualde mailan sakontzera.

Euskal Autonomia Erkidegoa delitu-errealitate horretatik kanpo ez dagoela dioen hipotesitik abiatuta, azterlan honen bidez diagnostiko bat egin nahi dut, xede honekin: gure erkidegoan sexu-esplotaziorako salerosketaren egoera ezagutu eta ikusaraztea; biktimak babesten eta erreparatzen laguntzea; eta, azken batean, gizarteari eskubideen urraketa larri horretaz jabetzeko eskatzea.

Hemen aurkezten den diagnostiko-azterlan hau giza eskubideen arloan aplikatutako ikerketabeka baten deialdian Arartekoari aurkeztutako proiektuaren emaitza da. Horregatik, Arartekoari bereziki eskertu nahi diot ikerketa egiteko beka hau esleitu izana.

Gainera, eskerrak eman nahi nizkioke lanean parte hartu zuen sexu-esplotaziorako salerosketako biktima bakarrari, bai eta aurrez aurre elkarrizketatu ezin izan nituen biktima guztiei ere; azken horiek, baina, era batera edo bestera, azterlan honetan ere daude. Gizarte elkarte eta erakundeetako, erakunde eta zerbitzu publikoetako, adingabeak babesteko zerbitzuetako eta ospitale-zerbitzuetako parte-hartzaile guztiei ere



eskerrak eman nahi dizkiet. Halaber, eragile juridiko guztiei (Ertzaintza, Atzerritarren eta Mugen Brigada, udaltzainak, epailetza osatzen dutenak, abokatuak eta atzerritartasuneko fiskalak). Eskerrik asko zure prestasunagatik eta ekarpen profesionalengatik. Sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketari, halako gai korapilatsuari, buruzko zure iritziei eta gogoetei esker, ikerketa hau egin ahal izan dut.

*Izaskun Orbegozo Oronoz*

## SARRERA

Ikerlan honen helburua **Euskal Autonomia Erkidegoko sexu-esplotaziorako salerosketaren egoera nolakoa den jakitea eta aztertzea da.**

Asmo horrekin, oro har pertsonen salerosketa-fenomenoa kontuan hartzen duen **ikuspegi kriminologikoa** da abiapuntua, eta horren ondoren aztertuko da sexu-esplotaziorako salerosketa, bereziki, horren kontzeptua eta ezaugarri espezifikoak.

Bestalde, azterlan honek **ikuspegi biktimologikoa eta biktimen giza eskubideekiko errespetua** jasotzen ditu. Salerosketaren biktimak hainbat fasetan (hautematea eta identifikazioa, delituaren ikerketa, zigor-prozesua, arretoa, babesa eta kaltearen konponketa) bere eskubideen urraketa jasaten duenetik egiten duen ibilbidea hartzen da abiapuntutzat, zer zailtasun dauden eta nola konpon daitezkeen identifikatzeko. Gainera, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak izan daitezkeenekin harremana duten profesionalen zati handienak topatzen dituen oztupoak eta gabeziak aztertzen dira. Bi ikuspegi horiek azterlana hainbat kapitulutan eta ataletan egituratuko dituzte.

Alde batetik, **esparru teorikoak** hiru kapitulu jasotzen ditu. Lehenengoa, oro har salerosketaren fenomenoaren testuinguruari, haren kontzeptuari, ezaugarriari eta abarrei buruzkoa, eta bereziki, sexu-esplotaziorako salerosketa aztertzeari buruzkoa, ikerketaren helburu nagusia baita. Bigarrena, nazioartean, Europan, Espainian eta maila autonomikoan sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketari aplikatu dakiokeen **esparru juridikoari** buruzkoa da, bai errepresioaren eta salerosketaren aurkako prebentzioaren ikuspegitik, bai biktimen babesetik. Hirugarrenak **pertsonen saleroske-**

**taren beste modalitate batzuk** aztertzen ditu, esplotatzeko beste modu larri batzuk aipatzeko asmoz (sexu-esplotaziorako salerosketa, adibidez).

Bestalde, EAEko sexu-salerosketaren errealitatearen diagnostiko-azterlana oinarritzen den **azterlan enpirikoak** eta ardatz nagusiak (IV. kapitulua) **berariazko helburu** hauek ditu: salerosketaren delitu-eragina aztertzea; biktima-kopuruari buruzko datuak jakitea, haien profila eta zaugarritasun inguruabarrak; zein diren biktimak babesteko premiei erantzuteko ezarritako politika publikoak, eta zer-nolako zailtasunei eta mugei aurre egin behar dieten sexu-salerosketan lan egiten duten pertsonen nahiz biktimen.

Azkenik, aurrez egindako ikerlan guztiaren emaitza modura, **azterlanaren ondorioak** ateratzen dira zein **hobetzeko proposamenak** (V. kapitulua) egiten, eta sexu-esplotaziorako salerosketa-biktimen arreta, babesa eta erreparazioa hobetzeko biktimekin harremana duten eragile guztientzat dira.

## METODOLOGIA

Azterlan honetan erabilitako metodoa ikerkuntza parte-hartzailea izan da; hortaz, pertsonen salerosketaren arloan ezagutza eta lan-esperientzia handia duten adituek ikerketaren subjektu protagonista gisa parte hartu dute, prozesu osoan elkarrengainean jardunez.

Gainera, ikerketak **metodologia kualitatiboari** jarraituz egin da, eta, horri esker, kontsultatutako pertsonengandik informazioa lortu ahal izan da sexu-esplotaziorako salerosketaren errealitateari buruz dituzten esperientziak, iritziak eta zailtasunak jakiteko. Horrek balio izan du EAEko sexu-esplotaziorako salerosketaren egoera eta hobetzeko proposamenak aztertzean garrantzitsutzat jotzen dituzten alderdiak biltzeko.

Azterlanaren hainbat fasetan egituratu da oinarriko informazioaren bilketa:

- 1. Gaia eta indarrean dagoen legeria biltzea eta testuinguruan jartzea**, baita erakunde publikoek ezarritako **planak eta protokoloak** ere.

Iturri bibliografikoetatik lortutako informazioa berrikusi eta aztertu da (liburuak, txostenak, dokumentuak, azterlanak, memoriak, araudia eta abar), bai eta Atzerritartasun Fiskaltzaren memoriak eta hedabideetan argitaratutako prentsa-berriak ere.

- 2. Adituei bisitak eta elkarrizketak egitea: Ikerketaren eremu geografiko nagusia EAE bada ere**, beharrezkotzat jo da espainiar estatuan erreferentziak diren eragile juridiko eta gizarte-eragile instituzionalen iritziak ezagutzea, arlo horretan izan duten esperientzia eta ekarpenak oso erabilgarriak izan baitira fenomeno horri buruzko azterketa

osatzeko eta aberasteko. Xede horrekin, EAEn eta Espainian informazioa **2016ko otsailaren eta abuztuaren** artean jaso zen.

Elkarrizketak aurrez parte-hartzaileei igorri zitzaizkien galdetegi baten bidez egin ziren. Hortaz, emandako informazioak galdetegian jasotako gaietara erantzuten die, nahiz eta beti helarazi zen interresgarritzat jotzen ziren alderdi gehigarri batzuk proposatzeko aukera.

EAEko nahiz Espainiako aditua hautatu ondoren, gutun bat bidali zitzaion azterlanean parte hartzeko eskatuz, nahiz eta eskaera noizbait telefonoz egin zen, konfidentzialtasuna eta anonimotasuna gordez une oro.

Elkarrizketa horietan, gai hauei buruzko informazioa jaso nahi zen:

- Sexu-esplotaziorako pertsonen salerosketaren errealitatea Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Pertsonen salerosketari buruzko estatistika-datuak.
- Biktimen profila (jatorria, adina, egoera eta abar).
- Biktimekin lan egiten duten elkarte/gobernuz kanpoko erakundeen laguntza.
- Biktimen bizi historiak.
- Pertsonen salerosketetan jarduteko prozedura (jarduteko protokoloak).
- Hautemandako zailtasunak.
- Hobetzeko proposamenak.

### 3. Landa-azterlana.

**37 elkarrizketa sakon** egin ziren: **31 banaka, 4 taldeka, 1 telefonoz eta beste bat Skype** bidez. **Parte hartutako sexu-esplotaziorako salerosketako biktima bakarrari** dagokionez, xede horrekin egindako **galdetegi** bat bete zuen.

Azken ikerketa-fase horren helburua sexu-esplotaziorako salerosketaren errealitatearen diagnostikoa egitea izan zen, honako hauen ikuspegitik: salerosketaren esparruan egunero beren lanbidea egiten dutenak edota sexu-esplotaziorako salerosketagatiko biktimizazio-prozesu bat bizi izan dutenak. **Hainbat erakunderekin harremanetan jarri zen eta honako hauek elkarrizketatu ziren:** eragile juridikoak (epailetza, fiskaltza, abokatutza), Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak (Ertzaintza, Udaltzaingoak eta Polizia Nazionala), elkarteetako langileak, osasun-langileak eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Saileko (Biltzen) teknikariak.

#### **Erakunde eta eragile informatzaileen zerrenda:**

##### **- Autonomia Erkidegoan**

Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza

Gipuzkoako Probintzia Auzitegia

Irungo Instrukzioko Epaitegia

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila



Oblatas elkarte (Bizkaia)  
 Askabide elkarte (Bizkaia)  
 Bilboko Gurutze Gorria  
 Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordea (CEAR-Euskadi)  
 Abokatua  
 Emakumearen Euskal Erakundea (Emakunde)  
 Irungo Udala  
 Donostia Unibertsitate Ospitalea  
 Arabako Unibertsitate Ospitalea  
 Basurtuko Unibertsitate Ospitalea  
 Foru aldundiak  
 Atzerritarren eta Mugen Komisaria Nagusia

- **Estatuan**

Esperantza Proiektua  
 Emakume Prostituituen Prebentziorako, Gizarteratzeko eta Arretarako Elkarte (APRAMP)  
 Migrazioen Espainiako Batzorde Katolikoaren Elkarte (Accem)  
 Amaranta Fundazioa  
 Madrilgo Gurutze Gorria  
 Herriaren Defendatzailea  
 Atzerritartasun Fiskaltza (Madril)  
 Atzerritartasun Fiskaltza (Andaluzia)

Horrela, azken batean, metodologian definitutako faseak osatuta eta egindako elkarrizketak aztertu ondoren, azterlan honi honako hau erantsi zaio: Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonen sexu-esplotaziorako salerosketari buruzko diagnostikoa egiteko aukera ematen duten informazio, balorazio eta zailtasunen bilduma bat. Hortik abiatuz, ondorio zehatz batzuk eta hobetzeko zenbait proposamena egin dira fenomeno hori ikusarazteko eta biktimak babesteko premiei modu eraginkorren erantzuteko.

#### 4. Mugak.

Ezaugarri horiek dituen azterlan batek hainbat **muga** ditu:

- **Fenomenoa ez ikusaraztea.** Pertsonen salerosketaren izaera ezkutua datuak lortzea zailtzen du, eta salerosketa-modalitate baten ezagutzan soilik aurrera egiteko aukera ematen du —planetan, protokoloetan eta biktimei arreta ematen dieten gizarte erakundeen lanean hobeto ikusten da—, hau da, sexu-esplotaziorako salerosketan. III. kapituluan, ikuspegi teoriko batetik, salerosketaren beste modalitate batzuk aztertzeko dira, eta horrek aukera ematen du delituaren garrantzia modalitate guztietan jakinarazteko eta, hemendik aurrera, etorkizuneko ikerketen beharra azpimarratzeko.

- **Datuak eta informazioa eskuratzea.** Azterlan honen zailtasun nagusia fenomenoari buruzko datu errealak lortzea izan da. Hortaz, informazio-iturriak informazioa ematen duten funtsezko pertsonak dira; azterlan enpirikoa egin denean ere ezin izan da beti lortu nahi den informazio guztia eskuratu, zenbaitetan gai erreserbatua delako, eta beste batzuetan polizia egiten ari den ikerketaren xede delako.
- **Datuak eguneratzea.** Muga hori aurrekoari lotuta dago. Informazioa eta estatistika-datuak eskuratzeko zailtasunari haien eguneratzea gehitu behar zaie. Polizia-estatistikak oso gutxi jartzen dira zehatz-mehatz jendaurrean, eta gizarte-erakunde batzuen memoriara eta indarrean dauden jarduera-protokoloetara iristeko zailtasunak daude. Hori dela eta, prentsako berriak erabiltzen dira fenomenoari buruzko datuak eta informazio eguneratua eskuratzeko.
- **Biktimen zuzeneko harremana eta parte-hartzea.** Biktimen esperientzia pertsonalaren berri izan nahi zen, beren kontakizunetik abiatuta, eta haien bizipenak, sentimenduak eta bizitza eraikitzeko modua jakin, sexu-esplotaziorako salerosketaren ondoriozko biktimizazio-prozesu osoan zehar. Nolanahi ere, bere egoera pertsonalak ez zuen hori egiten utzi, horri aurre egiteko galdetegi anonimo eta konfidentzial bat biltzen saiatu zen, eta azterlanean parte hartutako elkarteei igorri zitzairen, biktimek erantzun ahal zezaten.

## I. KAPITULUA

### **Pertsonen sexu esplotaziorako salerosketaren fenomenoa**

Kapitulu honek gizakien salerosketaren errealitatea lantzen du, gai horri buruzko ezagutza sustatze aldera. Helburu hori erdiesteko, fenomenoaren ulertzeko oinarritzotzat jotzen diren zenbait alderdi jorratzen dira; esate baterako, salerosketaren kontzeptua eta horren ezaugarri orokorrak. Horren ostean, salerosketaren baitako esplotazio sexualaren modalitatean jartzen dugu arreta.

#### **1.1. Kontzeptua**

Pertsonen salerosketa delitua da, eta giza eskubideak urratzen ditu (Nazio Batuak, 2014, 6. or.). Biktima ikusezinak dituen fenomeno gisa azalertzen da (Herriaren Defendatzailea, 2012, 5. or.), eta saleroslearen eta biktimaren arteko elkarreragina aurpegi askokoa da (Villacampa Estiarte, 2011, 33. or.).

Hainbat dira delitu hori osatzen duten faktoreak (Baucells Jadós, 2006, 140. or.) eta, oro har, ezberdinak izaten dira herrialdearen arabera. Horien artean, honakoak nabarmendu behar dira: zailtasun ekonomikoak, gatazkak, delinkuentzia eta indarkeria soziala, hondamendi naturalak, genero desparekotasuna, funtzionario publikoen ustelkeria, nazioarteko krimen antolatuko sareetan parte hartzea, migrazio politika murriztaileak, legeria egokirik eta hori aplikatzeko borondate politikorik eza... (Nazio Batuak, 2007, xviii. or.).

Sexu esplotaziorako helduen salerosketak hiru elementu behar ditu: **ekintza**, **baliabideak** eta, azkenik, **esplotazio helburuak**.

- **Ekintza:** fenomenoaren jarduera nagusiak honako hauek dira: pertsonak antzeman, garraiatu, lekualdatu, hartu edo jasotzea, sexualki esplotatzeko asmoz.
- **Bitartekoak:** mehatxuak, indarraren erabilera edo bestelako bortxa modu batzuk (bahiketa, iruzurra, boterearen edo zaurgarritasun egoera baten abusua, edo ordainketa nahiz onurak eman edo jasotzea), beste baten gaineko autoritatea duen pertsona baten baimena lortzeko asmoz.
- **Esplotazio sexualerako asmoak:** sexu esplotaziorako salerosketaren helburua da pertsonak esplotatzea prostituzioan edo beste modu batzuetan (Pertsonen salerosketa prebenitu, zigortu eta zehatzeko protokoloa, bereziki emakume eta umeena, Nazioz haraindiko kriminaltasunaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmena osatzen duena, 2000, 2. or.).

Hala ere, hemezortzi urtez azpiko pertsona adingabeen salerosketak ez du “bitartekorik” behar. Elementuak soilik behar ditu; aurreko sailkapenaren arabera, “ekintza” eta “esplotazio sexualerako asmoak”.

## 1.2. Ezaugarriak

Fenomeno honen ezaugarri nagusietako bat da **datu estatistikoek berri izateko zailtasuna**. Izan ere, sarri biktimak ez dira zuzenik identifikatzen, estatu batzuek ez baitaukate fenomenoari aurre egiteko legeria eraginkorrik eta oso zaila baita biktimen lekukotza judizialak lortzea (Hiri Segurtasunerako Foro Europarra, 2007, 61. or.).

Ohikoa izan ohi da, halaber, horiek **nahastea** (Geronimi, 2013, 8. or.) errealitate kriminologiko oso ezberdinekin, **migratzaileen legez kanpoko trafikoa kasu** (Orbegozo Oronoz, 2013, 45. or.):

- **Pertsonen salerosketa** bi eratara abiatzen da. Lehenengoa, bahiketaren bidez edo emakume edo umea bere familiak saltzen duenean. Kasu horietan, normalki emakumeek ez dute jakiten nora daramatzaten. Bigarrena, emakumea migratu nahian dabilenean eta lanari, jomugari eta lan edo bizi baldintzei buruzko promes faltsuekin egiten dizkiotenean (Flamtermesky, 2013, 6. or.). Salerosketak ez dakar beti lekualdatzea; izan ere, pertsona bat jaso edo hartu ere egin daiteke, esplotazio testuinguruan izateko helburuz. Salerosketa nazioz gairikoa edo barnekoa izan daiteke, biktima migratzailea izan daiteke edo ez, baina beti presente dagoena da etorkizunean esplotatzeko helburua.
- **Migratzaileen legez kanpoko trafikoa** honetan datza: pertsona bat ilegalki sartzea estatu batean (pertsona hori ez denean estatu horretako nazionala edo ez denean hori bizi), zuzenean edo zeharka onura finantzario bat edo material bat eskuratzeko helburuz (Migratzaileen lurreko, itsasoko eta aireko legez kanpoko trafikoaren aurkako protokoloa, Nazioz haraindiko kriminaltasunaren aurkako Nazio Batuen Hitzarmena osatzen duena, 2000, 57. or.). Migratzaileak trafikatzailearekin adosten du mugak irregularki gainditzea, helburu ekonomiko bat tarteko (Cortés Toro, 2006, 174. or.). Salerosketarekiko ezberdintasun nagusia da onura ekonomiko bat lortzea dela migratzailearen lekualdaketa, eta ez etorkizuneko esplotazioa (Mayordomo Rodrigo, 2008, 112. or.).

## Elkarri lotutako fenomeno kriminologikoak

FENOMENO KRIMINOLOGIKOAK	MIGRATZAILEEN LEGEZ KANPOKO TRAFIKOA EKINTZAK	PERTSONEN SALEROSKETA HONAKO HONETAN OINARRITZEN DA:
Ezberdintasunak eta/edo ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsona bat beste herrialde batean sartzea erraztea.</li> <li>- Mugak ilegalki gurutzatzea/nazioz haraindiko mugak.</li> <li>- Trafikatzailearen eta migratzailearen arteko harremana amaitu egiten da biktima jomugara iristen denean.</li> <li>- Onura ekonomikoak jasotzea pertsonak garraiatzeagatik (aurrez edo iristean).</li> <li>- Pertsonak baimena ematen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sare kriminal batek, familia talde batek edo norbanako batek pertsonak atzeman, lekualdatu edo hartzea.</li> <li>- Nazioarteko nahiz nazio barruko mugak ilegalki edo legalki gurutzatzea.</li> <li>- Jomugara iristean biktima esplotatzeko asmoa.</li> <li>- Onura ekonomikoak jasotzea biktimak modu jarraituan esplotatzeagatik.</li> <li>- Pertsonak ez du baimenik ematen, edo salerosleek bere borondatea modaltzeko baliabideen bidez lortzen dute baimena.</li> </ul>

Iturria: egileak egina, honako argitalpen honetatik abiatuta: *La lucha contra la trata de personas. Manual para parlamentarios (2009)*.

Azkenik, fenomeno honen biktimak **esplotazioa ahalbidetzen duen zaurgarritasun egoeran daude**. Pobrezia, hondamendi naturalak, terrorismoa eta migrazio politika murriztaileak faktore oso garrantzitsuak dira immigrazio ilegala agertzeari dagokionez. Zenbait pertsonak zailtasunak izaten dituzte estatuetara iristeko nahiz horietan gelditu ahal izateko. Bada, horiek beharizan eta zaurgarritasun egoeretara daratuzte, eta delitugileen sareek horiek erabiliko dituzte onura ekonomikoa lortzeko. Horren ondorioz, migratzaileak, asilo eskatzaileak eta errefuxiatuak, emakumeak eta bakarrik dauden adingabeak bereziki zaurgarriak dira pertsonen salerosketari dagokionez, bai lekualdatzen ari direnean, bai jomugako herrialdeetan. Biktimen administrazio egoera, hizkuntzaren oztopoak, komunitateetan eratutako krisi egoerak (gatazka armatuak, hondamendi naturalak...) eta abar aprobetxatzen dituzte salerosleek. Hala, segurtasun eta aukera falta duten pertsonen aprobetxatzen dira eta hertsatu edo engainatu egiten dituzte. Modu horretan, haiekiko kontrola lortzen dute eta, ondoren, emandako zerbitzuengatik onurak jasotzen dituzte (Department of State, United States of America, 2016, 8.-12. eta 21. or.).

### 1.3. Sexu esplotazioaren helburua: esplotazioa prostituzioan edo bestelako sexu esplotazio formak

Merkataritza sexuala loratzen ari da, eta mundu mailan hedatzen. Sexu esplotaziorako emakume eta umeen salerosketa da sexu industriari emakume eta adingabeak eskaintzeko instrumentu nagusietako bat. Hala, prostituzioan aritzera derrigortzen dituzte salerosleek (Meneses Falcón et al., 2015, 6. or.).

Sexu esplotaziorako helburua duen salerosketak erreferentzia egiten die, halaber, sexu izaera duten jardueren bidezko esplotazio modu guztiei, prostituzioan aritzea ez badakarte ere (Villacampa Estiarte, 2011, 439. or.). Horrenbestez, sexu esplotaziorako salerosketaren modalitatean sartu beharko lirateke honako jokabide hauek: biktima morrontza sexualeko ekintzetan parte hartzea; esate baterako, esklabu sexualak antzematea gatazka armatuetan, emazte edo emaztegaiak saltzea, material pornografikoa ekoiztea edo ikuskizun pornografikoetan parte hartzea. Horrez gain, esplotazio hori ez da identifikatu behar soilik irabazi ekonomikoak eskuratzeko asmoa duen esplotazioarekin, baizik eta esplotatzaileari edonolako onura motaren bat dakarkionarekin, onura pertsonala barne (Guardiola Lago, 2007, 336. or.).

Sexu esplotazio helburua duen salerosketak jarraitzen du esplotazio modurik zabalduena izaten **Europar Batasunean** (erregistratutako biktimen %67), eta horren ostean dator lan esplotazioa (erregistratutako biktimen %21). Gainerako, %12a beste esplotazio modu batzuen biktimei dagokio (Europako Batzordea, 2016, 4. or.).

Halaber, ikusi da pertsonen salerosketaren biktimen artean nazionalitate aniztasun handiagoa dagoela mendebaldeko eta Europako erdialdean, munduko gainerako eskualdeetan baino handiagoa. Gehienetan (%84), salerosketaren xedea sexu esplotazioa zen (Drogen eta Delituen kontrako Nazio Batuetako Bulegoa, 2020, 2. or.). Halaber, Espainia da sexu esplotaziorako salerosketarako joan-etorri nahiz jomuga herrialde nagusietako bat (Movimiento por la Paz, 2018, 6. or.).

### **1.3.1. Salerosketaren biktimen ezaugarriak: eragin psikologiko larria eta eskubideen urraketa**

Sexu esplotazioko helburua duen salerosketaren biktimek eskubide eta bermeen urraketa handia pairatzen dute (Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea, 2012, 10. or.).

Antzemandako biktima gehienak emakumeak eta umeak dira (Department of State, United States of America, 2018, 10. or.). Prostituzioa gauzatzen esplotatzen dituzte, mehatxu eta erasoen bidez. Denetarik indarkeria eta intimidazioa pairatzen dute. Dokumentazioa kentzen diete eta lan-saio amaigabeak inposatzen dizkiete baldintza negargarrietan. Gainera, diru guztia eman behar diete etengabe kontrolatzen dituzten salerosleei. Drogak edo bestelako substantziak hartzera ere derrigortzen dituzte, haien familiek mehatxuak sufrizten dituzten jatorrizko herrialdean, eta abar. (Estatuko Fiskaltza Nagusia, 2017, 4.-18. or.).

Benetako ezjakintasuna dago indarkeria, intimidazio, umiliazio eta duintasunaren kuestionamendu egoera horiek biktimen gain duten **eragin psikologikoaz**. Depresioa eta estres postraumatikoa diagnostikatzeko oso probablea da kasu askotan. Biktimek haien aipatzen dituzte beldurra, nazka, kulpa, lotsa, aldebiko afektoak eta sistemarekiko konfiantza falta. Izan ere, babesteko diseinatuta dagoen arrear, sarri exijitzen diete salerosleen identifikazioan laguntzeko, kontuan izan barik haien egoera, eta lekukotza koherenteak lortu nahian (**Psychological Health Impact of Trafficking in Human Beings**).

2017. urtean sexu esplotaziorako 155 biktima antzeman ziren Espainian. Gehienak emakumezkoak ziren (124 emakume eta 9 ume), baina 22 gizon ere antzeman ziren. Biktimen jatorri nagusiak Nigeria eta Errumania dira, eta neurri txikiagoan antzeman ohi dira Txinan, Venezuelan, Paraguayn, Brasilen, Marokon, Espainian eta Dominikar Errepublikan, besteak beste (Barne Ministerioa, 2017, 4. or.).

Helduen sexu esplotaziorako salerosketaren ezaugarri nagusia ikusezintasuna bada, are handiagoa da umeen kasuan. Gehienetan ez dute dokumentaziorik izaten, eta gainerako umeen antzeko bizitza daramate: eskolara doaz, medikuarenera joaten dira eta parkean jolasten dute. Beraz, haien egoera ez da detektatzen sarri, baina orotariko tratu-txarrak, abusua eta esplotazioa jasaten dituzte. Kasurik onenean, amaren familiarteko edo lagunen ardurapean gelditzen dira; okerreanean, sareko salerosleen ardurapean. Beste batzuk adingabeak babesteko sistemara igarotzen dira (Castaño Reyero eta Pérez Adroher, 2017, 34. or.), eta batzuetan amarengandik bereizten dituzte (Women's Link Worldwide, 2017, 64. or.).

Sexu esplotaziorako salerosketak eragin oso larriak ditu haur eta nerabeetan. Iraupen luzeko trauma fisiko eta psikologikoak izaten dituzte, bai eta gaixotasunak (hiesa), drogekiko menpekotasuna, nahi gabeko haurduntzak, desnutrizioa, isolamendu soziala eta, are, heriotza ere (Department of State, United States of America, 2018, 32. or.).

### **1.3.2. Salerosleak: arau-hausleen tipologia eta modus operandia**

Salerosleek emakume eta umeengana jotzen dute nagusiki (UNODC, 2018, 8. or.). Biktimen familia berekoak izan daitezke edo nazionalitate bera izan dezakete eta, are, haiekin bizi daitezke. Delitu honekin lotuta, deigarria da honako hau: gehienbat gizonak egiten duten eta emakume eta umeek jasaten duten

delitua izan arren, emakumeek ere kontuan hartzeko moduko rola daukate arau-hausle gisa (UNODC, 2014, 10. or.). Emakume prostitutak edo prostituta ohiak izan daitezke, lehen salerosketaren biktima zirenak eta gerora salerosle gisa jarduten dutenak, dirua irabazteko. Batzuk prostitutak antzemateko antolakundeetan nahastuta egon daitezke; beste batzuk, garraioa eta lekualdaketa antolatuz; eta beste batzuek esku-hartzen dute soilik bizilekua topatzeko edo harrera egin eta esplotazio egoera batean sartzeko (EuroTrafGuID, 2013, 21. or.).

Adierazi den bezala, Espainia da sexu esplotaziorako salerosketaren jomuga nagusietako bat. Espainiako arau-hausleek herrialde hauetan izan ohi dute jatorria: Nigerian, Errumanian, Espainian, Txinan, Marokon, Hungarian, Bulgarian, Italian, Brasilen eta Errusian (Barne Ministerioa, 2017, 5. or.). *Modus operandia* talde edo antolakunde kriminalen bidez gauzatzen da. Honako hauek nabarmendu behar dira:

- **Nigeriar antolakundeak:** Nigeriako biktimen errekrutamendua **Edo** estatuan egin ohi da. Jendeak bertara migratzen zuen XIX. Mendean, bizi baldintzak hobetzeko asmoz, edo **Europarako** bidean zeuden herrialdeetara, Marokora kasu.

Honakoen bidez antzematen dira biktimak:

- a) **Zorren bidezko morrontza sistema** saleroslearen eta emakumearen artean: Nigerian egiten den errekrutamenduan, talde nigeriarrek “pakete” bat “eskaini” ohi diete Europara ilegalki migratzeko, 50.000-70.000 naira nigeriarren truken (250 euro inguru). Horrek barne hartzen ditu garraioa (itsasokoa, airekoa eta lurkoa), elikadura gastuak eta dokumentazioa (gehienetan pasaporte faltsuak). Biktimek onartu egiten dute, Europan lan eginez dirua itzultzeko ideiarekin. Gazteak direnez eta hezkuntza maila baxua dutenez, biktimek ez dakitena honakoa da: “pakete” horrek 50.000 eta 70.000 euro bitarteko zorra dakarrela, eta derrigortutako prostituzioan jardunez ordaindu behar dutela hori. Are, baliteke mantenuarekin lotutako kostuek (ostatua eta elikadura) edo “portaera txarrak” zorra areagotzea. Hala, haien gaztaroa hipotekatzen dute azkenik zorra ordaindu ahal izaten duten arte. (Movimiento por la Paz, 2018, 19. or.).
  - b) **Zin egitearen zeremonian**, emakumeek zin egiten dute bere “madame” delakoaren jarraibideei jaramon egingo dietela, eta Espainian ez dutela joko poliziarengana. Apaiz baten aurrean, emakumeen zin egiten diete budu jainkoei. Hala, zorak ordaintzeko eta “babeslearen” (“madamea” izan ohi da) jarraibideak une-oro segitzeko konpromisoa hartzen dute. Horrez gain, adierazten dute inola ere ez dutela joko poliziarengana edo bestelako agintari judizialengana. Zin hori urratzeak ondorio larriak izan ditzake biktimarentzat nahiz bere familiarentzat; esate baterako, heriotzarekin mehatxatzea eta kalteak eragitea haiei nahiz familiei. Gainera, desohore ekintza izan daiteke familiaren eta komunitatearen aurrean (Bakearen aldeko Mugimendua, 2018, 19.-23. or.).
- **Asiar antolakundeak:** piramide erakoak dira, eta izugarriko hierarkia daukate, kupulatik hasita. Kupula hori Txinan dago. Biktimak antzematen dituzte Europarako migrazio proiektu bat eskainiz. Antolakundea arduratzen da lekualdaketarako behar den guztia emateaz (dokumentazioa, bidaia gastuak...), eta bidaia hegazkinez izan ohi da. Biktimak antolakundeari lotuta gelditzen dira zor baten bidez (zor bidezko morrontza), eta behin jomugara iritsita, dokumentazioa kentzen diete.

Harrera antolakundeko beste kide batzuek egin ohi dute etxebizitza partikularretan. Kontrol handia izaten dute, eta bideokamerak ere erabil ditzakete. Hortik prostituziora derrigortuko dituzten lekura eramaten dituzte biktimak. Etxebizitzak izan ohi dira, eta salerosketaren biktima ohi baten kontrolpean egoten dira. Azken horrek egiaztatzen ditu emandako “zerbitzuak”, dirua biltzen du eta informazioa ematen dio antolakundeari. Batzuetan, biktimak drogak edo beste

substantzia batzuk kontsumitzera behartzen dituzte, trabarik jar ez dezaten (Estatuko Fiskaltza Nagusia, 2017, 11.-12. or.).

- **Antolakunde amerikarrak:** engainu bidez antzematen dituzte biktimak gehienetan, eta sexu esplotazioa inposatzen diete haien garraioa eta lekualdaketatik hartutako zorraren truke. Internet bidez ere antzeman izan dituzte. 15 adingabez osatutako talde baten kasuan, kaptazioa sare sozialen bidez egin zen, prostituzioa helburu (Estatuko Fiskaltza Nagusia, 2017, 10. or.).
- **Europar antolakundeak:** biktimak engainuaren, indarraren eta biolentziaren bidez nahiz salerosketaren bitartez antzematen dituzte (Estatuko Fiskaltza Nagusia, 2017, 12. or.). Nabarmendu behar da Herbehereetan sexu esplotaziorako salerosketarako gauzatzen duten praktika bat, *lover boy* delako figuran oinarritzen dena. Termino horrek erreferentzia egiten dio biktima seduzitu eta bere konfiantza irabazten duen gizon gazte edo mutil bati. Gehienetan 18 urtetik beherakoak izaten dira biktima horiek. Bada, mutilak harreman erromantiko bat agintzen dio, prostituzioaren bidez edo bestelako esplotazio modu baten bidez biktima esplotatzeko asmoz (EuroTrafGuID, 2013, 20. or.).



## II. KAPITULUA

### Esparru juridikoa

Salerosketaren erregulazio juridikoa urtez urte bilakatu da, eta ondorioz arau mota ikaragarria sortu da. Aurrerapen asko ekarri du horrek arloaren legedian, bai nazioarte, bai estatu mailan. Arlo horretan ezarritako tresna juridiko nagusiak aztertuko dira hemen, delitu horri aplikatzen zaion esparru juridikoa ezagutzeko.

#### 2.1. Nazioarteko esparru arautzailea

Munduko salerosketaren aurkako ekintzaren esparruan zenbait tresna juridiko eman dira bi ikuspegi hartuta: delituaren kontrako borroka eta jazarpena, eta biktimen giza eskubideen babesa.

#### Nazio Batuen Erakundea

Pertsonen salerosketa kezka izaten hasi da Nazio Batuen Erakundearentzat, denboraren poderioz hartu dituen dimentsioak eta giza esplotazio horrek dakarren eskubideen urraketa larria direla-eta. Pertsona-tratulariek, talde kriminalekin batera (terroristak, droga-trafikatzaileak, etab.), globalizazioa, zabalkuntza ekonomikoa eta aurrerapen teknologikoak baliatzen dituzte mundu mailan garatu eta etekin ekonomiko handiak lortzeko. Egoera horri aurre egiteko Nazio Batuen Erakundeak, [Batzar Nagusiaren 1998ko abenduaren 9ko 53/111 Ebazpenaren](#) bidez, gobernuarteko batzorde berezi bat sortzea erabaki zuen. Haren osaketa zabalik egongo zen, nazioarteko konbentzio zabal bat prestatuko zuen nazioz haraindik delinkuentzia antolatuen kontra, eta emakumeen salerosketari buruzko nazioarteko tresna bat prestatzea aztertuko zuen.

Hala, 2000ko abenduaren 15ean Palermon sinatu zen **Nazioz gaindiko Delinkuentzia antolatuaren kontrako Nazio Batuen Konbentzioa eta haren protokoloak** mugarri izan ziren nazioz gaindiko delinkuentzia antolatuaren aurkako borroka indartzeko, ordura arte hura borrokatzeko ahaleginek eraginkortasun txikia izan zutelako. Halaber, onuragarritzat jo zen konbentzio hori **Pertsonen eta, batez ere, emakumeen eta haurren salerosketa prebenitu, erreprimitu eta zehatzeko protokoloarekin** (Palermoko Protokoloa esaten zaio), pertsonen salerosketa eraginkortasunez prebenitu eta borrokatu beharrari erantzuteko, dena nazioarteko ikuspegi zabal batetik, jatorrizko, igarotzeko eta helmugako herrialdetan prebentzio-neurriak jasoz tratulariak zehatu eta biktimei babes handiagoa emateko.

Protokoloa nazioarteko tresna juridiko bat da. eta helburu hauek dauzka: pertsonen salerosketa prebenitu eta borrokatzea, arreta berezia jarriz emakume, neska eta mutilei; salerosketa horren biktimak babestu eta laguntzea, haien giza eskubideak guztiz errespetatuz; eta estatu kideen arteko lankidetzaz sustatzea aurreko xedeak erdiesteko.

Halaber, garrantzitsua da, salerosketari bere alderdi guztietan heltzen dion lehenengo tresna juridiko unibertuala delako, jokabide horiek nazioz gaindikoak direnean eta delitu-sare antolatuak egiten dituztenean zehatuz.

3.a) artikulua honela definitzen du **sexu-esplotaziorako salerosketaren** jokabidea: *“pertsonak erakarrri, garraiatu, lekualdatu, atotsi edo hartzea, mehatxua edo indarraren erabilera zein beste derrigortze modu batzuk, erraptua, iruzurra, engainua, botere-abusua edo kalteberatasun-egoera bat erabiliz, edo beste baten gainean aginpidea duen pertsona baten adostasuna lortzeko ordainketak edo etekinak emanez edo jasoz, inoren prostituzioan esplotatzeko edo beste sexu-esplotazio mota batzuetarako”*.

Esan behar da tresna hori gehiago dagoela salerosketaren aurkako jazarpen penalari begira eta ez dituela horrenbeste lantzen biktimentzako laguntza eta babesa. Artikulu bakarra dago haiei buruz (6. artikulua). Hauek biltzen dituzte babes-neurri nagusiek:

- a) Prozedura judizial eta administratiboei buruzko informazioa.
- b) Laguntza arau-hausleen aurkako zigor-jarduketan etapa egokietan haien iritziak eta kezak aurkeztu eta aztertzea ahalbidetzeko, horrek defentsarako eskubideak kaltetu gabe.

Bestalde, estatu kide bakoitzak aztertuko du pertsonen salerosketaren biktimen oneratzeko fisiko, psikologiko eta sozialerako neurriak aplikatzeko aukera, egokia denean, gobernuz kanpoko erakundeen, bestelako erakundeen eta gizarte zibileko sektoreen laguntzaz eta, batez ere, hauek emanez:

- a) Ostatu egokia.
- b) Aholkularitza eta informazioa, bereziki haien eskubide juridikoei buruz, biktimek ulertzen duten hizkuntza batean.
- c) Laguntza medikoa, psikologikoa eta materiala.
- d) Enplegu, hezkuntza eta prestakuntzarako aukerak.

Gainera, kontuan hartuko dira pertsonen salerosketaren biktimen adina, sexua eta beharrian bereziak, bereziki neska-mutilenak, ostatua, hezkuntza eta zaintza egokia barne. Bestalde, estatu kide bakoitzak biktimen segurtasun fisikoa aurreikusiko du bere lurraldean dauden bitartean, eta jasandako kalteengatik ordaina eskuratzeko aukera eskainiko dieten neurriak.

Protokoloak duen beste alderdi azpimarragarri bat prebentziorako eta estatuen arteko lankidetzarako jasotako neurriak dira, hala nola politikak eta programak ezartzea, informazio-trukea, lankidetzak, alde-bikoa eta aldeaniztuna, etab., pertsonen salerosketa borrokatzeko. Halaber, tresna horrek aipatutako jokabideak euren barne zuzenbidearen bidez zehatzeko eskatzen die estatu kideei.

Azkenik, Nazio Batuen esparruan, [Segurtasun Kontseiluaren 2331 \(2016\) Ebazpena](#) ere eman da. Haren zioa gaur egun talde terrorista batzuen estrategia eta ideologiaren barruan pertsonen salerosketari lotuta sartzen diren kasuak dira. Talde horiek euren baliabide ekonomikoak eta boterea handitzeko tresna gisa erabiltzen dituzte, emakumeak, neskak eta mutilak erreklutatuz, komunitateak suntsituz eta herritarrak garrantzi estrategikoko eremuetatik mugiaraziz.

Horregatik, oraindik egin ez duten estatu kideei euren adimen finantzarioko unitateetan ezagutza espezializatuak sustatzeko eskatzen die, terrorismoa finantzatzen duten pertsonen salerosketa kasuak hautemateko. Halaber, gatazka armatuek erasandako eremuetan pertsonen salerosketa kasuetan nahastutako pertsonak eta erakundeak zehatzeko aukera aztertzeke asmoa ere adierazten du, eta talde terroristek egindako mota guztietako salerosketa egintzen biktimak terrorismoaren biktimatza hartzea, biktima mota horri ematen zaizkion laguntza eta erreparazioa jaso ahal izateko.

## **Europako Kontseilua**

Europako Kontseiluaren barruan hiri hitzarmen nabarmendu behar dira salerosketen eta emakumearen aurkako indarkeriaren biktima guztientzat duten garrantziagatik: gizakien salerosketaren kontrako borrokari buruzkoa (Varsoviako Hitzarmena), haurrak sexu-esplotazioaren eta -abusuaren kontra babestekoa (Lanzaroteko Hitzarmena) eta emakumearen eta etxeko indarkeriaren kontrako prebentzioari eta borrokari buruzkoa (Istanbulgo Hitzarmena).

[Europako Kontseiluaren gizakien salerosketaren kontrako borrokari buruzko hitzarmena](#), 2005eko maiatzaren 16koa, promulgatuta, salerosketen biktimen giza eskubideak jorratuko zuen nazioarteko tresna juridiko global egin beharra amaitu zen. Hauek dira haren xedeak: gizakien salerosketa prebenitu eta borrokatzea, genero-berdintasuna ziurtatuz; haien eskubideak babestea, biktima eta lekukoentzako babes- eta laguntza-esparru global bat diseinatzea; ikerketa eta jarduketa penal eraginkorrak ziurtatzea; eta gizakien salerosketaren kontrako borrokaren arloan nazioarteko lankidetzak sustatzea (I. artikulua).

Hitzarmenak ezartzen duen salerosketaren definizio juridikoa protokoloak ezarritakoaren oso antzekoa da baina, azken hori ez bezala, hitzarmena biktima mota guztiei aplikatzen zaie, zein ere diren haien generoa, eremu geografikoa (nazio zein nazioz gaindiko salerosketa) eta delinkuentzia antolatuekin duen lotura. Palermoko Protokoloak (2000) bilatzen zuen pertsonen salerosketaren kontra borrokatzeko helburuaz gain -hitzarmen honetan ere jaso da bera-, batez ere salerosketaren biktimen giza eskubideei eta babesari erreparatzen die hitzarmenak. Izan ere, 39. artikulua araberak, hitzarmenaren helburuetako bat protokoloak eskaintako babesa indartu eta bertan jasotako arauak garatzea da.

Hau xedatzen du 4.a) artikulua: *“gizakien salerosketa pertsonak erreklutatu, garraiatu, transferitu, ostatu edo hartzea da, horretarako mehatxura, indarraren erabilerara zein beste hertsadura mota batzuetara, bahiketara, iruzurrera, engainura, agintaritzaz edo kalteberatasuneko beste egoera batez abusatzeraz, edo beste baten gaineko aginpidea duen pertsona baten adostasuna lortzeko ordainketak edo abantailak eskaini edo onartzea, bera esplotatzeko. Gutxienez, beste pertsonen prostituzioa esplotatzea edo beste sexu-esplotazio modu batzuk sartuko dira esplotazioan...”*

Hitzarmenean (III. kapituluak) salerosketaren biktimaren eskubideei buruzko xedapen interesgarri batzuk nabarmentze dira:

- **Biktimen identifikazioa (10. artikulua):** salerosketaren biktimek langile prestatu eta kualifikatuek formalki identifikatzeko eskubidea izango dute. Lagunduta ez dauden mutilak, neskak eta nerabeak direnean, legezko agintari edo zaintza batek ordezkatzeko ditu. Gainera, behar diren neurriak hartuko dira haien identitatea eta herritartasuna ezartzeko, eta behar diren ahalegin guztiak egingo dira haien familia aurkitzeko.
- **Bizitza pribatuaren babesa (11. artikulua):** biktimen datu pertsonalak pertsonak babesteko hitzarmenak xedatutako baldintzetan erregistratu eta erabiliko dira, datu pertsonalen tratamendu automatizatuari dagokionez.
- **Biktimentzako laguntza (12. artikulua):** fisiko, psikologiko eta sozialki oneratzeko laguntzaren eskubideak hauek bilduko ditu gutxienez:
  - Etxebizitza egoki bat eskuratzea.
  - Laguntza psikologikoa.
  - Premiazko osasun-laguntza.
  - Itzulpen eta interpretazio zerbitzuak.
  - Aholkularitza eta informazioa.
  - Laguntza zigor-prozeduretan.
  - Haurrentzat, hezkuntza eskuratzea.
- **Oneratzeko eta hausnartzeko aldia (13. artikulua):** denbora bat da (30 egun gutxienez) biktima indarberritu, trafikatzailen eraginari ihes egin eta, jakinaren ganean, erabaki bat hartu ahal izateko, eskudun diren agintariei laguntzeari dagokionez. Epe horretan ezingo da hartu biktima erbestertzeko neurririk eta bere lurraldeko egonaldia baimenduko da.
- **Bizileku-baimena (14. artikulua):** bizileku-baimen berriztagarria emango zaie biktimei eskudun den agintaritzaren arabera haren egonaldia beharrezkoa denean, haren egoera pertsonala dela-eta eta/edo agintariei delitua ikertzen lagunduko dielako.
- **Kalte-ordaina eta baliabideak (15. artikulua):** biktimek dagozkien prozedura judizial eta administratiboei buruzko informazioa eskuratu ahalko dute, ulertzen duten hizkuntza batean. Halaber, doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea izango dute.
- **Biktimen aberriratzea eta itzulera (16. artikulua):** itzulera pertsonaren segurtasunerako eta duintasunerako eskubideak errespetatuz egingo da. Aintzat hartuko du biktima bat izateari lotutako prozedura judizialen egoera eta borondatezkoa izatea lehenetsiko da.
- **Genero-berdintasuna (17. artikulua):** estatu kide bakoitzak hitzarmenean hartutako neurriak aplikatu beharko ditu, neurriak garatu, betearazi eta ebaluatzean genero-berdintasuna eta genero-ikuspegiaren integrazioa sustatzeko.

Hitzarmenaren berezitasun gisa, aipatu behar litzateke kontrol eta jarraipenerako bi mekanismo sortzen direla: Gizakien Trafikoaren kontrako Aditu Taldea (GRETA), eta Alderdien Batzordea, haren xedapenak benetan aplikatzen direla ziurtatzeko (36. artikulua eta hurrengoak).

Azkenik, Palermoko Protokoloarekin gertatu bezala, hitzarmenak estatu kide bakoitzaren barne zuzenbidearen eskuetan uzten ditu salerosketaren arau-haustearen tipifikazioa zein aplikatu beharreko zehapena, berezitasun batekin: hitzarmenak azpimarratzen du zehapenek benetakoak, proportziozkoak eta disuasiokoak izan behar dutela eta estradizioa ekar dezaketenez askatasunaz gabetzeko zigorrak ezarri behar direla.

Pertsona helduen salerosketaz gain, haurren sexu-esplotazioak eta -abusuak dimentsio kezkarriak hartu dituzte, bai estatu, bai nazioarte mailan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabileraren ondorioz. Testuinguru horretan, [haurrak sexu-esplotazioaren eta -abusuaren aurka babesteko Europako Kontseiluaren Hitzarmena](#) sinatu zen, 2007ko urriaren 25ean, Lanzaroteko Hitzarmena esaten zaiona. Hauek dira haren helburuak: haurren sexu-esplotazioa eta -abusua prebenitu eta borrokatzea; sexu-esplotazio eta -abusuaren biktime diren aurren eskubideak babestea; eta haurren sexu-esplotazio eta -abusuaren aurkako estatu eta nazioarte mailako lankidetzak sustatzea.

Azkenik, [Europako Kontseiluaren emakumearen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitu eta borrokatzeari buruzko hitzarmena](#) ezarri zen, 2014ko abuztuaren 1ean sinatu zena, Istanbulgo Hitzarmena esaten zaiona. Garrantzi handia dauka, Europa mailan genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko tresna bat delako. Haren hitzaurrearen arabera, emakumearen kontrako indarkeriarik eta etxeko indarkeriarik gabeko Europa bat sortu nahi da, eta haren lehen helburua emakumeak indarkeria mota guztien kontra babestea da, haien artean, sexu-esplotaziorako salerosketaren aurka.

Hala, hitzarmenaren 3. artikulua honela ulertzen du emakumearen kontrako indarkeria: “*giza eskubideen urraketa bat eta emakumeen kontrako bazterketa forma bat, eta generoan oinarritutako indarkeria egintza guztiak izendatuko ditu, emakumeentzat izaera fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoko kalteak edo pairamenak dakartzatenak edo ekar dezaketenez, egintza horiek egiteko mehatxuak, derrigorrezko edo, bizitza publiko zein pribatuak, askatasuna arbitrarioki kentzea barne*”. Eta d) letran honela definitzen du “*generoaren ziozko emakumearen kontrako indarkeria*”: “*emakumearen kontrako indarkeria oro, emakume izateagatik, edo emakumei neurritz kanpo eragiten dien indarkeria oro*”. Azkenik, hitzarmenean, berrietasunen artean, nabarmendu behar da derrigorrezko ezkontzak salerosketa modu gisa onartzen dituela (37. artikulua).

## **Europar Batasuna**

Era berean, eskualde eremuetan, gizakien salerosketari eta legez kanpoko immigrazio sareei buruzko kezka bultzatuta, zenbait programa garatzearekin batera, tresnak eta araudiak hartu dira (De la Cuesta Arzamendi, 2013, 42.-43. or.).

Europako testuinguruan, salerosketaren kontrako borrokan azpimarratu behar diren mugarrietako bat, 1999an [Tampereko Europako Kontseilua](#) egin izana da. Bertan, lau lan ildo politiko eta kriminal ezarri ziren, eta haien artean gizakien trafikoa eta haurren sexu-esplotazioa daude. Tampereko programaren ondoren, Europako Kontseiluak, 2004an, [Hagako Programa](#) onartu zuen. Programa horrek Europar Batasunaren hamar lehentasun ezarri zituen, askatasuna, segurtasuna eta justizia urratzen dituzten delituak borrokatzeko esparrua indartzeko. Haien artean, immigrazio irregularra eta gizakien eta, batez ere, emakume eta haurren salerosketa nabarmentzen dira.

Gizakien salerosketa giza eskubideak urratzen dituen delitu larria izanik, Europar Batasunarentzat eta estatu kideentzat lehentasuna da hura prebenitu eta borrokatzea. Hala, arlo horretan, [Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna](#) nabarmentzen da, 2000koa, 5. artikuluan gizakien salerosketa debekatzen duena, eta salerosketaren biktimeen eskubidearen defentsa, laguntza eta babesaren arloan esanguratsu diren hiru zuzentarau:

Lehenik, [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36/EB Zuzentaraua](#), 2011ko apirilaren 5koa, gizakien salerosketa prebenitzeari, horren aurka borrokatzeari eta biktimak babesteari buruzkoa.

Arau hori salerosketaren kontrako ekintza batean sartzen da, zeinak era oso eta globalean heltzen baitio gertakariari, giza eskubideen urraketa gisa ulertuta eta, ildo horretatik, gehien bat biktimak babestea bilatzen du. Haren helburu nagusiak haien giza eskubideak babestea, arau-hausleen kontrako prozesu penaletan lekuko jardutera bultzatzea eta biktimizazio handiagoa ekiditea dira.

Salerosketari ematen dion definizioa (2. artikulua) Palermoko Protokoloan eta Varsoviako Hitzarmenean jasotakoak baino zabalagoa da; izan ere, beste jokabide batzuk biltzen ditu, hala nola pertsonen eta delitua egiteko baliabideen gaineko kontrol trukea edo transferentzia, baita hau ere: *“kalteberatasun-egoera batez abusatzea, edo beste baten gaineko kontrola duen pertsona baten adostasuna lortzeko ordainketak edo onurak emanez edo hartuz”*, inoren prostituzioa esplotatzeko, edo beste sexu-esplotazio modu batzuetan.

Gainera, kalteberatasunaren kontzeptua jasotzen du, honela ulertuta: *“persona horren aukera egiazko edo onargarri bakarra abusuari men egitea denean”*, eta salerosketaren kontzeptuan beste esplotazio modu batzuk biltzen ditu, hala nola eskaletza eta delituzko jarduerako egitekoa, aurreko tresnetan jasotzen ez zirenak. Zuzentarauaren azpimarragarriena giza eskubideak babesteari eta biktimei laguntzeari begira egotea da, 11. artikuluan araututako alderdi batzuek erakusten dutenez:

- Eskudun diren agintariak pertsona bat salerosketaren biktima izatearen arrazoizko zantzuak dauzkatenean, behar diren neurriak hartuko dituzte hari lagundu eta artatzea ziurtatzeko.
- Lagundu eta artatzeko neurriak biktimari emango zaizkio, ados eta jakinaren gainean egonda eta, gutxienez, hauek jasoko dituzte: haren iraupena ziurta dezakeen bizi maila bat, neurriak hartuz, hala nola ostatu egoki eta segurua eta laguntza materiala ematea; behar den tratamendu medikoa, laguntza psikologikoa barne; aholkularitza eta informazioa; eta itzulpen eta interpretazio zerbitzuak, beharrezkoa bada.

Halaber, arreta berezia ematen zaie haurdun egoteagatik, osasun zioengatik, desgaitasun bat izateagatik, nahasmendu psikiko edo psikologiko bat pairatzeagatik, edo indarkeria psikologiko, fisiko edo sexual larria jasan izanagatik premia bereziak dauzkaten biktimei. Salerosketaren biktima izan eta bidaidetik gabe dauden adingabeei ere ba, berariazko laguntza behar dutelako, eta nazioarteko babes-eskatzaillei.

Zuzentaruaren aurreikusitako zehapen-araubideari dagokionez, aldeak dauzka nazioarteko arauekin salerosketaren ziozko arau-hausteei aplikatzen zaien zehapenari dagokionez; izan ere, zigorra zehazki gauzatzen du, gutxienez bost urteko gehieneko iraupena duten askatasunaz gabetzeko zigorrekin. Bereziki kalteberak diren biktimak badira, delituzko erakunde baten esparruan egiten badira, biktima arriskuan jarri edo zabarkeriaz tratatzen bada, edo indarkeria larria erabiliz egiten badira, zigorra hamar urtekoa da gutxienez.

Bigarrenik, [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/33/EB Zuzentaraua](#), 2013ko ekainaren 26koa, nazioarteko babesaren eskatzaileak hartzeko arauak onartzen dituena, onartu zen. Haren helburua nazioarteko babes-eskatzaillei abegi egiteko arauak ezartzea da. Bere xedapenen artean, estatu kideentzako bat dauka, nazioarteko babes-eskaeretan pertsona kalteberen berariazko egoera kontuan har ditzaten, haien artean, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimena.

Hau xedatzen du 21. artikulua:

*“Zuzentarau honen xedapenak aplikatzeko legedi nazionalean, estatu kideek pertsona kalteberen berariazko egoera hartuko dute kontuan, hala nola adingabe, bidaidetik gabeko adingabe, des-*

*gaitasuna duten pertsona, adineko pertsona, haurdun dauden emakume, seme-alaba adingabeak dauzkaten familia gurasobakar, gizakien salerosketaren biktima, gaixotasun larriak dauzkaten pertsona, nahasmendu psikikoak dauzkaten pertsona eta torturak, bortxaketak edo beste indarkeria psikologiko, fisiko edo sexual moduak jasan dituzten pertsonena, hala nola emakumeen genitalen mutilazioaren biktimena”.*

Haren aplikazio-eremuak lurraldean, muga, jurisdikziopeko urak, edo estatu bateko igarotzeko eremuak barne, nazioarteko babes-eskaera aurkezten duten hirugarren herrialdeetako nazional eta aberrigabe guztiak hartzen ditu, lurraldean eskatzaile gisa geratzea baimentzen bazaie, baita haren familiako kideak estatuko zuzenbidearen arabera nazioarteko babes-eskaerak estaltzen baditu.

Azkenik, prozesu penalean biktimaren babesari heltzeko duen garrantziagatik, [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/29/EB Zuzentaraua, 2012ko urriaren 29koa](#), delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituen, aipatu behar da.

Hauek dira haren helburuak: salerosketaren biktimek prozesu penaletan parte hartu ahal izateko informazio, laguntza eta babes egokiak jasotzen dituztela ziurtatzea, eta bigarren mailako biktimizazioa arintzea. Halaber, eskudun diren agintariekin dauzkaten harreman guztietan aitortuak direla eta tratu begirunetsu, profesional eta ez-baztertzailea jasotzen dutela zaintzea eta biktimei laguntzeko zerbitzuak ezartzea bilatzen du. Gainera, biktimak adingabeak direnean, estatu kideek kontuan hartuko dute adingabearen interes gorenaren nagusitasuna eta interes hori banaka ebaluatzen dela. Ildo horretatik, adingabearen izaera kontuan hartzen duen planteamendu bat nagusitu behar da, haren adina, heldutasun maila eta iritzia, eta haren beharrezkoak eta kezkek aintzat hartzen dituen.

Arau hori garrantzitsua da, prozesu penalean salerosketaren biktimei babes premia bereziak aitortzen dizkielako, bigarren mailako biktimizazioaren edo biktimizazio errepikatuaren, larderiaren edo errepre-salien aurrean duten kalteberatasuna kontuan hartuz. Horri dagokionez, eskubideen eta babes premia berezi horiek asetzeko neurrien katalogo bat zehazten da.

## 2.2. Estatuko araudia

Salerosketaren arloan ezarritako nazioarteko eta Europako arauko betebeharrak isla nabarmena izan dute gure barne zuzenbidean hara ekartzean, eta lege ekoizpen handia eta araudi zabal eta sakabanatua ekarri ditu, salerosketaren kontrako borrokan eta biktimen babeserako aurrerapen esanguratsua ekarrita.

### Zigor Zuzenbide Substantiboa

Salerosketa delitua lehenaldiz eta autonomiaz arautu duen lehen legea [ekainaren 22ko 5/2010 Lege organikoa](#) izan da, 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa, aldatzen duena (177bis artikulua). Horrela, aztertutako nazioarteko eta Europako betebeharrak betetzen dira eta pertsonen salerosketari buruzko legedia argitzen da, protokoloa promulgatu aurretik migratzaileen legez kontrako trafikoarekin nahasten baitzen (318.bis.2 artikulua).

Gero, [martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoa](#), 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa, aldatzen duenak (idazketa berria eman zion salerosketa delituari), berriro erreformatu zuen tipo penala. Zehazki, **177. bis artikuluko 1. zenbakiak oinarritzko tipo** bat du, **ekintza** batzuk deskribatzen dituen, hala nola erakarri, garraiatu, lekualdatu, atotsi, hartu edo estatuko zein atzerriko biktima baten kontrola trukatu edo transferitzea, Espainian eginda, Espainiatik, igarotzean edo Espainiara

iristeko, **derrigortzeko bitartekoak** erabiliz, hala nola indarkeria, larderia, engainua, nagusitasun edo premia edo kalteberatasuneko egoera baten abusua, zenbait **xederekin**:

*“a) Lana edo bortxazko lanak ezartzea, esklabotza edo esklabotza, morrontza edo eskaletzaren antzeko jardunbideak.*

**b) Sexu-esplotazioa, pornografia barne.**

*c) Delituzko jarduerak egiteko esplotazioa.*

*d) Gorputzeko organoak eraustea.*

*e) Derrigortutako ezkontzak egitea.*

*Premia edo kalteberatasuneko egoera bat dago pertsona horren aukera bakarra, benetakoa edo onargarria, abusuari men egitea denean”.*

Espainiako Zigor Kodean araututako definizio juridikoa Palermoko Protokoloak ematen duenarekin erkatzen badugu, ikusten da Espainiako legegileak salerosketaren xedeak izendatu baino ez dituela egin, sexu-esplotazioaren definizioa ezarri gabe, eta protokoloak, aldiz, ezarri egiten duen. Xede sexuala baino ez du aipatzen eta pornografia sartzen du horren barruan.

Halaber, Palermoko Protokoloak ez bezala, Zigor Kodeak zigorra zigortzea aukeratu du, delitua nazioz gaindikoa izan zein ez, hots, zenbait herrialdetan (nazioz gaindikoa salerosketa) edo herrialde berean (barneko salerosketa), eta erakunde kriminal baten barruan egin daiteke.

Bestalde, **177. bis artikuluko 2. zenbakian** ezartzen denez, biktima mutila, neska edo nerabea bada, erakartzea, garraiatzea, lekualdatzea, atostea, hartzea, edo kontrola esplotaziorako trukatu edo transferitzea “gizakien salerosketa” izango da, 177. bis artikuluko 2. zenbakian zerrendatutako bitartekoak erabiliko ez balira ere.

Esanguratsua da kasu horretan azpimarratzea biktimiek emandako baimenak ez duela garrantzirik adierazitako bitartekoak erabili direnean hura lortzeko (indarkeria, larderia, engainua edo premia edo kalteberatasuneko egoera baten abusua).

Salerosketa delitua **bost eta zortzi urte bitarteko espetxe zigor** batekin zehatzen da (1. letra). 2011/36/EB Zuzentarauaren 4. artikulua barne-araudira ekarrita, ordea, Zigor Kodearen azken erreformak, 2015ekoak, bi **tipo kualifikatu** jaso ditu, oinarritzko tipoan aurreikusitakoa baino maila handiagoko zehapena dakartenak, kasu hauetan:

- delitua jasan duten pertsonen bizia edo osotasun fisiko edo psikikoa arriskuan jarri direnean;
- eta biktima bereziki kaltebera denean, gaixotasunagatik, haurdun egoteagatik, desgaitasunagatik edo egoera pertsonalagatik, edo adingabea denean.

Gainera, ulertzen da burutze aurreratua dela; izan ere, burutzen da biktimaren benetako esplotazioa lortu zein ez, halako moldez non, benetako sexu-esplotazioa gertatzen bada, salerosketa delituaren eta sexu-esplotazio delituaren arteko delituen pilaketa medial bat litzatekeen –KZren 187. eta 188. artikulua– (Sánchez Covisa, 2016, 46. or.).



Delitu horren biktimak erreparatu, kaltea konpentsatu eta birgizarteratzeko kontu esanguratsu bat da gizakien salerosketa delituagatik kondenatutako pertsona baten ondasunak, gauzak eta irabaziak konfiskatzea ere jasotzea.

### **Biktimaren babesa**

Puntu honetan salerosketaren biktimak babesteko legedi nagusia aztertuko da. **Prozesu penalaren** esparru zehatzean, biktimaren babesa babespeko lekukoa izatearen arabera jasotzen da, biktimarentzat eta haren senideentzat arrisku larri bat sumatzen denean.

[Abenduaren 23ko 19/1994 Lege Organikoak](#), auzi kriminaletan lekukoak eta adituak babesteari buruzkoak, babes-neurri batzuk ezartzen ditu salerosketaren biktimentzat, prozesu penal batean lekuko esku hartu orduko. Hala, aitorpena egin bitartean, instrukzio fasean, salerosketaren biktimarentzat berarentzat, beraren askatasunarentzat edo ondasunentzat, edo beraren senide edo gertukoentzat arrisku larririk sumatzen bada (1. artikulua), zenbait babes-neurri hartu ahalko dira haren identitatea gordetzeko:

*“a) Egiten diren eginbideetan haren izena, abizenak, helbidea, lantokia eta lanbidea, ez haiek identifikatzeko balio lezakeen beste edozein datu ez jasotzea; berarentzat zenbaki bat edo beste edozein gako erabil daiteke.*

*b) Eginbide oro egiteko bera begiz era arruntean identifikatzea galarazten duen edozein prozedura erabiliz ager dadila.*

*c) Zitazio eta jakinarazpenetarako, helbide gisa esku hartzen duen organo judizialaren egoitza ezartzea, zeinak era gordean helaraziko baitizkio hartzaileari”.*

Bestetik, 3. artikulua beste babes-neurri batzuk ezartzen ditu salerosketaren biktimarentzat, hala nola:

- haren argazkiak egitea edo haren irudia beste edozein prozedura zinematografiko edo bideografikoren bidez hartzea ekiditea, identifikatua izan ez dadin;
- poliziaren babesa;
- kasu berezietan, identitate berri baten agiriak eta baliabide ekonomikoak eman ahalko zaizkio bere bizilekua edo lantokia aldatzeko.

Halaber, bulego judizialera, eginbideren bat egin behar den tokira edo bere bizilekura ibilgailu ofizialean eramateko eskatu ahalko du, eta bulego horietan dagoen bitartean berak bakarrik erabiltzeko lokal gorde bat emango zaio, behar bezala zainduta egongo dena.

Biktimaren identitatea babesteko neurri horrek garrantzi handia dauka berarentzat, tratularien balizko errepresaliengatik. Praktikan, ordea, neurri hori ez dago behar beste bermatuta; izan ere, legeak berak lekukoen identitatea ezagutzea ahalbidetzen du, edozein alderdik bere behin-behineko kalifikazio, akusazio edo defentsa idazkian arrazoituta eskatuko balu. Hauxe dio 4.3 artikulua:

*“Edozein alderdik bere behin-behineko kalifikazio, akusazio edo defentsa idazkian proposatutako lekuko edo adituen identitatea ezagutzea arrazoituta eskatuko balu, zeinaren aitorpena edo txostena egokitzen jotzen baita, auzia epaitu behar duen epaileak edo epaimahaiak, proposatutako frogaren egokitasuna ebazten duen auto berean, lekukoen eta adituen izena eta abizenak eman beharko ditu, Lege honetan haiei aitortzen zaizkien gainerako bermeak errespetatuz”.*

Bestalde, arlo horretan azpimarratu behar da [apirilaren 27ko 4/2015 Legea](#), delituaren biktimaren Estatutarena, promulgatu zela, aipatu den 2012/29 EB Zuzentaraua barne-araudira ekartzearen ondorioz. Estatutu horrek delituen biktima guztien eskubideen, prozesalen zein prozesutik kanpokoan, katalogoa izan nahi du.

Halaber, babes berezia eman nahi die legedi berezirik ez duten edo kalteberatasun berezia duten zenbait biktima talderi, hala nola abusu, esplotazio edo haur-pornografiaren biktima diren adingabeei, eta gizakien salerosketaren biktimei, beste talde batzuen artean.

Estatutuko eskubideen aplikazio-eremuak delitu bat jasan duten biktima guztiak hartzen ditu, zein ere diren haien herritartasuna edo legezko bizilekua. Biktimei aitortutako eskubideen artean, garrantzi berezia hartzen dute hauek, daukaten egoera pertsonalagatik: prozedura penalean berak hautatutako pertsona batek laguntzea, itzulpena eta interpretazioa, eta laguntza zerbitzuak doan eta isilpean eskuratzea.

Halaber, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimei buruz ari garenean, azpimarratu behar dira estatutu horren III. tituluaren ezarritako babes-eskubideak:

- **Babeserako eskubidea (19. artikulua):** Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimek euren bizia eta euren senideen bizia, euren osotasun fisiko eta psikikoa, askatasuna eta sexu-segurtasuna eta sexu-ukigabetasuna babesteko eskubidea izango dute, baita haien intimitatea eta duintasuna era egokian babestekoa, bereziki aitortuta hartzen zaienean edo epaiketara lekukotasuna eman behar dutenean, bigarren mailako biktimizaziorako arriskua saihesteko (19. artikulua).
- **Biktimaren eta arau-hauslearen arteko kontaktua ekiditeko eskubidea (10. artikulua):** Prozedura penalaren egintzak egiten diren bulegoetan biktimen eta haien senideen eta arau-hauslearen susmagarriaren arteko zuzeneko begi kontaktua saihestu nahi da.
- **Biktima ikerketa penalean babestea (21. artikulua):** Artikulu honetan neurri batzuk jasotzen dira ikerketa penalaren esparruan biktimaren babesa ziurtatzeko; zehazki:
  - Beharrezkoa denean, biktimen aitortuta arrazoirik gabeko luzapenik gabe jasotzea.
  - Adingabearen aitortuta ahalik eta gutxiagotan jasotzea eta ikerketa penalaren xedeetarako guztiz beharrezkoa denean baino ez.
  - Biktimak, ordezkari prozesalaz eta, hala badagokie, legezko ordezkariak gain, euren hautatutako pertsona batek lagunduta egon ahal izatea esku hartu behar duten eginbideak egin bitartean, eginbidea egiteko ardura duen funtzionarioak edo agintariak hura era egokian egitea ziurtatzeko kontrakoa era arrazoituan ebatzi ezean.
  - Biktimen osasun-azterketak prozesu penalaren xedeetarako ezinbestekoak direnean baino ez egitea eta gutxienean kopurura murriztea.
- **Intimitatea babesteko eskubidea (24. artikulua):** Behar diren neurriak hartuko dira biktima guztien eta haien senideen intimitatea babesteko eta, bereziki, adingabeen edo babes premia berezia duten desgaituen identifikazioa erraz dezakeen informazio oro zabaltzea ekiditeko.

Sexu-esplotaziorako salerosketen biktimak direnean, bereziki kontuan hartu behar den alderdi bat haien banako ebaluazioa da, haien babes-premia bereziak zehazteko, prozesuak eragin ditzakeen kalte garrantzitsuak ekiditeko. Halaber, ulertzen duten hizkuntza batean dauzkaten eskubideei eta eska ditzaketen prozedura judizial eta administratiboei buruz informatuak izateko eskubidea aitortzen zaie (23. artikulua).

Aitortutako eskubideez gain, estatutuak babes-neurri prozesal batzuk diseinatu ditu prozedura penalaren esparruan, bai ikerketa, bai epaiketa faseetan. **Ikerketa fasean** babes-neurri hauek hartu ahalko dira (25. artikulua):

- Aitorpena horretarako bereziki egokitutako bulegoetan hartzea eta biktimaren eta egitateen ustezko egilearen arteko begi kontaktua ekiditea.
- Aitorpena biktimentzako kalteak mugatzeko prestakuntza berezia duten profesionalek hartzea.
- Biktima berari pertsona berak hartzea aitorten guztiak, horrek prozesuaren garapena nabarmen kaltetu ahal izan ezean edo aitorpena epaileak edo fiskalak zuzenean hartu behar ezean. Epaitutako delituzko egitatearekin garrantzirik ez duten biktimaren bizitza pribatuari buruzko galderak egitea ekiditeko neurriak ere jasotzen ditu.
- Sexu-esplotaziorako salerosketen biktimak direnean, aitorpena biktimaren sexu bereko pertsona batek hartzea, berak hala eskatzen duenean, horrek prozesuaren garapena nabarmen kaltetu ahal izan ezean edo aitorpena epaileak edo fiskalak zuzenean hartu behar ezean.

Gero, **epaiketa fasean**, Prozedura Kriminalaren Legean xedatutakoaren arabera, babes-neurri hauek hartu ahalko dira (25. artikulua):

- Biktimaren eta ustezko arau-hauslearen arteko begi kontaktua ekiditeko neurriak, baita froga egin bitartean; horretarako komunikazioaren teknologia erabili ahalko dira.
- Biktima epaiketa-aretoan egon gabe entzuna izan ahal izatea ziurtatzeko neurriak, komunikazioaren teknologia egokiak erabiliz.
- Epaitutako delituzko egitatearekin garrantzirik ez duten biktimaren bizitza pribatuari buruzko galderak egitea ekiditeko neurriak, epaileak edo epaimahaiak, salbuespenez, egitateak edo haren aitortenaren sinesgarritasuna era egokian baloratzeko erantzun behar zaiela uste ez badu.
- Ahozko ikustaldia ikuslerik gabe egitea, epaileak edo epaimahaiburuak baimendu ezean, auzian interes berezia frogatu duten pertsonak daudelako.

Azkenik, estatutuak auzi kriminaletan lekukoak eta adituak babesteari buruzko Lege Organikora jotzen du biktimak babesteko egokitutako jotzen diren beste neurri batzuk hartzeko. Estatutu hori gehigarri bat da babesaren arloan 212/29/EB Zuzentarauaren aldean; izan ere, babes-esparrua prozesu penaletik harago zabaldu eta arreta biktimarengan jartzen duten eskubide eta neurri batzuk arautzen ditu.

Azpitarratu behar da, aldiz, estatutuaren xedapenak nekez jarri ahalko direla praktikan bertan jasotzen diren eskubideek eta babes-neurriek ezin badute ekarri pertsonal, ez ordainsari, ez bestelako pertsonal-gastuen zuzkidurak handitzea. Horri dagokionez, legeak ez du biktimaren babesa behar beste bermatzen eta legea aplikatzen duten profesional gehienen biktimenganako sentiberatasunera eta borondatera baldintzatuta dago nolabait.

Estatutuan jasotakoez gain, berariazko babes-neurri bat [4/2000 Lege Organikoak, urtarrilaren 11koak](#), etorkinek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoak (LOEX), jasotzen duena da. Izan ere, 59. bis artikulua bidez, egoera administratibo irregularrean dauden eta salerosketaren biktima gisa identifikatu diren atzerritarrek gutxienez laurogeita hamar eguneko oneratu eta hausnartzeko aldi bat eska dezakete, agintariei delitua ikertzen eta, halakorik balego, prozedura penalean, lagundu nahi dieten erabakitzeko.

Denbora horretan, eskudun den agintariak erantzukizun administratiborik gabe jo ahalko du biktima eta hauek erraztu ahalko dizkio, biktimak hautatuta:

- bere jatorrizko herrialdera lagunduta itzultzea;
- edo salbuespeneko inguruabarren ziozko bizileku- eta lan-baimena ikerketaren edo ekintza penalen xedeetarako lankidetzeta dela-eta beharrezkoa deritzonean, edo, haren egoera kontuan hartuz, gizarteratzeko erraztasunak.

Bestalde, salbuespeneko inguruabarren ziozko bizileku- eta lan-baimena emateko prozedura amaitzen den bitartean, behin-behineko bizileku- eta lan-baimena eman ahalko zaio arauz ezarritako baldintzetan. Nolanahi ere, oneratzeko eta hausnartzeko aldia ukatu edo errebokatu ahalko da ordena publikoko zioengatik edo biktima izaera era desegokian deitu dela ezagutzen denean.

Egoera irregularrean dauden eta salerosketaren biktima diren atzerritarrez gain, [557/2011 Errege Dekretuak](#), [apirilaren 20koak](#), Espainian atzerritarren eskubide eta askatasunen eta bere gizarteratzearen inguruko [4/2000 Lege Organikoaren Araudia](#) -[2/2009 Lege Organikoaren bidez aldatu ondoren](#)- onartzen duenak, bere xedapen gehigarri bakarrean, 140. artikuluan ezarritako aurreikuspenak gizakien salerosketaren balizko biktima guztiei zabaltzeko aukera ematen du, Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarrak izan, zein Europar Batasuneko atzerritartasun-araubidearen aplikazio-eremu subjektiboan sartuta egon.

Alderdi esanguratsu hau hartu behar da kontuan: atzerritartasunaren araudian salerosketaren biktimei aitortutako eskubideez gain, [12/2009 Legeak](#), [urriaren 30ekoak](#), asilorako eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituenak, babesaren aukera eskaintzen die biktimei dauden kalteberatasun-egoera zehatza ere kontuan hartuz. Hala, hauek eskatzeko aukera ematen die: asiloa (2., 6. eta 7. artikulua); babes subsidiarioa, euren jatorrizko herrialdera itzuliz gero kalte larriak paira dezaketela uste izateko benetako ziorik badago (4. artikulua); eta arrazoi humanitarioen ziozko egonaldia edo bizilekua (37. eta 46. artikulua).

Bestalde, osasunaren arloan, [uztailaren 26ko 576/2013 Errege Dekretuak](#), asegurdunak edo osasun sistema nazionalaren onuradunak ez direnek hitzarmen berezi bat izenpetzeko bete behar dituzten baldintzak arautzen dituenak, alde batetik, gizakien salerosketen biktimentzako osasun-laguntza aitortzen du, Espainiako aldi baterako egonaldia oneratzeko eta hausnartzeko aldian baimendu bada, egoera horretan dagoen bitartean, eta, bestetik, behar duen arreta, osasunekoa zein beste mota batekoa, premia bereziak dauzkaten eta gizakien salerosketaren biktimentzat (bosgarren xedapen gehigarria). Hau dago horren azpian: oneratu eta hausnartzeko aldia eskatu ez duten eta premia bereizirik ez daukaten biktimak arau horren aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira.

Azkenik, [abenduaireko 11ko 35/1995 Legeak](#), indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimentzako laguntzei eta sorospenerari buruzkoak, laguntza publikoen sistema bat ezartzen du Espainian, heriotza, gorputz lesio larriak edo osasun fisiko edo mentaleko kalte larriak eraginez, dolozko edo indarkeriazko delituen zuzeneko zein zeharkako biktimen alde (1. artikulua). Haren arabera, ordea, laguntza publiko horien onuradunak delitua egiteko unean espainol edo Europar Batasuneko beste estatu kideren bateko herritar diren pertsonak dira edo, hala izan gabe, Espainian ohiko bizilekua dutenak edo bere lurraldean espainolei antzeko laguntzak aitortzen dizkion este estatu bateko herritar direnak.

Kontuan hartzen bada salerosketaren biktima gehienak administrazio egoera irregularrean dauden atzerritarrak direla, nekez eskuratu ahalko dituzte laguntza publiko horiek eta, beraz, legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira berriro.

### 2.3. Araudi autonomikoa

EAEEn ez da berariazko legerik onartu emakumearen indarkeriari buruz. Otsailaren 18ko 472005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, arautzen du emakumearen kontrako indarkeria VII. kapituluaren, honela ulertuta: “*sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz (...) baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke, bai eta ekintza horien mehatxuak, derrigortzeak eta eremu publikoan nahiz pribatuan askatasuna arbitrarioki kentzea ere*” (50. artikulua). Nolanahi ere, legean ezarritakoa Istanbulgo Hitzarmenean jasotako sexu-esplotaziorako salerosketaren ezaugarrien arabera interpretatzen bada, pentsa daiteke biktima horiek emakumearen kontrako indarkeriaren biktima direla eta, beraz, haren aplikazio-eremuan sartzen direla.

Lege hori [otsailaren 16ko 3/2012 Legeak](#), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko Legea aldatzen dituenak, aldatu du. Bere 63. artikuluan, Emakunde izendatzen du herritarrek sexuaren ziozko bazterketa-egoeren aurrean defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzea sustatzeko ardura duen erakunde.

Halaber, arlo horretan [Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzeko lege aurreproiektuak](#) duen garrantzia azpimarratu behar da; izan ere, aukera bat da euskal ordenamendu juridikoa arau eta gizarte testuinguru berrira egoki dadin, eta bere erregulazioan sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimen sorospena eta babesa sar ditzan.

Azkenik, [uztailaren 17ko 4/1992 Legea](#), Euskal Herriko Poliziari buruzkoa, aipatu behar da. Bere zioen azalpenaren arabera, Ertzaintza izendatzen du EAeko lurralde osoan segurtasunaren ardura duen kidego eta, beraz, berak dauka biktima babesteko eskumena, Polizia oso gisa.

Ikusten denez, salerosketaren arloko araudia sekulakoa, zabala eta zatikatua da. Nazioarteko eta Europako araudia aintzat hartzen badugu, Espainiak nazioarteko betebeharrak horiek bete eta bere barne zuzenbidera eramanez ditu. Salerosketaren aurkako borrokaren arloan zein biktima babesteko legedian, urrats garrantzitsuak eman dira eta, zalantzarik gabe, oso ona deritzogu aurrerapenari. Babesaren arloan, ordea, hutsune batzuk sumatzen dira oraindik bizileku- eta lan-baimenak emateko prozeduretan, eta epaiketa batean lekuko gisa babesteko neurrietan, osasun-laguntzaren eskuragarritasunean, laguntza publikoak eta kalte-ordainak ematean, etab., eta halakoek mugatu egiten dute sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimen babesa eta pairatutako kaltearen erreparazioa.



### III. KAPITULUA

#### Beste salerosketa-modalitate batzuk

Sexu-esplotaziorako salerosketak gehien hautematen den modalitatea izaten jarraitzen du, baina ez da esplotatzeko era bakarra. Ildo horretan, kapitulu honek prostituzioan esplotazioarekin identifikatzen ez diren beste salerosketa-modalitate batzuetan jarri nahi du arreta, baina, era berean, eskubideen urraketa direnak. Halakoen artean, hauek nabarmenduko ditugu:

- **Lan-esplotaziorako salerosketa:** erdialdeko Asian eta Asiako hego-ekialdean –sexu-esplotaziorako salerosketarekin batera– hautemandako salerosketa-motetako bat da (UNODC, 2016, 8. or.). Salerosketa-mota horrek lan-modalitate bikoitza hartzen du, nahitaezko edo morrontzakoa, eta derrigorrezkoa:
  - **Nahitaezko edo morrontzagatiko lana:** gutxien ezagutzen de salerosketa-modua da, baina erabiliena. Oro har, biktimek zor bat edo mailegu bat ordaintzeko lan egin behar izaten dute, baina ez dira argi zehazten baldintzak. Haien lanak hasierako mailegua edo zorra baino balio handiagoa du nabarmen, eta kasu askotan biktimak zor pila batean korapilatuta geratzen da, mantenu gastu guztiengatik ordaindu behar baitute, hasierako garraio gastuez gain. Gainera, isunak jartzen zaizkie zerbitzuaren eguneroko kuotak ez betetzeagatik edo “jokabide txarragatik”, zorra areagotzeko asmoz. Salerosketaren biktima gehienek oso gutxitan ikusten dute ustez irabazitako dirua, eta ziur asko beren zorra zenbatekoa den ez dute jakingo.

- **Derrigorrezko lana:** biktimak bere borondatearen aurka lan egin behar duenean gertatzen da; bereziki, indarkeriaz, mehatxuz, zigorrez, “isunez”, askatasun mugatuaz eta abarrez egiten denean. (Accem, Imigranteen Espainiako Elkarte Katolikoaren Elkartea, 2016, 35. or.). Azken batean, derrigortutako zerbitzu edo lanek barnean hartzen dituzte pertsona bat edozein zigorren mehatxupean lan bat egitera edo zerbitzu bat ematera behartzen duten egoerak eta, betiere, bere borondatez (López, 2016, 127. or.).

Lana nahitaez edo morrontza modura egitearen eta derrigorrezko lanaren arteko bereizketa kontzeptual hori ez da hain agerikoa, kasu gehienetan bi esplotazio-motak batera gertatzen baitira, hau da, biktimak esplotazio-baldintzen arabera lan egitea noiz kitatuko den ez dakien zor bat ordaintzeko, eta lana mehatxupean, bortxaz, zigorpean eta halako egoeretan egitea; hala, biktima mendean izango dute agindutako lana eginez (Accem, 2016, 35. or.).

Espainian egindako ikerketa baten arabera (Giménez-Salinas Framis, 2009, 1.-25. or.), lan-esplotaziorako salerosketa jatorrizko herrialdean legezko lana eskaintzean datza, eta engainua hainbat modutan egiten da: biktimari ezkutatu edo gezurra esaten zaio egingo duen enpleguari buruz edo lan hori egiteko lan-baldintzei buruz. Enplegu-eskaintza faltsu edo benetako hori harremanetarako baliabide formalen edo ez formalen bidez egin ohi da. Informalak dira erabilienak, eta ezagunen, senideen, bizilagunen eta abarren bidez egiten dira harremanak. Aitzitik, hedabide formalak prentsa-iragarrien, mezu elektronikoen eta bidaia-agentzien bidez egiten dira.

Azterlan horren arabera, ez zen hauteman biktimak atzemateko indarra edo indarkeria erabili zenik, eta hori ohikoa da sexu-esplotaziorako salerosketan. Atzemateko prozesua lan-eskaintza onartzearekin amaitzen da, eta horren truke zor bat kitatzen da, biktimek jatorrizko herrialdean lan egin ondoren kitatu beharko dutena eta 15.000 eta 20.000 euro artekoa izan daitekeena, jatorriaren arabera (Giménez-Salinas Framis, 2009, 10.-11. or.).

Normalean, trafikoaren fasean esku hartzen duen pertsona ez da izaten esplotazio fasean parte hartzen duen berbera. Trukean funtsezko pertsona bat egoten da beti, bitartekaria. Bitartekaria espainiarra da beti, eta biktimaren lan-esplotazioa modu eraginkorrean gauzatuko duten enpresaburuekin harremanetan egoten da (Giménez-Salinas, 2009, 12. or.). Salerosketa mota hau nekazaritzan, eraikuntzan eta etxeko zerbitzuan egiten da normalean (Giménez-Salinas, 2009, 18.-20. or.).

- **Eskean aritzera behartua:** pertsona bat hainbat testuingurutan dirua eskatzera behartzera bideratutako salerosketa-modalitate bat da; iraindu egiten ditu, eta pena handiena sortzeko itxura dute, irabazi handiagoak sortu ahal ditzaten (Gobernazio Idazkaritza, 2017). Halaber, edozein pertsonari eragin diezaiokeen lan-esplotaziorako modutzat jotzen da: pertsona helduak eta zaurgarritasun-egoeran dagoen edozein kolektibo, hala nola ezgaitasuna duten pertsonak eta haurrak (Arartekoa, 2012, 19. or.). Migratzaileak, kaleko haurrak edota tutorerik ez dutenak eta behartsuak helburu eskuragarriak dira tratulari-sareentzat (EuroTrafGuID, 2013, 6. or.).

Ezgaitasun fisikoak dituzten pertsonetan, badirudi mutilazioen emaitza direla. Haurrek, hirugarren adinekoek eta ezinduek leku eta garraibide publikoetan eskean ibiltzeko joera dute. Batzuetan, haurrek drogak saltzen edota garraiatzen dituzte, nazionalitate edo jatorri etniko berekoak dira, eta talde handietan mugitzen dira pertsona heldu gutxiarekin. Gurasoak ez diren banda bateko helduekin ere bizi dira. Behar beste diru batzen ez badute, zigortu egiten dituzte (UNODC, 2014, 2. or.).

Espainiako kasuan, 2017an, Atzerritarren Unitateak **hamahiru jarraipen-eginbide** abiarazi zituen eskean aritzera edo lan-esplotaziora xede duten gizakien salerosketa-delituengatik. Horietako zazpitan, klanak edo errumaniar herritarrez edo aurrez itundutako banako pertsonen osatutako taldeak



ikertu ziren, beren herrialdean egoera ekonomiko ahulean dauden herrikideak atzematzen dituztenak, lan duinak eta ondo ordainduak eskainiz, ondoren mehatxu eta eraso bidez esplotatuz, baldintza gutxiegi jasoz eta inolako ordain ekonomikorik jaso gabe.

Hauek dira biktimekiko mendekotasun-testuinguruak: nekazaritza, nekazaritza-turismoa, eskean ibiltzea eta loreak saltzea, kartoiak eta txatarra biltzea, eta eskean bakarrik aritzea (Estatuko Fis-kaltza Nagusia, 2017, 19.-20. or.).

- **Ezkontza behartua xede duen salerosketa:** fenomeno hau ezkutukoa denez eta ezkontza gehienak komunitate, familia, sozietate eta talde itxietan egiten direnez, oso zaila da fenomeno honi buruzko estatistika fidagarriak biltzea (Sigma, 2006, 12. or.).

Behartutako ezkontzaren biktima nagusiak emakumeak eta neskatilak dira, eta mota horretako hainbat ezkontza mota daude, besteak beste, zorrak kitatzeko ezkontza (Afganistan), ezkonsari bat kobratzeko (Tanzania), emakumeen mutilazio genitala errazteko (Etiopia), bizileku-baimena lortze-ko (Erresuma Batua, Alemania), neska baten “birjintasuna” babesteko eta promiskuitateari aurre egiteko (Kenya), etab. (SIGMA, 2006, 11. or.).

Behartutako edo morrontzako ezkontza da erakunde edo jarduera oro, zeinaren arabera (CTOC, 2009, 6.-7. or.):

- 1) Pertsona bat (emakume heldua edo adingabea), aurka egiteko eskubiderik gabe, ezkon-hitza ematen zaio edo ezkontzen da gurasoei, tutoreari, familiari edo beste edozein pertsona edo pertsona-talderi emandako diruzko edo gauzako kontrapartida baten truke.
- 2) Emakume baten senarrak, senarraren familiak edo klanak eskubidea dute hori hirugarren bati lagatzeko kostu bidez edo beste modu batera.
- 3) Emakumea, senarra hiltzen denean, beste pertsona bati eskualda dakiok, jaraunspenaren bidez.

Ezkontza hori gertatzen da “*gutxienez ezkontide baten baimen oso eta librerik gabe egiten denean, edota horietako batek edo biak banantzeko edo ezkontzari amaiera emateko gaitasunik ez dutenean, besteak beste, bortxagatik edo gizarte- edo familia-presio handiagatik*” (Nazio Batuak, 2014, 4. or.).

Halaber, Europako esparruan, [Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari sexu-esplotazioarako emakumeen salerosketari buruz egindako jakinarazpenari buruzko Ebazpenak](#), 1997koak, uste du fenomeno horrek, behartutako prostituzioa ez ezik, behartutako ezkontzak ere badakarrela, eta [Istanbulgo Hitzarmenak](#) emakumeen eta nesken aurkako indarkeria-modu larritzat jotzen dituela behartutako ezkontzak.

“Behartutako ezkontzak” barne hartzen ditu morrontzako ezkontzak, goiztiarrak, aurrez hitzartutakoak, kalte-ordain gisa edo transakzio gisa egindako ezkontzak, aldi baterako ezkontzak eta ugaltzeko xedearekin egindako ezkontzak, betiere salerosketaren ordezkotako bitarteko eta jokabideren bat gertatu bada (Sánchez Covisa Villa, 2016, 47. or.).

Ezkontza behartua helburu duten salerosketa-delituetan nagusitasuna gailentzen da normalean. [Azaroaren 2ko 5/2011 Zirkularraren](#) arabera (Ministerio Fiskalak atzerritartasunaren eta immigrazioaren arloan duen jarduketaren espezializatuaren unitaterako irizpideei buruzkoa), horrek barne hartzen ditu mendekotasun-kasu guztiak, eta ez bakarrik biktimaren aitak, senarrak, patriarkak edo lider komunitarioak, oraindik ere kultura jakin batzuetan gertatzen direnak, baizik eta baita beste

egoera batzuk ere, biktima aurrez salerosita dagoenenean edo esklabotzaren antzeko araubidean dagoenean (Sánchez Covisa Villa, 2016, 47. or.).

- **Organoak erauzteko xedea duen salerosketa:** nahiz eta onartu aipatutakoak baino gutxiago ezagutzen den salerosketa-modalitate bat dela, tokiko mailan hedatuago dagoen esplotazio-modu bat da, non soilik hamar herrialdek salatu duten (UNODC, 2016, 8. or.).

Giza organoak eta ehunak transplantatzeko teknikak zabaltzearekin eta hobetzearekin batera, haien kopurua eta eskaria handitzeak organo eskuragarrien urritasun gero eta handiagoari egin behar dio aurre. Testuinguru horretan sortzen da organoen erauzketarako salerosketa, osasun publiko eta norbanakorako mehatxu larri gisa. Alde horretatik, garrantzi handikoa da [giza organoen trafikoaren aurkako Europako Kontseiluaren Hitzarmena](#), Santiago de Compostelan 2015eko martxoaren 25ean onartua, fenomeno horren aurka nazioartean borrokatzea baitu xede (Pons Rafols, 2016, 1. or.).

Organoak erauzteko salerosketan eragiten duten faktoreak dira, alde batetik, transplanteak egiteko organoen eskasia, eta, bestetik, organoen salmentako “bitartekariak” sortutako eskaintza; emai-leak bereganatzen dituzte beren organoak erauztea onartzen duten biztanle talde ahulenen artean, pobrezian eta egoera zaugarriaren daudela aprobeztatuz (Nazio Batuak, 2011, 3. or.). Salerosketa-modalitate horri buruzko gaur egungo ezagutza oso mugatua da, eta, beste modalitate batzuetan gertatzen den moduan, iturri ofizialetatik eskuragarri dagoen informazioa urria da. Hala eta guztiz ere, kasu asko egon daitezke, arau-hausleentzat onura handiak eta arrisku txikiak daudelako. Biktimak ez dira ausartzen gertakariak salatzea, isilik geratzen dira, eta oso zaila da delitu-modalitate hori ikertzea (Council of Europe, 2009, 95. or.).

**Transplantatzen diren organoak giltzurruna, gibela, bihotza, birrikak eta pankreak dira,** eta giltzurrun transplantea da salerosketa mota honetan ohikoena (Nazio Batuak, 2011, 3. or.). Pertsona askok organo bat erauzteko baimena ematen dute, baina gero engainu baten biktima dira hitzartutako diru kopurua ordaintzerakoan, edo ez dute inolako ordainketarik jasotzen. Halaber, baliteke emalea guztiz informatuta ez egotea prozeduraren izaerari buruz, ez susperraldiari buruz, ez organoa ateratzeak bere osasunean dituen ondorioei buruz (Nazio Batuak, 2011, 4. or.).

Esku hartzen duten pertsonen espezifikotasunak beste modalitate batzuen oso bestelako salerosketa-mota bihurtzen du. Salerosketako beste delitu-sare batzuetan parte hartzen duten pertsoez gain, medikuak, anbulantziako gidariak eta osasun-zerbitzuetako beste profesional batzuk ere egon daitezke salerosketan, organoak erauzteko. Transplantei buruzko transakzioen izaera konplexua dela eta, beharrezkoa da gizarteko hainbat sektoretatik ezagutza espezializatu ugari izatea (Nazio Batuak, 2011, 5. or.).

- **Delitu-esplotaziorako salerosketa:** gutxien ezagutzen den salerosketa-modalitatea da, eta biktimak esplotatzea du helburu, ez bakarrik legez kanpokoak edo arauen aurkakoak diren jardueretan (eskean aritzea edo prostituzioa), baita garrantzi penal zuzena dutenetan ere (kaleko ondare-delinkuentzia, kreditu-txartelekin egindako iruzurra, etab.) (Villacampa Estiarte, 2016, 772.-775. or.).

Oro har, salerosketari lotutako jokabide kriminalek barnean hartzen dituzte biktimek egindako delituak, bai trafikatuak izateko prozesuan egindakoak, bai ustiapen-fasean egindakoak (OSCE, 2016, 21.-22. or.).

Espanian bi jarraipen-eginbide baino ez dira abiarazi salerosketagatik, legez kanpoko jarduerak egiteko. Horietako lehenengoan, Taipei-Taiwango kultura bulegoaren jakinarazpen baten ondorioz hasi zen ikerketa, eta, horren garapenean, lau herritar taiwandar askatzea lortu zen, ustez Espainiara etortzeko engainatu zituztenak iruzurretan parte hartzeko lanaldi luzeak eginez; hala, nazionalitate

bereko herritar bat ikertu eta atxilotu zuten. Bigarrean, biktima emakume errumaniar bat zen, ustez bere jatorrizko herrialdean atzeman zutena engainu bidez; lanpostu duin bat eskaini zioten, baina behin Espainian zegoela, dendetan ebasketak egitera behartu zuten. Ikertua errumaniar nazionalitateko gizon bat da, eta gaur egun non dagoen ez dakigunez, prozedura behin-behinean artxibatuta dago (Estatuko Fiskaltza Nagusia, 2017, 20.-21. or.).

- **Gatazka armatuko eremuetan eta gatazkaren ondorengo egoeretan dauden pertsonen salerosketa:** aipatutako modalitateetako batzuk gatazkan dauden testuinguru batzuen ezaugarriak dira, esaterako, talde armatu eta terroristetako kideek emakumeen eta nesken sexu-esplotazioa egitea; salerosketaren biktima diren haurrak soldadu gisa erabiltzea; zauritutako soldaduek tratatzeko edo gerra finantzatzeko organoak erabiltzea; eta gutxiengo etnikoen terrorismoaren eta errepresioaren taktika gisa esklabotzea (UNODC, 2018, 2. or.).

Balkanetako gerraren ondoren, NBEk Bosnia-Herzegovinan duen misioak egiaztatu zuen Bosniatik eta Balkanetako beste nazioetatik etorritako emakumeak, Moldaviatik, Errumaniatik eta Ukrainatik etorritakoak adibidez, prostituziora behartu zituztela, indar bakegileak iritsi ondoren zabaldu ziren berrehun sexu klubetan baino gehiagotan. Biktima gehienei Italian lan bat agindu zitzaie, eta batzuk bidean bortxatu eta torturatu egin zituzten. Gehienak 2.000 eta 4.000 mila dolar bitartean saldu zituzten, eta mehatxupear sexu-harremanak izatera behartu.

Azken batean, Balkanetan izandako gerra eta genozidioa sexu klubetan emakumeen esplotazio larri baten sorburua izan zen, indar bakegileak iritsi ondoren zabaldu zirenak, 1995ean Daytongo Bake Akordioak sinatu ondoren. Bakeari eusteaz arduratzen ziren soldadu eta langile askok herritarrek babestu behar zituzten, baina emakumeen esplotazio larri baten partaide izan ziren. Bestalde, Kosovotik Albaniako errefuxiatu eremuetara iritsi ziren haur umezurtz asko Europa osoko industrietan esplotazioaren biktima izan ziren (Siddart, 2010, 209.-213. or.).

Kolonbian, barne gatazka armatuaren eta pertsonen salerosketaren arteko harremana ikuspegi bikoitz batetik azter daiteke. Lehenengoak eragile armatuek behartutako erreklutamenduari egiten dio erreferentzia, eta ondoren emakumeak, neskak, gizonak, gazteak eta mutikoak esplotatzeari, etxeko jardueretan edo sexu-esklabotzan borrokatzen duten informatzaile gisa. Bigarrena biztanleen zaurgarritasun-baldintzak areagotzen dituzten joan-etorrien ondorioei lotuta dago, barneko zein kanpoko pertsonen salerosketaren balizko biktima izan daitezen (Kolonbiako Unibertsitate Nazionala, 2009, 31. or.).

Orainsuagokoa da muturreko taldeek, Boko Haram (legez kanpoko trafikoari eta pertsonen immigrazioari buruzko mugaz gaindiko taldea, ETIC, 2017) eta Estatu Islamikoak, gerrarako eta terrorismorako arma gisa erabiltzen duten salerosketa-modua. Afganistango eta Irakeko gerraren ostean sortu zen Estatu Islamikoarekin gatazka, eta Siriara ere hedatu da. Gatazka horrek dagoeneko egongaitza den eskualde batean ezegonkortasuna ekarri du, eta kurduen nahiz yazidiarren gisako taldeen zaurgarritasuna areagotu. Emakume yazidiarrak esklabo bihurtu eta benetako jabetza gisa tratatzen dituzte, nahi izanez gero erosi edo saldu ahal izateko. Emakume eta neskato horiek etxeko jardueretan edo sexu esklabo gisa lan egitera behartu ohi dituzte. Batzuk soldaduen emazte bihurtzera behartuak dira, etxeko lanak egiten dituzte, sarritan beren etxeak uztea debekatzen zaie eta haurdun geratzen dira maiz. Gizon eta haur yazidiarrak soldadu gisa lan egitera behartuak dira, baita terrorista suizida gisa ere (Kosanovich Kathryn, 2017, 1. or.).

Finean, esplotazio-modu bat baino gehiago egoteak agerian uzten du salerosketaren beste biktima batzuk ere badaudela, sexuaz gain, eta ikusaraztea komeni dela, laguntza, babes eta erreparazio egokia emateko.



## IV. KAPITULUA

### **Azterlan enpirikoa: sexu esplotazioa helburu duen pertsonek salerosketari buruzko EAEko diagnostikoa**

#### **4.1. Datu estatistikoak**

Atal honetan pertsonen salerosketari buruzko datuak agertzen dira, eta horren helburua EAEn sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren errealitate kriminologikoa eta biktimen errealitatea erakustea da.

Metodologiaren atalean aipatu den moduan, fenomeno horri buruzko informazio sistematizatua eta adierazgarria izateko oztopo nagusiak datuen eskuragarritasun eza eta biktimekin zuzeneko harremanik ez izatea dira. Izan ere, Emakumearen Euskal Institutuan (Emakunde), ez zegoen erregistratuta pertsonen salerosketaren inguruko salaketarik zegoenik ikerketa hau egin zen unean. Horrekin guztiarekin, kapitulu honen bitartez, errealitatearen zati bat azaltzen da eta sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren fenomenoaz azaltzen da, eta horretarako, Ertzaintzak eta Polizia Nazionaleko Atzerritarren eta Mugen Brigadak emandako datuak, prentsa digitaleko berri batzuk eta biktimei arreta ematen dieten elkarte eta erakunde sozialek emandako informazioa aztertu dira.

##### **4.1.1. Polizia ikerketako eginbideak**

**Bilboko Atzerritarren eta Mugen Probintzia Brigadak emandako datuen arabera, 2015ean Bilbon kokatutako nazioarteko erakunde bat eta pertsonen salerosketaren biktima zen**

**adingabe bat detektatu zituzten.** 2016an, polizia alor horretan jardun zuen baita ere, baina horiei buruzko daturik ez dago, azterketa egin zenean jarduketa horiek irekita baitzeuden.

**Gasteizko Atzerritarren eta Mugen Probintzia Brigadari** dagokionez, **2015ean** bost polizia jarduketa egin zituzten, eta biktimak **nigeriarrak** ziren. **2016an**, biktima nigeriarren inguruko jarduketez gain, aldi berean emakume **hegoamerikarren salerosketa kasu bat eta emakume txinatarren beste salerosketa kasu bat ikertu zituzten.** Bost emakume hegoamerikarrek salaketak jarri zituzten. Biktimen artean ez zegoen gizonik. Bukatzeko, **Donostiako Atzerritarren eta Mugen Probintzia Brigadak** ez zuen pertsonen salerosketa kasurik detektatu ikerketa honetarako informazioa bildu zen aldian.

Ertzaintzaren datuen arabera, 2010 eta 2016 urteen artean, **sexu esplotaziorako pertsonen salerosketei buruzko 19 ikerketa egin ziren, eta 30 biktima askatu zituzten.** Delituen egile gisa **24 pertsona identifikatu zituzten**, nazionalitate hauetakoak: Kolonbia, Peru, Polonia, Txina, Espainia, Errumania, Maroko, Nigeria eta Kamerun.

Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima guztiak **emakumeak** ziren. **5 biktima adingabe detektatu zituzten, eta 16 biktimek Indarberritze eta Hausnarketa Aldia (IHA)** hasi zuten, **hau da, biktimen ia erdiak. Biktimen nazionalitateari** dagokionez, garrantzitsua da aipatzea jatorrizko lekuak nabarmenki aldatu direla. **2015era** arte herrialde ezberdinetakoak ziren: Kamerun, Nikaragua, Polonia, Txina, Paraguai, Errumania eta Maroko, eta **2015ean eta 2016an** biktima gehienak (Ghanako emakume bat salbu) **nigeriarrak** izan ziren.

Fenomenoa aldatzen ari da denboran zehar, eta Ertzaintzak emandako datuak, hau da, 2016an landa lana egin zen uneari buruzkoak, aldatu egin dira, eta **2018ko datuen arabera, 46 emakume askatu** zituzten eta **49** pertsona delitu hori dela-eta **ikertu zituzten.** Ikerketak aztertuz ondorioztatu da %48 afrikarrak direla, %30 hegoamerikarrak, eta gainerakoak, txinatarrak eta europarrak. Atxilotutako pertsonen nazionalitateak eta biktimenak berdinak dira (Irekia Eusko Jaurlaritzan-Gobierno Vasco, 2018).

Ikerketa honetako datuak aztertuz, argi dago sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurka polizia egindako zenbait jarduketa batera egin dituztela, baina orokorrean, egiaztatu da polizia kidego bakoitzak bere jarduketak egiten dituela, eta datuak ez dituztela ohiko moduan elkarrekin trukutzen edo partekatzen. Ertzaintzak pertsonen salerosketa alorrean eskumenak ditu delituak EAEn gauzatzen baldin badira. Hala ere, zenbait jarduketetan Polizia Nazionalarekin batera lan egin dute, eta beste batzuetan EAEn batera lan egin dute, Ertzaintzak aurkeztutako polizia ikerketako eginbideetan egiaztatu daitekeen moduan (ikus 1. eranskina).

#### ***4.1.2. Gizarte erakundeek laguntza jaso duten sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima diren emakumeak***

Atal hau landu aurretik, eta sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei ematen zaien arreta eredia zein den jakin aurretik, aipatu behar da elkarteek eta erakundeek erabiltzen duten “biktima” kontzeptua ez datorrela bat ESIK-ek erabiltzen dutenarekin, izan ere, azken horiek, biktimatzat jotzen dituzte bakarrik modu formalean hala identifikatuak izan direnak. Horrek bere garrantzia du sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima errealak zenbatzerako orduan (ikus 1. eranskina).

Aurreko atalaren helburua sexu esplotaziorako pertsonen salerosketari buruz polizia egindako ikerketen datuak ezagutzea zen, eta atal honen helburua Euskadiko elkarteek eta GKE-ek sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei ematen dieten arreta nolakoa den ezagutzea da. Horretarako, atal

honetan gizarte erakunde bakoitzaren azalpen laburra dago jasota, sexu esplotaziorako salerosketaren biktimei arreta emateko erabiltzen diren bitartekoak eta baliabideak azaltzen direlarik.

Hauek dira hizpide ditugun erakundeak: Askabide, Oblatas, Gurutze Gorria, CEAR-Euskadi eta Accem.

- **ASKABIDE:** prostituzioan dauden pertsoneri arreta, harrera eta prestakuntza eskaintzen diete eta errealitate hori salatzeaz gain, prostituzioari buruzko gizarte kontzientziazioa sustatzen dute. **Sexu salerosketaren biktimei** dagokienez, programa bat ezarri dute, honako esku-hartze mailetan garatzen dena:
  - **Egoitzazkoa ez den esku-hartzea:** 2015ean **bi emakume nigeriar gazteri** (bat adingabea zen) arreta eman zieten, biek ere familia kargak zituztelarik EAEn eta jatorrizko herrialdean. Emakume bat administrazio egoera irregularrean zegoen, eta bestea erregularrean. Ez zuten eskatu Indarberritze eta Hausnarketa Aldirik (IHA), eta bietako batek izan zuen bizilekurako eta lanerako aldi baterako baimena, EAetik kanpo poliziarekin lan egin zuelako. Biek parte hartu zuten laguntza programan: batak modu boluntarioan utzi zuen eta bestea EAetik kanpoko erakunde espezializatu batera bideratu zuten.
  - **Egoitzazko esku-hartzea:** sexu salerosketaren lau biktimei eman zitzairen arreta: bi emakume nigeriarrei, senegaldar bati eta txinatar bati. Denak zeuden administrazio egoera irregularrean, eta beraien kargura seme-alabak zituzten, bai EAEn baita jatorrizko herrialdeetan ere. Bakarrik batek eskatu zuen IHA beste autonomia erkidego batean, eta prozesua bukatu zuenean, sufritu-tako egoera salatu zuen. Bi emakumek zuzenean salatu zuten, IHA eskatu gabe, eta bietako bati bizilekurako eta lanerako aldi baterako baimena eman zioten EAEn poliziarekin lan egiteagatik, bere administrazio egoera erregularizatu ahal izan zuelarik.
- **OBLATAS:** “Leiho Zabalik” izeneko programa bat dute, eta hiru proiektu hauek dituzte: harrerakoa, egoitzazkoa eta gizarteratzekoa. Gainera, herritarrak sentsibilizatzeko eta mobilizatzeko lan egiten dute baita ere. Erakunde honen programaren oinarriak emakumeen ahalduntzea eta emakumeen aldiak eta erabakiak errespetatzea dira.

Proiektuaren helburu nagusia prostituzioan dauden emakumeei harrera ematea da, emakume horiek gizarteratzeko eta laneratzeko aukerak izan ditzaten. Helburu espezifikoak hauek dira: emakumeek tresnak eskuratzea beraien trebetasun pertsonalak sustatzeko, gizarteratze prozesu baten ondoren emakumeak autonomoak izatea lortzea, eta emakumeen trafikoaren eta esplotazio sexualaren aurka egitea.

2015ean, detekzio gailuen bidez (unitate mugikorra, erakundearen bulegoa, telefono bidezko arreta emateko zenbakia, eta abar) eta ESIK-etik eta beste erakunde batzuetatik egindako bideratzeen bidez, **pertsonen salerosketa edo esplotazio sexualeko egoeran egon zitezkeen 33 emakumeri arreta eman zitzairen. Emakume horiek errumaniarrak, dominikarrak, nikaraguarrak eta hondurastarrak ziren, baina horietatik bakarrik 8 identifikatu zituzten modu formalean ESIK-en.**

- **GURUTZE GORRIA:** erakunde humanitarioa, boluntarioa eta interes publikokoa da. Etorrinei eta Errefuxiatuei Arreta Emateko Programaren bidez (emakumeei eta lagundutako adingabeei arreta ematen dienak), pertsonen salerosketa zantzuak zituzten emakumeak detektatu zituzten. **Zortzi plazako** egoitza baliabidea dute, eta bertan egon dira Andaluziatik, Kanarietatik, Ceutatik, Melillatik eta Saharaz hegoaldetik etorri ziren emakumeak –batzuk seme-alabekin, beste batzuk bakarrik, eta beste batzuk haurdun–, nagusiki nigeriarrak eta kamerundarrak, baina gutxi batzuk beste nazionalitate batzuetakoak ere baziren, besteak beste bolikostarrak, senegaldarrak eta ghanatarrak.

Plaza horiek profil ezberdinak dituzten pertsonak bete dituzte:

- Batzuk komisariatik atera ziren epaitegian egon ondoren. Horiek ez ziren Atzerritarrak Barneratzeko Zentroan (CIE) egon, umeak edo nerabeak beraiekin zeudelako edo haurdunaldia fase aurreratuan zutelako.
- Beste batzuk CIE batetik edo Atzerritarrak Aldi Batean Egoteko Zentro batetik (CETI) atera ziren, edo zuzenean Gurutze Gorriaren bulego batetik etorri ziren, espainiar estatuan kostaldetik, Ceutatik edo Melillatik sartu ondoren.

Gurutze Gorriak emandako informazioaren arabera, 2015ean **16 emakume helduk izan zituzten sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima izateko zantzuak**. Emakume horiei ostatua eta mantenua ematen zaizkie. Era berean, gizarteratze prozesu bat hasten dute eta eragiten dien kontuei buruzko informazioa eta laguntza ematen zaie (IHA, arreta osoa jasotzeko baliabide espezifikokoak, eta abar.). 16 emakume heldu horietaz gain, **sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima diren emakumeen 4 seme-alaba adingabe eta ziurrenik adingabeak ziren beste 2 nerabe** ere detektatu zituzten, guztiek ere biktima izatearen zantzuak zituztenak.

- **ERREFUXIATUEI LAGUNTZEKO ESPAINIAR BATZORDEA (CEAR-EUSKADI)**: gobernuz kanpoko erakundea da, eta bere helburua giza baliabideak eta errefuxiatuen, aberriagabeen eta etorkinen eta/edo gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskua dutenen garapena defendatzea eta sustatzea da.

2015ean CEAR erakundeko langileek **14 emakume nigeriarri lagundu zieten, nazioarteko babesa eskatu baitzuten eta sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa zantzuak baitzituzten**. 2016an zantzu horiek zituzten **40 emakume nigeriar baino gehiagori** eman zitzaizen arreta (CEAR-Euskadi, 2017). Hala, egiaztatu egin zuten pertsonen salerosketaren biktima ziren emakume nigeriarrak Euskadin sexualki esplotatzen zituztela (Celis Sanchez eta Alvarez García, 2016, 17. or.).

Nazioarteko babesa eskatu zuten eta Europaz kanpokoak ziren pertsonen salerosketaren biktima gehienak nigeriarrak izan arren, gaur egun EAE-n dauden emakume gehienak Ginea Konakrytik eta Boli Kostatik etorritakoak dira, eta emakume latinoamerikarren kopurua gehitzen ari da (Garay eta Ferri, 2019, 21. or.).

- **ACCEM**: irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta bere helburua oinarrizko eskubideak defendatzea eta gizarte bazterketa egoeran egoteko arriskua duten pertsonen arreta eta laguntza ematea da.

Babes eta migrazioetan espezializatutako erakundea da, eta nahiz eta pertsonen salerosketaren biktima diren emakumeei zehazki arretarik ez eman, zaurgarritasun egoeran dauden emakumeei laguntzeko bitartekoen bidez, 2015ean **Nigeriatik, Errumaniatik eta Brasildik etorri ziren sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak detektatu zituzten**.

Azken finean, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa EAE-n nagusi den pertsonen salerosketa mota da. Hala ere, aztertutako datuak gutxi direnez, errealitatea bakarrik modu partzialean ezagutu daiteke, eta ezin da zehaztasunez adierazi zen den fenomeno horren benetako eragina. Horri dagokionez, polizia jarduketak eta askatutako biktimak aztertuz, egiaztatu daiteke azken urteetan gehitu egin den delitu errealitatea dela.



### 4.1.3. *Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketari buruzko hautematea*

Nahiko zaila da ezagutza estatistiko gutxi dugun fenomeno bat ikertzea. Ez da erraza ezta ere zehaztasunez jakitea fenomenoak nola hedatu den gure geografian zehar, izan ere, zenbait alorretan, pertsonen salerosketaren egoerari buruz emandako informazioa nahasia eta zehaztugabea izan da.

Hala da, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketak ohikoa ez den fenomeno dirudi, eta zenbait hiritan ez dela existitzen uste da. Baina beste leku batzuetan aldiz, fenomeno erreala da, prostituzioa kontsumitzearen eta onartzearen ondorioz sortu dena.

EAEko lurralde historiko bakoitzean idiosinkrasia bat dago. Zenbait atzerritar eremuetan edo talde txikietan antolatzen dira. Hala, Bizkaiko leku batean bezero asko dituzten klub-ak daude, eta leku horietan lan egiten duten gehienak ekialdeko herrialdeetakoak eta errumaniarrak dira. Bilbo, Espainiako hegoaldearen eta iparraldearen arteko pertsonen salerosketako eremuan kokatuta dago, eta pertsona asko Bilbotik abiatzen dira beste eremu geografiko batzuetara.

Gasteizen modu ezberdinean gertatzen da pertsonen salerosketa. Prostituzioan aritzen diren pisuak gehitu egin dira, eta horrek sareei on egiten die, eremu pribatuagoa baita, baina hala ere, bide publikoko biribilguneetan ere jarraitzen dute prostituzioan, hiri kanpoaldean.

Gipuzkoan hainbat prostituzio klub daude. Donostian, adibidez, poliziek egindako ikuskaritzetan eta aztertutako aldian, ez zuten informaziorik lortu sexu esplotaziorako pertsonen salerosketarekin lotutako kasuei eta salaketei buruz.

Bukatzeko, bitxia da mugan kokatutako Irungo herrian fenomenoari buruz duten hautematea. Alde batetik, eta beste hiri batzuekin konparatuz, arazo asko sortzen ez dituen prostituzioa dago. Emakumeak, hasiera batean, ez dituzte behartzen prostituzioan aritzera. Bestetik, mugan dagoen herria izanik, immigrazio irregular eta prostituzio asko dago, eta horrenbestez, pentsatu dezakegu, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa ere badagoela.

Azken finean, jasotako informazioa ikusirik, esan dezakegu ez dugula nahiko daturik esateko gure autonomia erkidegoan sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa fenomeno hedatua denik, eta hori ez dator bat geroz eta gehiago existitzen den errealitatea dela ustearekin. Hala da, EAE beste herrialde batzuetara edo beste autonomia erkidego batzuetara joateko **igarotze eremua da**.

## 4.2. **Biktimen profila eta egoera**

Atal teorikoan azaldu dugun moduan, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketan, indarkeriaren, derriortzearen edo zaurgarritasun egoera bat aprobetxatzearen bitartez, biktimak lortzen dituzte. Bi une nagusi hauek izaten dira: biktimak lortzen dituzten unea eta sexualki esplotatzen dituzten unea.

Jatorrizko herrialdeetan biktimak lortzen dituztenean, egoera pertsonalei lotutako zaurgarritasuna (generoa, adina, hezkuntza maila baxua, eta abar) da garrantzitsua. Hala ere, sexu esplotaziorako fasean, zaurgarritasuna biktimak helmuga herrialdean duen testuinguruari eta egoerari lotuta egoten da. Ohikoa izaten da biktimak ikusezinak izatea, herrialde ezberdin batean, baliabide ekonomikorik gabe, hizkuntza jakin gabe eta zor bat ordaintzera derrigorlortuta egoten direlarik. Orokorrean ez dute dokumenturik izaten edo dokumentazio faltsua izaten dute, telefono mugikorrik gabe egoten dira, isolatuta, edo beti norbaitekin eta kontrolatuta egon ohi dira. Egoera horretan daudenean, eskubideen mota guztietako urraketak sufritzen dituzte, besteak beste eraso egiten diete edo fisikoki tratatu txarrak ematen dizkiete prostituzioa ez

dutela egingo esaten dutenean, eta tratu txar psikologikoak ere jasaten dituzte. Drogak hartzera behartzen dituzte eta mota guztietako zerbitzu umiliagarri eta iraingarriak egitera behartzen dituzte.

Horren guztiaren ondorioz, emakumeek autoestimu baxua eta osasun arazoak izan ohi dituzte. Beldur eta mesfidantza handia izaten dute, traumatizatuta eta sareen menpe egoten baitira, zorrak izaten dituztelako. Horrez gain, batzuetan, familiek ez dute beraien egoeraren berri izaten, salerosleek mehatxu egiten diete eta senideei zerbait egingo dietenaren beldur izaten dira.

Beste delitu batzuetan ez bezala, egoera horrek zalantzarik gabe baldintzatu egiten du biktimek salaketak jartzea. Salaketarik ez jartzeko arrazoi nagusiak beraien burua sexu esplotaziorako pertsonen salerosketako biktima gisa ez aintzatestea, salerosleen errepresaliekiko beldurra, poliziarengan konfiantzarik ez izatea eta erbestertzeko arriskua izaten dira.

Biktima guztiak zaugarritasun egoeran egon arren, fenomenoak ezaugarri bereziak ditu biktimen jatorri geografikoa kontuan hartuz:

- **Emakume afrikarrak:** landa azterketan detektatutako profil nagusia emakume nigeriarrek osatutakoa da, baina, Afrikako beste leku batzuetako emakumeak ere detektatu zituzten, besteak beste ghanatarak edo kamerundarrak. Emakume nigeriarrak dira gazteenak, 20 eta 25 urte artean dituztelarik, eta bide publikoan prostituzioan aritzeko esplotatzen dituzte. Orokorrean ez dute dokumentaziorik izaten, eta babesa eskatu ohi dute.

**Saharaz hegoaldeko** emakumeei dagokienez, kultura eta hezkuntza maila baxua izaten dute, polizian salaketarik ez jartzera derrigortzen dituzte eta beraiei edo beraien familiei min egingo dietenaren beldur izaten dira, eta beraz, modu librean jarduteko eta erabakitze gaitasun guztia ezeztatzen zaie, beste biktima batzuekin alderatuz, zaugarritasun egoera handiagoa izaten dutelarik.

Hainbat faktore direla-eta, besteak beste pobrezia, immigrazio fluxua, genero desberdintasuna, babeserako familia sarerik ez izatea (gurasoak, eta abar), eta emakumeak estigmatizatzen dituzten beste arrazoi batzuk direla-eta, besteak beste gaixotasun mentalak izatea, emakume horiek duten egoeran, mota guztietako gehiegikeriak eta esplotazioak jaso ahal izaten dituzte.

Nahiz eta **emakume nigeriarren** askatasun fisikoa eta mugitzekoa altuagoa izan pertsonen salerosketako beste biktima batzuekin alderatuz, “buduek” beraiengan eragiten dute, pentsamendu askatasuna kaltetuz eta beraien herrialdera dirua ez bidaltzearen sortutako presioa dela-eta, batzuk beraien buruaz beste egiten saiatzen dira. Salerosle nigeriarrentzat ez da beharrezkoa biktimak kontrolatzea, izan ere, buduaren bitartez emakumeak eta beraien familiak mehatxatzen dituzte. Emakumeek uste dute budua erabili den ekintza guztiek beraien bizitza, eta zenbaitetan heriotza, baldintzaten dutela.

Jatorrizko herrialdetik helmuga herrialdera itsasotik edo airez iristen dira. Itsasotik bidaiatzen dutenean, Espainiara **sartzeko** Ceutatik edo Motriletik igarotzen dira, aurretik Libiatik edo Italia hegoaldeetik igaro ondoren. Libiatik “esklabo ontzietan” garraiatzen dituzte baldintza ezin txarra-goetan. Gainera, jatorrizko herrialdetik ateratzen direnetik ontziratzen direnera arte etengabe sexu gehiegikeriak, mehatxuak, jipoiak eta abar jasaten dituzte; azken finean, emakumeen aurkako indarkeria bortitza sufritzen dute.

Zenbait kasutan, helmuga herrialdera lurreko garraio bidez iristen dira (adibidez Gasteizko autobus geltokira), eta ostatua jaso ondoren, aldizka dirua ordaintzera behartuta egoten dira zorra kentzeko. Salerosleak bakarrik beraiekin harremanetan jartzen dira diru-sarrerarik egin ez dutela egiaztatzen dutenean.

Bukatzeko, emakume nigeriarren zaurgarritasun faktore garrantzitsu gisa aipatu behar da beraien azal-kolorea gutxiesten dutela, izan ere, horrek, eragin handia izaten du helmuga herrialdean emakume horiek sendatzeko eta gizarteratzeko orduan.

- **Emakume europarrak (errumaniarrak eta poloniarrek):** normalean, prostituzioa pisuetan eta klubetan egiten dute. Egoera oso muturrekoan ez baldin badaude, ez dute pertsonen salerosketagatiko salaketarik jartzen.
- **Emakume hegoamerikarrak (brasildarrak, paraguaitarrak eta nikaraguarrak):** 24 eta 31 urte bitartekoak izaten dira, eta pisuetan egiten dute prostituzioa. Orokorrean ez dute heriotza mehatxurik jasotzen, eta horrek, une jakin batean –beste profil batzuekin gertatzen ez den moduan–, salaketa jartzea erraztu dezake.
- **Emakume asiarrak (txinatarrak):** oso zaila da beraien adina zehaztea, baina 23 eta 28 urte arteko emakumeak direla dirudi. Masajeak emateko lekuetan egiten dute prostituzioa. Gizarte asiarrak itxiak izaten direnez, ez dute salaketarik jartzen.

Emakume hegoamerikarrak eta asiarrak Madril-Barajas aireportutik sartzen dira eta berme guztiak dituen bidaia paketea izaten dute, batzuetan dokumentazio faltua izaten dutelarik, eta beste batzuetan, herrialdera sartzean, salerosleek dokumentazioa kentzen diete. Salerosleek gehien erabiltzen dituzten aireportuak Lisboakoa, Pariskoa eta Amsterdamekoa dira, baina batzuetan, beste batzuk ere erabiltzen dituzte, identifikazioak zailtzeko.

Azken finean, egiaztatu dezakegu **ez dagoela sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen profil bakarra**. Biktima batzuen zaurgarritasun egoera beste batzuen bano handiagoa da. Bakoitzak biktimizazioa bere modu bakar eta pertsonalean bizitzen du, eta bakoitzak bere beharrak izan ohi ditu. Horri dagokionez, garrantzitsua da azterketa honetan parte hartu duen biktima bakarrak emandako testigantzen zati bat azaltzea, zeinak, sendatu ondoren, bere eskari eta beharrak azaldu zituen:

*“Eskatzen dudana da emakumeak ez tratatzea delitugile gisa beraien administrazio egoeran oinarrituz, izan ere, Espainian bizitzen geratzea merezi nuela frogatzeko, sufrimendu asko jasan behar izan dut, epaitegietara hainbatetan joan behar izan dut, bakarrik mafia salatu nahi ez nuelako, ez nigatik, nire familiaratik baizik. Prozesu judizialean zehar bakarrik elkartearen laguntza izan dut, legea ez baitzegoen nire alde. Denbora horretan zehar, poliziak edo epaitegiek ez zidaten behin ere galdetu nola nengoen, beraiantzat bakarrik etorkin irregular bat gehiago nintzen... Sendatzeko hiru urte behar izan ditut, urtebetean egin zidaten min guzti hori arintzeko.*

*Munduko lanbide zaharrena ez da prostituzioa. Munduko lanbide zaharrena beti izango da beste aldera begiratzea, imajinatuz pertsonen salerosketa beste herrialde batzuen arazoa dela, eta bakarrik besteen familiei eragiten diela. Horixe uste zuen nire aitak ere, bere alaba bati gertatu zitzaionera arte. Zuen familietan ere gertatu daiteke, eta prostituzioa erabiltzen duena zuen familiako bat izan daiteke, aita, anaia, semea, aitona, osaba, edozein gizon.*

*Emakumeak ez gaituzte haragi zati gisa tratatu behar, ez gaituzte gauzatzat hartu behar, salgai bezala tratatuz, gure nahi bakarra hanka zabalik ibiltzea izango balitz bezala, nahi duen guztia-arentzako eskuragarri. Pertsona gisa ikusi behar gaituzte, handiak gara, eta gauza ikaragarriak lortu ditzakegu. Emakume izateko ez ditugu etsi-etsian sexua eta gizonak behar.*

*Lege oso bat sortu behar da, pertsonen salerosketaren aurkakoa, biktimen eskubideak defendatzen dituen eta eraginkortasunez delitua eta saleroslea zigortzen dituen. Horrez gain, prostituitzen*

*dutenei bidalitako isunak eta jakinarazpenak beraien etxeetara bidaltzea nahiko nuke, eskuz entregatzea, ea beraien emazteek edo amek jasotzen dituzten”.*

### **4.3. Delitu fenomenoak ikertzeko zailtasunak: polizien jarduketa eta zigor prozedura**

Kapitulu honen helburu nagusia eragile juridikoek sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen ibilbidea osatzen duten faseetan izan ohi dituzten zailtasun nagusiak azpimarratzea da, arazoa detektatzen denetik, zigor prozedurak irauten duen bitartean eta epaiketa egin arte hain zuzen ere.

#### **4.3.1. Biktimak detektatzea eta identifikatzea**

Biktimak **detektatzeko** prozeduran zenbait zantzu edo seinaleen bitartez, delitu posible bat edo pertsonen salerosketaren biktima bat dagoela aintzatesten da. Kontuan hartuz biktimek arazoak dituztela salaketak zuzenean jartzeko, lehenengo fase hori ezinbestekoa da biktimak ikusarazteko.

EAEn sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima batzuk identifikatu dira sarekadetan eta ikuskaritzetan, prostituzioa egiten duten lekuetan eta/edo mugako kontroletan. Biktimak aurkitzen dira baita ere biktimak eragile sozialekin harremanetan jartzean, adibidez, ospitaletan, gizarte zerbitzu eta zentroetan, elkarteetan, eta abarretan.

Ez da askotan gertatzen, baina edozein pertsonak izan dezake pertsonen salerosketaren biktimen berri, eta kasu horretan, salaketa jarri beharko da dagokion agintaritzan.

Biktimak aurkitu ondoren, modu formalean **identifikatzen** dira. Hori oso garrantzitsua da legearen alderditik, izan ere, biktimei estatus juridikoa ematen zaie, eta eskubideak eta babes neurriak aintzatesten zaizkie.

Identifikazio prozesua ez da erraza ESİK-entzat, biktimen delitu motak eta mugikortasun geografikoa konplexuak direlako. Biktimek ere hainbat oztupo izaten dituzte. Horien artean, biktima gisa norbere burua identifikatzeko zailtasunak izaten dituzte. Zenbaitetan, biktima gisa identifikatzen dira bakarrik testigantza oinarri hartuz, eta beldurra izaten dute jatorrizko lekura itzultzearen eta salerosleen errepresalioen aurrean. Bukatzeko, ez dute konfiantzarik izaten ESİK-etan, askotan bidaian zehar biktimek bizi izan dituzten egoeren ondorioz, edo ustelkeria asko dagoen herrialde batetik datozelako. Mesfidantza baxuagoa izaten da biktimarekin izandako lehen harremana ESİK-ek esku hartu duelako izan denean.

EAEn, Ertzaintzak eskumenak ditu baita ere, eta beraz, sexurako pertsonen salerosketaren delituen berri duen edozein pertsonak, ertzainei horren berri eman beharko die.

Biktima atzerritarra denean, Polizia Nazionalaren Atzerritarren eta Mugen Brigadak identifikatzen du eta ikerketaren eskumenak bere gain hartzen ditu. Identifikazioa unitate bereziek egiten dute, prestakuntza espezifikoak jaso dutenak pertsonen salerosketa prebenitzeko eta horren aurka egiteko eta biktimak identifikatzeko eta laguntza eskaintzeko.

#### **4.3.2. Identifikazioaren ondorengo prozesua, bereziki, indarberritze eta hausnarketa aldia**

Prozesu horren hasieran, elkarrizketa bat egiten da, eta horren arabera erabakitzen da arazoizko oinarri ote dagoen zehazteko pertsona bat pertsonen salerosketaren biktima dela edo ez dela. Identifikazio elkarrizketaren ondoren, babestutako testigu izaera aintzatesten zaie, eta Indarberritze eta Hausnarketa

Aldia (IHA) izan nahi duten erabaki behar izaten dute 48 ordu igaro aurretik. Biktimak IHA onartzen badu, gutxienez 90 egun iraungo du prozesu horrek, eta denbora horretan erabaki ahal izango du jatorrizko herrialdera **laguntzarekin itzuliko den** edo inguruabar bereziak direla-eta **bizileku eta lanerako baimena** eskatuko duen **delitua ikertzeko laguntza emateagatik**, eta hala badagokio, zigor prozeduran edo **bere egoera pertsonala jorratzen laguntzeagatik**.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar da neurri horren erregulazioa nahasgarria dela eta praktikan, interpretazio arazoak sortu daitezkeela.

Alde batetik, ez dago argi bere **aplikaziorako eremu subjektiboa** zein den. LOEX izenez ezagutzen den Legearen 59. artikuluaen errubrikatik ondorioztatzen da neurri hori pertsonen salerosketako biktima guztiei aplikatzen zaiela. Alderantziz, edukia oinarri hartuz, ondorioztatzen da bakarrik egoera irregularrean dauden eta gainera, atzerritarren salerosketaren biktima direnei aplikatzen zaiela. Horrez gain, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsitako araubidearen lehenengo xedapen gehigarriaren bidez baimena ematen da Europar Batasuneko herrialde bateko pertsonen salerosketako biktima izan daitezkeenei edo Europar erkidegoko atzerritarren aplikazio eremu subjektiboaren barne daudenei IHA aplikatzeko.

Aplikazio praktikoa egiteko beste zailtasunetako bat da indarberritze eta hausnarketa aldiaren **xedea**. LOEX-en 59. artikuluan ezarrita dago gutxienez 90 iraungo dituen indarberritze eta hausnarketa aldia nahikoa izango dela biktimek erabakitzekeko poliziarekin eta/edo agintaritza judizialekin lan egin nahi duten edo ez. Hau da, xede nagusia, biktimak agintaritzekin lankidetzan aritzeko aukera posiblea da. Hala ere, LOEX-en 142. artikuluan ezarrita dago gutxienez 30 iraungo dituen indarberritze eta hausnarketa aldia nahikoa izango dela biktimek erabakitzekeko poliziarekin eta/edo agintaritza judizialekin lan egin nahi duten edo ez, eta hala badagokio, baita zigor prozeduran ere.

Positiboa da atzerritarren araubidean, LOEX-en ez bezala, lehenengo xede gisa aipatzea biktima indarberritzea, eta bigarren xede gisa lankidetzan aritzeko aukera. Hala ere, legean ez bezala, indarberritzeko eta hausnarketarako aldia laburragoa da.

Beraz, Atzerritarren Legean eta pertsonen salerosketaren aurka egiteko Europako Kontseiluaren Hitzarmentean ezarritakoak (13. artikulua) alderatuz gero, egiaztatu dugu europar araubideak biktimak gehiago babesten dituela, lehenik eta behin indarberritze eta hausnarketa epea jorratzen delako salerosleengandik askatzeko eta beraien burua indarberritzeko, eta ondoren aipatzen delako polizia agintaritzekin eta/edo agintaritza judizialekin lankidetzan aritzeko aukera.

Neurri hori, hasiera batean, positiboa da, izan ere, egoera irregularrean dauden biktima atzerritarrei eskubideak aintzatesten zaizkie (administrazio erantzukizunetik salbuestea, bizileku eta lanerako baimena ematea, itzulera lagundua), eta eskubide horiek beraien seme-alaba adingabeei edo desgaitasuna dutenei aplikatzen zaizkie baita ere. Horrez gain, ESIK-ek baimena dute pertsonen salerosketako erakundeak edo taldeak desegiteko, biktima, jasandako indarkeria egoeratik indarberritzen den bitartean. Ez da positiboa hala ere, neurria onartu ez duten biktimek ez izatea biktimei aintzatesten zaizkien babes eskubideak.

Aipatu behar da EAEn ez dela informazio guztia jaso emandako indarberritze eta hausnarketa aldirako prozesuaren kopuruei buruz, eta ez dakigu guztiz ezta ere polizia eta/edo agintaritza judizialekin lankidetzan aritzearen edo egoera pertsonalak kontuan hartuz eman diren.

Alderantziz, baieztatu daiteke ESIK-en esku-hartzea, orokorrean, asko hobetu dela. Iraganean, kasu batzuetan, biktimei beldurrezko tratua edo fiskalizazio tratua ematen zitzaizen informazioa eskuratzeko eta/edo salerosleen sareak desegiteko, baina gaur egun, ESIK-en jarduketa biktimak babestean eta beraien beharrak betetzean oinarritzen da.

Hala, IHA epe motzean ematen den neurria da, identifikazio elkarrizketa egin eta gehienez ere 48 ordura. Zenbait kasutan, biktimek emandako informazioa ez da nahikoa izaten horiek identifikatu ahal izateko, eta beraz, ezin dituzte neurriaren onurak jaso. Egoera horrek ez ditu behar bezala babesten, askotan ez dutelako nahikoa informaziorik, bereziki oso antolatuta dauden sareetan egon direnean.

Beste batzuetan, biktima gisa identifikatu ahal dira, eta indarberritze eta hausnarketa aldia onartzen dute. Batzuetan biktimek onartu egiten dute, baina ez dute nahi izaten epaiketan parte hartu. Hori gertatzearen arrazoa izan daiteke biktimak, epaiketan parte hartzean, bere biktimizazio historia gogoratzea eta horren beldur izatea, beharbada sinetsiko ez diotela uste izateagatik eta salerosleek, nor den jakinez gero, bere aurka egin ditzakeen errepresaliengatik. Horri dagokionez, epaiketan parte hartzen ez badute, izan daiteke biktimak arriskuan ez jartzea, eta beraz, beraien burua babesteko modu bat izan daiteke.

Horrenbestez, onartutako indarberritze eta hausnarketa aldia kasu bakoitzaren eta biktima bakoitzaren egoeraren arabera izango da, baina zerikusi asko du egindako identifikazio kopuruarekin. Azaldu dugun moduan, identifikazio biktimaren esku egonez gero, pertsonen salerosketako biktima gutxi identifikatuko dira, eta beraz, indarberritze eta hausnarketa aldi gutxi emango dira.

Azken finean, gaur egun dagoen moduan, tresna hori babes neurri ez oso eraginkorra bihurtu daiteke, izan ere, biktimak identifikatzearekin lotuta baitago, eta horiek, askotan, beraien burua ez dute biktimatzat jotzen.

Gainera, 59 bis artikulua hitzez hitz interpretatuz gero, neurri horrek aintzatesten dituen biktimen eskubide eta babes neurriak biktima horiek zigor agintaritzekin eta/edo judizialekin lankidetzan aritzearekin baldintzatuta daude. Hala ere, zaila da biktimak lankidetzan aritzea, askotan, traumak izaten dituztelako eta ez direlako poliziarengan fidatzen.

Alderantziz, indarberritze eta hausnarketa aldiari buruzko interpretazio malgua eginez gero, lankidetzaz ingarriagoa litzateke, hau da, Europako Kontseiluaren Hitzarmenean araututa dagoenaren bezalako interpretazioa (13. artikulua), helburutzat biktima indarberritzea duena sendatzeko eta salerosleen eraginpetik askatzeko beharrezkoa duen denboran, eta ez halabeharrez agintaritzekin lankidetzan aritzeari lotuta dagoena.

Koherenteena eta egokiena beraien egoera pertsonalaren arabera baimena ematea litzateke, modu horretan, biktimek erbesteratuak izatearen beldurra galdu ahalko luketelarik eta polizia agintaritzetan konfiantza eskuratu ahalko luketelarik, ondoren, beharrezko zigor ekintzetan laguntzeko.

### **4.3.3. Delitua ikertzeko egiten den zigor prozeduraren ezaugarri nagusiak**

Aurretiaz, garrantzitsua da aipatzea sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa delitu batengatik ikerketa polizialak egoteak ez duela esan nahi beti prozedura judizialak egiten direnik. Azaldu ditugun ikerketa zailtasunak eta zigor prozeduran sortzen diren zailtasun frogagarriak kontuan hartuz, neurri handi batean baldintzatu egiten da sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa delitu batengatik kondena epaia ematea.

Hauek dira salaketa beharrek eta biktimaren deklarazioak dituzten ondorioak eta ordenamendu juridikoan aurreikusitako eraturako frogak ahozko epaiketan biktimaren deklarazioa jasotzeko dauden zailtasunei aurre egiteko dituen aukerak.

#### **- Biktimaren salaketa-deklarazioa**

Poliziaren ikerketari buruz esan den moduan, eremu judizialean ere zailtasun nagusia biktimek sexu esplotaziorako pertsonen salerosketari buruzko salaketak jartzea eta/edo biktimek deklaratzeko edo informazioa ematea da, izan ere, salerosleen errepresalien beldur izaten dira.

Hala ere, sistema judiziala diseinatuta dagoen moduan, biktimen deklarazioa ezinbestekoa da zenbait eginbide egikaritzeko eta pertsonen salerosketagatik zigor prozedura hasteko, berme guztiak errespetatuz. Arazo nagusia da biktimak direla nagusiki froga egozgarriak eman ditzaketenak, baina gehienak egoera zaurgarrietan bizi dira, eta salerosleen sareek derrigortuta egoten dira. Gehienak atzerritarrak dira, eta horrek guztiak baldintzatu egiten du akusazioaren lekuko gisa egoitza judizialean deklaratzeko. Horregatik, zaila da biktimen testigantzen bidez epaiketa batean onartu daitezkeen froga iturriak lortzea eta etorkizunean zigor epaia ematea.

Edonola ere, interesekoak dira elkarrizketatutako pertsonen iritziak, eta biktimen testigantzak ez lirateke elementu erabakigarri bakarrak izan behar salerosleak zigortzeko, eta beraz, beste zantzuzko edo zeharkako froga batzuk kontuan hartu beharko lirateke, besteak beste arazo ekonomikoak, pertsonen ostatuak, telefono bidezko esku-hartzeak, eta abar, horien bitartez erraztuz epaiketan froga sendoak egiaztatzea, eta ustezko arau-hausleen zigorra oinarrituz.

Ardura guztia biktimen testigantzetan jarriz gero, sistema huts egiten hasten da, biktimak berriz ere biktimizatzen baititu, eta arau-hausleak epaitzea ez lortzeko arriskua sortzen baita.

Hala ere, sisteman berriz ere biktimizatzea arindu dezaketen zenbait mekanismo daude, besteak beste hauek: biktimak askotan ez elkarrizketatzea, ikerketarako beharrezkoak ez diren galderak saihestea eta biktimak deklaratzeko deserosoak diren galderak saihestea, eta bereziki, aurrez eraturako frogak erraztea.

#### - **Aurrez eraturako frogak**

Instrukzio fasean egiten den froga da, eta zenbait betekizun betez gero, ahozko epaiketan onartu daiteke eta epaiaren oinarri izan daiteke (Fernandez Olalla, 2014, 6. or.).

Hori egiteko, honako baldintzak bete behar dira:

- Deklarazioak instrukzio epailearen aurrean egitea eta kontraesan printzipioa bermatzea, hau da, inputatuari abokatu baten laguntza ematea, testiguari galdeketak egiteko.
- Ahozko epaiketan testigantza erreproduzitzea ezinezkoa izatea eta sumarioko deklarazioa akta irakurriz txertatzea (PKL-ren 730. artikulua), edo galdeketetako bitartekoen bidez egitea (Fernandez Olalla, 2014, 8. or.).

Gainera, PKL-ren 777. artikuluan baimenduta dago deklarazioa soinu eta irudia grabatzeko eta erreproduzitzeko euskarri batean dokumentatzea, eta grabaketa hori ahozko epaiketan erreproduzitu ahal izango da. Pertsonen salerosketa delituengatik prozeduretan, biktimek zailtasunak izaten dituzte ahozko epaiketetan hitz egiteko, salerosleei beldurra dietelako edo deklarazio koherente bat egiteko baldintza onenetan ez daudelako. Batzuetan, jatorrizko herrialdera itzultzen dira edo desagertuta egoten dira. Beraz, egokia da aurrez eraturako frogaren baliabidea, biktimentzako segurtasun bermea baita eta horrelako prozesuetan ohikoak diren bi arazo konpontzen baitira: biktimen mugikortasun geografikoa eta biktimek ahozko epaiketan hitz egin gabe zigor epai bat emateko ezintasuna.

Froga egoitza izapidegilean egiten denean susmagarria atxilotu aurretik edo inputatu izaera jaso aurretik eta froga egin aurretik abokaturik izendatzen ez bada, defentsaren eskubidea kaltetu dai-

teke eta kontraesan printzipioari eragin diezaioke. Hala ere, AK-ren doktrinan zehaztuta dago ez dela kontraesan printzipioa urratzen hasierako kontraesan falta egonda ere hori ondoren gertatzen denean, eta beraz, ondoren, defentsarako eskubidearen egikaritzea ahalbidetzen denean (187/2003 AKE, urriaren 27koa).

Aipatu dugun moduan, biktimak dira testigantzen bidez elementu frogagarriak eman ditzaketenak, eta horiek eskuragarri ez badaude, aurretiazko frogaren errekurtsoa guztiz arrazoizkoa da. Hala ere, esperientziaren arabera badakigu kasu horietan, ikerketa judizialean ohiko ibilbide judiziala jarraitzen dutela, eta ahozko epaiketan balitekeela biktimak jada hitz egiteko prest ez egotea edo biktimak non dauden ez jakitea, eta ondorioz, zurtasun edo froga ahultasun egoera sortzen da. Batzuetan, biktimak hitz egiteko prest egon daitezke, baina salaketa aurkeztu zuteneko baldintzak aldatuta egon daitezke.

Praktikan, ez da eskari formal asko egiten aurretiazko frogak gauzatzeko. Gutxi erabiltzen den tresna da, izan ere, ohiko instrukziotik atera behar da eta antolamendurako beste egitura batzuk behar dira eta/edo profesional juridikoen artean koordinazio gehiago egon behar da. Horri dagokionez, gaur egungo ereduak eta funtzionamenduaren inertiak oztopatu egiten dute froga hori modu sistematikoa erabiltzea, eta konplexua den guztiak zailtasunak eta gaitzespenak sortu ditzake.

Edonola ere, garrantzitsua da azpimarratzea tresna horrek zenbait eragozpen dituela, baina kontuan hartzen bada xedea frogak modu zuzenean biltzea, alderdien eta defentsa eskubidearen artean kontraesan printzipioa bermatzea eta zigorra oinarritzeko froga bitartekoak izatea dela, berme prozesal guztiekien gauzatu behar da, bitarteko teknikoak guztiz eraginkorrak izan beharko direlarik.

#### **4.3.4. *Pertsonen salerosketaren biktimak babestea***

Zigor prozesuetan pertsonen salerosketaren biktimak babesteak arreta eta interesa izan ditu nazioarteko, estatuko eta autonomia erkidegoko araubidean. Izan ere, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimek kalte larriak sufritu dituzte. Sareenganako duten menpekotasuna dela-eta, bereziki zaurgarriak dira pertsona horiek. Horrez gain, polizia eta judizio prozesu guztietan, bitartekoa gogoratzen dute eta ezagutzen ez duten erakunde eta legezko sistema bati aurre egin behar izaten diete. Ondorioz, biktimek bigarren biktimizazioa sufritzen dute, eta hortik sortzen dira babeserako behar bereziak, Zigor Justizia Sistemak konpondu behar dituenak. Horretarako, atal honetan aztertuko da zein ezberdintasun sortzen diren zigor prozesuan ezarritako neurriak aplikatzaren ondorioz, eta zeintzuk diren etorkizunean aplikatu beharreko hobekuntzak.

Biktimak babestearen esparrua Biktimen Estatutuan jasotako eskubideen eta babes neurrien katalogoa eta babestutako lekuko gisa biktimek egindako deklarazioa dira, Auzi Kriminaletan Lekukoak eta Adituak Babesteko abenduaren 23ko 19/1994 Lege Organikoaren bidez araututakoa. Gainera, esparru horretan izaera instrumentala duten beste babes neurri batzuk ere badaude, oso erabilgarriak direnak biktimen identitatea gordetzeko (ahotsa eta irudia aldatzea, eta abar).

Ikerketan ikusi da zenbait gabezia daudela biktimak babesteari dagokionez, arau aurreikuspenetatik eratorritakoak, zehazki, Auzi kriminaletan lekukoak eta adituak babesteko [abenduaren 23ko 19/1994 Lege Organikoan](#), eta aurrerakuntza gisa nabarmendu da Biktimaren Estatutua aintzatestea.

**Auzi kriminaletan lekukoak eta adituak babesteko Legearen gabezia** nagusia da kasu batzuetan, babesa ez dela guztiz eraginkorra. Zigor prozedurari hasiera eman dion autoan biktimaren deklarazioaren edukia jasotzen da, bere datu pertsonalak (izen-abizenak, helbidea, eta abar) ezkutatuz. Hasiera batean,



neurri horrek biktimaren identitatea babestea bermatzen du. Hala ere, lege berak, epailei eskumena ematen die neurria kentzeko, eta babestutako lekukoaren identitatea zein den jakiteko aukera dago.

Edozein alderdik bere behin-behineko kalifikazio, akusazio edo defentsa idazkian proposatutako lekuko edo adituen identitatea ezagutzea arrazoituta eskatuko balu, zeinaren deklarazioa egokitzen jotzen baita, auzia epaitu behar duen epaileak edo epaimahaiak, proposatutako frogaren egokitasuna ebatzen duen auto berean, lekukoaren eta adituen izen-abizenak eman beharko ditu.

Aurretik aipatu dugun moduan, biktima babesteko bestelako **neurri instrumental edo tekniko batzuk ere erabiltzen dituzte**, besteak beste bionboak edo tresna berriagoak, adibidez, irudia aldatzea eta bideokonferentzia. Bideokonferentzia sistemei dagokienez, garrantzitsua da ziurtatzea arazorik gabe funtzionatzen dutela, eta biktimari egokitasunez adieraztea nola jardungo duten.

Bukatzeko, zigor prozesuaren zailtasun handi bat da beti ez dela bermatzen **itzulpen eta interpretazio zerbitzua**, izan ere, batzuetan interpreteek ez dute nahiko prestakuntza izaten edo ez dute behar beste ezagutzen zigor prozesuaren hizkera juridikoa, eta beste batzuetan, beharrezko prestakuntza dutenean, ekipamendu tekniko faltak zaildu egiten du interpreteek lan egin ahal izatea.

Biktimari aintzatesten zaizkion neurriak eta eskubideak direla-eta, langile hornidura gehitu behar da eta legea aplikatzeko antolamendu neurriak eta teknikoak ere gehitu egin behar dira. Bestela, biktimak ez lirarteke behar bezala babestuko.

Hala ere, azpimarratu behar da Delituaren biktimaren estatutuaren [apirilaren 27ko 4/2015 Legearen](#) bitartez aurrerapen handiak egin direla, bereziki eskubide batzuk aintzatesteari dagokionez, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimentzako ezinbestekoak direnak. Horien artean dago laguntza jasotzeko eskubidea [4.c) artikulua]. Horrek, biktimari eskumena ematen dio berak aukeratzen duen pertsonaren laguntza jasotzeko, agintaritzekin eta funtzionarioekin lehenengo kontaktua izaten duenetik aurrera.

EAEn, elkarteek biktimei laguntzen diete jarduketa guztietan. Hori, ezinbestekoa da deklaratzeko beldurra galdu ahal izateko, babestuak sentitzeko eta bigarren biktimizazioak gutxitzeko. Biktimak bakarrik sentitzen ez badira eta konfiantza eskuratzen badute, beraien ongizate egoera hobetuko da, eta hobetu egingo da deklarazioa baldintza ezin hobeetan emateko aukera.

Bigarren biktimizazioak gutxitzeko, Biktimei Laguntzeko Zerbitzuek (BLZ) lan oso garrantzitsua egiten dute EAEn, izan ere, beraien helburua zigor sistemarekin egin beharreko prozeduretan biktimei laguntzea da. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailari atxikitako zerbitzu boluntarioak eta doakoak dira. Lan handia egiten dute biktimei informazioa eta laguntza ematen, ikerketako prozesu judizialean sartzen direnetik aurrera. Gainera, hauek lortzeko laguntza ere ematen dute:

- Edozein delituetako biktimei orientabideak ematea prozesu judizialean eta hala badagokio, gizarte prozesuetan.
- Salaketa jarri aurretik biktimei orientabideak ematea eta salaketaren jarraipena egitea prozesua bukatu arte.
- Biktimei orientabideak ematea delituaren ondorioz sortutako egoeran egikaritu ditzaketen aukerei buruz.
- Biktimei prozedura izapideei, eskubideei eta laguntza ekonomikoei eta gizarte baliabideei buruzko informazioa ematea.

- Biktimei gizarte laguntza eta laguntza psikologikoa ematea, hala behar izanez gero.
- Biktimak gizarte zerbitzuetara edo osasun zerbitzuetara bideratzea, beharrezkoa izanez gero.
- Prozesu guztietan biktimei laguntzea, bereziki judizialetan.

Ikerketa hau egin genuenean, ez zegoen zerbitzu horietan arreta jaso zuen sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen kasurik, baina egia da, nahiz eta gutxi izan, EAEn erregistratu zirela sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima batzuk. Horrek esan nahi du, arrazoi ezberdinak direla-eta, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak ez direla iritsi BLZ-ek eskaintzen duten laguntza eta babes zerbitzua jasotzera.

Kontuan hartuz delitu larrien biktimak direla, positiboa da elkarrizketatu genuen langile juridiko baten erantzuna aipatzea, bere ustez, egokia litzatekeelako sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak ofizioz BLZ-etara bideratzea. Horiek, sistema judizialeko baliabide guztiak ezagutzen dituzte eta neurri sozialak, psikologikoak, ekonomikoak eta bestelakoak sustatu ditzakete, nahiz eta prozesu barneko neurriak ez izan, horiei esker, eremu judizialaren eta biktimak babesteko eremuaren arteko lotura erreala sortzen baita. Era berean, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei zigor prozesuan laguntzeko funtzioa handitu dezakete, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekin egiten den moduan. Eta alor horretan, garrantzitsua da Bulego Judizialeko langileek biktimei, hizkera simple eta argiarekin jakinaraztea, BLZ dagoela eta nola funtzionatzen duen azaltzea.

#### **4.4. EAEn sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei ematen zaien arreta eta babes**

Nazioarteko, estatuko eta autonomia erkidegoko arauak jarraiki, euskal erakundeek sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei ematen zaien arreta eta babes beharrei erantzuteko sistema ezarri dute. Horregatik, kapitulu honetan, bi bloketan banatuta zehazten dira zeintzuk izan diren sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren alorrean ezarritako politika publikoak eta nolakoak izan den zerbitzu publikoak eta gizarte erakundeek biktimei emandako arreta eta esku-hartzea.

##### ***4.4.1. Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren alorreko erakundeetako politika publikoak***

EAE **Europar** ezarritako ekimen publikoetan sartu da [EB-ren estrategia pertsonen salerosketa deuseztatzeko (2012-2016)], baita **Espainiakoetan ere** [pertsonen salerosketaren biktimak babesteko esparru protokoloa 2011, sexu esplotaziorako emakumeak eta neskatok salerosketearen aurkako plan integrala (2015-2018), Emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeko estrategia nazionala (2013-2016), eta abar.], guztiak ere helburutzat dutelarik pertsonen salerosketa deuseztatzea.

Era berean, **Genero indarkeriaren aurkako 2017ko estatu hitzarmenaren** barne dago; hitzarmen horretan hainbat instituzio, erakunde, eta emakumeen aurkako indarkeriarekin bukatzeko neurriak ezartzen dituzten hainbat pertsona daude. Hitzarmen horren bitartez, gizarteko alor guztietan lan egiten da, eta talde parlamentarioek, autonomia erkidegoek eta Udalerrien eta Probintzien Espainiar Federazioan ordezkatuta dauden tokiko erakundeek berretsi zuten.

Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa hitzarmenean aurreikusitako bi lanerako ardatzen barne dago. Hala, **3. ardatzean (Biktimei emandako sorospena, laguntza eta babes hobetzea)** bigarren biktimizazioa deuseztatzeko neurri bat dago ezarrita. Horren bitartez, emakumeen aurkako indarkeria

lantzen duten epaitegiak eta epaitegi espezializatuak egokitzen dira, eta hala, instalakuntzetan biktimak eta erasotzaileak aurrez aurre egotea ekiditen da, deklarazioak ez errepikatzen ikus-entzunezko bitartekoak eta interprete prestatuak eskaintzen direlarik. Instalakuntza horiek era berean, sexu erasoaren arazoetan eta sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa arazoetan erabili ahal izango dira.

**8. ardatzean (Emakumeen aurkako indarkeriaren beste modu batzuk ikustaraztea eta horiei arreta ematea)** hainbat neurri daude jasota, hauek beste batzuen artean: sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren alorrean nazioarteko lankidetzaren sendotzea kasuak detektatzeko, eta ondoren, jatorrizko lekuetara itzuli diren biktimei laguntzeko, nazioarteko lankidetzaren funtsak gehituz. Horrez gain, Barne Ministerioaren webgunean sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren txostenak eta estatistikak argitaratzen jarraitzea aurreikusita dago, eta datu horiek Genero Indarkeriarako Gobernu Delegazioaren aldizkarietan gehituko dira. Hori guztia, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiei buruzko informazioa eta adierazle estatistikoak bateratzeko.

Hala, kapitulu honen helburua euskal erakundeek ezarritako politika publikoak eta ekimenak aztertzea da.

Eusko Jaurlaritzak Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (GIBLZ) sortu zuen, eta Segurtasun Sailari atxikita dago. Esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei arreta ematea zuzendaritza horren lehentasunetako bat da, eta horretarako, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei arreta eta babesa emateko politika publikoak martxan jarri zituzten, genero indarkeriaren biktimatzat jotzen baitira. Hala, bi **jarduketa protokolo ezarri zituzten**.

Lehenengoa **Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei indarberritze eta hausnarketa aldia arreta emateko koordinazio protokoloa (2010)** deitzen da. Protokolo horren helburua, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei laguntza integrala emateko jarduketak identifikatzea eta diseinatzea da, biktima posible gisa identifikatzen direnetik indarberritze eta hausnarketa aldia bukatu arte.

Bigarrena **Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren emakume biktimei, administrazio egoera erregularrean daudenei, arreta emateko koordinazio protokoloa (2011)** deitzen da. Bere aplikazio eremua administrazio egoera erregularrean zeuden biktima guztiak osatzen zuten (espainiarrak, europarrak, Schengen espazioaren barne dauden lekuetakoak, hirugarren herrialdeetakoak eta/edo EAEtik igarotzen zeudenak). Helburua sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei, administrazio egoera erregularrean daudenei, laguntza integrala emateko jarduketak egituratzea da, genero indarkeriaren biktimatzat jotzen baitira.

Gainera, pertsonen salerosketaren aurka egiteko **beste ekintza motza batzuk** ezarri ziren, besteak beste hauek: **jardumaldiak** antolatzea, Ertzaintzaren, Fiskaltzaren, alor judizialaren eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren (GIBLZ) arteko lanerako eta **koordinaziorako azpitaldea** sortzea, eta sexu esplotaziorako pertsonen salerosketari buruzko sentsibilizazio kanpaina hau martxan jartzea: **“Sexu esplotaziorako emakumeen salerosketa. Hautsi itzazu promesa asko. Ez izan konplizea”**.

Era berean, **alor judizialerako koordinazio protokolo baten zirriborroa egin zen** (Ertzaintza/Polizia Nazionalea/EAEko Fiskaltza Nagusia /Epailletza/Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila), eraginpeko **kolektibo guztien prestakuntza eta sentsibilizazioa** sustatu zen eta gida hau sortu zen: [Udaltzainek sexu esplotaziorako emakumeen salerosketaren aurrean jarduteko gida](#).

Ertzaintzak sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei zuzendutako lehenengo jarduketa protokoloetan sortutako lantaldeari prestakuntza eman zion. Ondoren, protokolo horietan hasieran ezarritako adierazleak aldatzen joan ziren, praktikan detektatutako beharrei egokitzuz eta autonomia erkidegoaren ezaugarri propioekin bat eginez.

Horren guztiaren erreferentzia esparrua [Pertsonen salerosketaren biktimak babesteko esparru protokoloa \(2011\)](#) da, estatu mailakoa, eta bere helburu nagusia pertsonen salerosketaren biktimei laguntza emateko eta biktimak babesteko jarraibideak ezartzea da. Helburu zehatzen artean hauek daude:

- Pertsonen salerosketaren biktimak identifikatzeko prozedura zehaztea eta prozesu horren ardura duten agintaritzen eta erakundeen jarduketa koordinatzea.
- Pertsonen salerosketaren biktima atzerritarrak itzulera boluntarioetako programetan sartzea ahalbidetzea.
- Biktimak atzerritarrak direnean eta administrazio egoera irregularrean daudenean, indarberritze eta hausnarketarako epea emateko prozedura definitzea, eta hala badagokio, erantzukizunetatik salbuesteko eta bizileku eta lanerako baimena emateko edo lagundutako itzulera izateko prozedura definitzea.
- Pertsonen salerosketaren biktimei laguntzeko egiaztatutako esperientzia duten erakundeen eta instituzioen parte-hartzea zehaztea, bereziki laguntza integrala ematen dutenena eta biktimak babesteko administrazio publikoen programetan parte hartzen dutenena.

Protokoloan jasotako jarduketek oinarria giza eskubideak sustatzea da, biktimei emandako laguntza eta babesa lehenetsiz, baita biktimek salerosleen aurkako zigor prozesuetan laguntzea sustatzea ere, bigarren biktimizazioak saihestuz.

Genero ikuspegia ere jasota dago protokoloan, eta hala, bermatu egiten da ezarriko diren neurriek ikuspegi integratua dutela eta pertsonen salerosketaren biktima izan daitezkeen adinarekin, sexuarekin eta bestelako zaugarritasun egoerekin bat datozela, besteak beste osasun egoerarekin, desgaitasunarekin eta haurdunaldiarekin.

2010. urtetik aurrera, Ertzaintzan lanean ari dira delitu hori jazartzen, prebentzioa lantzen delarik, eta ekintza plan bat dagoelarik sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa detektatzeko eta neutralizatzeko. 2016. urtean pertsonen Salerosketaren talde egonkorra sortu zen, eta hasitako ekintza planarekin jarraituz, proiektu pilotu bat egin zuten, [Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurkako ekintza plana](#) izenekoa, lema honekin; “Laguntzeko gaude”. Plan hori Irungo ertzain-etxean ezarri zuten 2016an, eta 2017an Erreterriako, Gasteizko eta Muskizko ertzain-etxeetan ezarri zuten, eta gaur egun, EAE osoan dago ezarrita.

### **Euskal erakunde publikoek egindako jarduketekin jarraituz, garrantzitsua da Emakumeen Euskal Erakundearen lana aipatzea: Emakunde.**

Eusko Jaurlaritzarekin eta Ertzaintzarekin batera, Emakunde Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurkako Ekintza Planaren barne dago, eta alor horretako **koordinazio, sustapen eta sentsibilizazio** organoan eratzen da.

Berdintasun politiken esparruan, zehazki [EAEko emakumeen eta gizonen arteko VI. Berdintasun planean](#), 2014koan, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa sartu zen, izan ere, nahiz eta hain ikusgarria ez den indarkeria mota izan, gure inguruan emakumeen aurkako indarkeria mota berri gisa gehitzen hasi den fenomeno da.

**2016an** Emakundek **Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketari buruzko lantaldea** sortu zuen, aurreko koordinazio protokoloetan hasitako lanarekin jarraitzeko eta aurretik ezarritako lankidetzak mantentzeko. Hala, konpromisoetako bat izan zen 2012ko Koordinazio Protokoloa eguneratzea eta EAEk

pertsonen salerosketaren alorrean dituen betebeharrak aztertzea, plan honen arabera: [Sexu esplotaziorako emakumeen eta neskatuen salerosketaren aurkako plan integrala, 2015-2018](#).

Estatuko plan hori sortu zen (2009-2012koa ordezkatzen duena) Espainiak hartu zuen konpromisoa dela-eta, pertsonen salerosketa, eta bereziki emakumeena eta umeena prebenitzeko, hertsatzeko eta zehatzeko protokoloa berretsi zelako. Horri dagokionez, pertsonen salerosketaren aurkako estrategia diseinatu zuten, pertsonen salerosketaren aurkako 2005eko maiatzaren 16ko Europako Kontseiluaren Hitzarmenean aurreikusita zegoena.

Era berean, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurka modu eraginkorrean egiteko politika garatzeko oinarrizko alderdiak daude jasota bertan, baita ekintza integral baten barne dauden neurriak ere, eta hainbat eragile publiko eta pribaturi eragiten die, diziplina arteko eta genero ikuspegia bermatuz, eta komunikazioa eta koordinazioa sustatuz.

Bestalde, honako jarduketak gauzatu dira: [Arartekoarekin antolatutako jardunaldia, sexu esplotaziorako emakumeen eta adingabeen salerosketari buruz, 2016ko berdintasunerako foroan](#), pertsonen salerosketa deuseztatzeko lan egiten duten profesionali zuzendutakoa; eta 2018. urte bukaeran [pertsonen salerosketaren biktimentzako larrialdizko harrera pisua](#) martxan jartzea, titulartasun publikokoa, eta hirugarren sektoreko elkarteek kudeatutakoa.

Gainera, 2018ko [Prestakuntza Jardunaldia, "Pertsonen salerosketaren biktima diren emakumeak eta neskatuak detektatzeko eta haiei arreta emateko tresnak"](#) izenekoak, antolatu zen, pertsonen salerosketaren biktima diren emakumei eta neskatuei laguntzen dieten profesionali zuzenduta.

Horrez gain, [2018ko Berdintasunerako XV. Foroan](#) hainbat **jardunaldi eta sentsibilizazio jarduera** egin zituzten.

Bukatzeko, 2019ko ekainean [Sexu esplotaziorako emakumeen eta neskatuen salerosketaren aurkako koordinazio mahaia](#) sortu zuten. Koordinatzailea Emakunde izan zen eta hainbat erakunde eta gizarte eragile zeuden bertan, besteak beste Enplegu eta Gizarte Politika Saileko, Segurtasun Saileko, Ertzaintzako, Fiskaltzako, Gobernu Ordezkaritzako eta foru aldundietako ordezkariek, eta Caritas, CEAR-Euskadi, Munduko Medikuek, Hiesaren aurkako Batzordea, Gurutze Gorria, Gizarterako, Askabide, Oblatas eta Accem gizarte eragileetako ordezkariek.

Bileran sexu esplotaziorako emakumeen eta neskatuen salerosketaren aurkako lan-planeko alderdi asko landu zituzten, eta giza eskubideen urratze horrekin bukatzeko behar eta proposamen batzuk aurkeztu zituzten. Era berean, sexu esplotaziorako emakumeen eta neskatuen salerosketaren aurkako Nazioarteko Egunean egiteko ekintza planen programa bateratua egitea proposatu zuten.

Estatuaren sexu esplotaziorako emakumeen eta neskatuen salerosketaren aurka egiteko plan integralaren ikuspegitik, Emakundek EAeko eskumenekoak diren hainbat helburu bete ditu, adibidez, hauek:

- Ekintza plan bat ezartzea sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurka egiteko, Ertzaintzarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.
- Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurka sentsibilizatzeko neurri espezifikoak sustatzea.
- Sexu esplotaziorako emakumeen eta neskatuen salerosketa egoerak detektatzea hobetzeko preskakuntza ekintzak egitea biktimekin harremana izan dezaketen alorretako profesionalekin.
- Pertsonen salerosketaren biktimentzako larrialdizko harrera pisua martxan jartzearen aurreikuspena.

Orain dela gutxi, Bizkaiko Foru Aldundiak [2019-2021 rako Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimekin esku hartzeko plana](#) sortu zuen, eta bere helburua kaltetuei arreta integrala ematea da. Plan horretan, hainbat ekintza daude, prestakuntzakoak, prebentziokoak, sentsibilizaziokoak, koordinaziokoak eta sarean lan egitekoak, eta giza eskubideen urratze larri horri buruzko ikerketari eta ezagutza hobekuntzari buruzkoak.

Laburbilduz, euskal erakunde publikoek, 2010. urtetik aurrera, jarduketa batzuk egin dituzte EAEn sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurrean jarduteko eta biktimak babesteko, hala, garai batean politika publikoetan agertzen ez zen gaia izan zelarik, eta gaur egun, gai garrantzitsua delarik.

#### **4.4.2. Biktimei arreta ematea: zerbitzu publikoak eta pribatuak ematea**

Atal honetan, biktimei emandako arretari eta babesari buruzko azterketa egin da (helduei eta adingabeei); hori guztia zerbitzu publikoek, osasun zerbitzuek eta gizarte zerbitzuek egiten dute. Gainera, gizarte erakundeek gauzatzen dituzten arreta eta babes jarduketak daude jasota, gizarte erakundeak ezinbesteko eragileak direlarik pertsonen salerosketaren biktimak babesteko.

##### **4.4.2.1. Osasun zerbitzuak**

Gure osasun zerbitzuetan, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa gutxitan detektatzen den fenomeno da, ia-ia ezezaguna, beste fenomeno batzuk ez bezala, besteak beste tratu txarrak, garapen handiagoa izan dutenak ([Osasun protokoloa, etxeko tratu txarren eta emakumeen aurkako sexu indarkeriaren aurrean 2008koa](#)), edo emakumeen mutilazio genitala ([Emakumeen mutilazio genitala. Euskadiko osasun sisteman aholkatutako jarduketa gida, 2016koa](#)).

2011n [2011ko Alor judizialeko koordinazio protokoloa, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei arreta emateko indarberritze eta hausnarketa edo sendatze aldian](#) izeneko protokoloa ezarri zen larrialdizko kasuetan, osasun zentroetan pertsonen salerosketaren biktimei arreta emateko, baina protokolo horren aplikazio eremua bakarrik IHA prozesuan dauden biktimei zuzenduta dago. Ondorioz, neurri hori aukeratu ez duten gainerako biktimak aplikazio eremutik kanpo daude, eta beraz, ez dute babes hori jasotzen.

Aurrekoa baino berriagoa da [Euskadiko genero indarkeriaren eta sexu erasoaren aurkako jarduketa gida](#). Gida horretan, laburki zehazten dira sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren egoera posibleak detektatzeko eta bideratzeko osasun jarduketarako jarraibideak eta biktimei emandako arreta hobetzekoak.

Ikerketa honetan elkarrizketatu genituen osasun langileek esan zuten, ez zutela izan sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren kasuen berri. Bakarrik jakin genuen osasun zentro batean bi kasu puntualetan jardun zutela umeen babesgabetasun egoera baten zantzuak zeudelako, eta umeen trafikoa egon zitekeela susmatu zutelako. Hori guztia kontuan hartuz, osasun langileek modu koordinatuan jardun zuten adingabeak babesteko zerbitzuarekin, eta kasu batean, bi umeren tutoretza zerbitzuak hartu zuen bere gain, eta beste batean, neskato baten eta bere adingabeko amaren tutoretza hartu zuen zerbitzuak.

Azpitarratu behar da batzuetan, gure gizartean sortzen ari diren zenbait arazoren inguruko ezagutza falta dela-eta, profesionalek zenbait arazo izaten dituztela jarduteko. Immigrazioarekin eta kultura eta familia talde ezberdinekin lotutako gaiek, eta zehazki, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketak, argi uzten dute profesionalen alor ezberdinetan (gizarte, justizia eta abar) ezagutza, prestakuntza eta koordinazio falta dagoela. Era berean, tresnak behar dituzte pertsonen salerosketaren biktima posible bat susmatzean, diagnosiak eginez jarduteko eta proaktiboagoak izateko.

Horri dagokionez, kontuan hartuz osasun alorra eta nagusiki larrialdi zerbitzuak, ginekologia eta obstetrizia eta lehenengo mailako arreta espazio garrantzitsuak direla biktimak detektatzeko, egokia da langileei (erizainei, medikuei eta abarri) prestakuntza ematea pertsonen salerosketa alorreko arazoak detektatzeko eta horietan jarduteko, bereziki sexu esplotaziorako pertsonen salerosketari dagokionez.

#### 4.4.2.2. Gizarte zerbitzuak

EAEko gizarte zerbitzuen sistemak urte asko daramatza gizarte arreta ematen, eta sistema eratzen joan da hiru erakunde mailen esku-hartzearekin. [Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen](#) bitartez sistemaren helburua eta xedea zehaztu ziren, baita esku hartzen duten administrazio publikoei dagozkien funtzioak eta eskumenak ere. Gainera, gizarte zerbitzuak izateko eskubide unibertuala eta subjektiboa aintzatestea gehitu zen, eta hori betetzean, pertsona guztiek, administrazio bidean eta bide jurisdikzionaletan, baldintza orokorrak eta espezifikoak betez gero, Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuak edo prestazio ekonomikoak jaso ditzakete. Bukatzeko, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa arautzen du, baita prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak ere.

Gizarte zerbitzuen euskal sistemaren barneko zerbitzuak honela daude egituratuta:

- **Lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak:** zerbitzu horietan, autonomiarekin, gizarteratzearekin eta larrialdizko eta gizarte babesgabetasun egoerekin lotutako beharrak lantzen dira, bereziki lan egiten dutelarik arrisku egoerak prebenitzen. Zerbitzu horiek hornitzea eta ematea udal zerbitzuek bermatzen dute.
- **Bigarren mailako arretarako gizarte zerbitzuak:** zerbitzu horietan bazterketa, menpekotasun eta babesgabetasun beharrak lantzen dituzte. Zerbitzu horien hornidura eta ematea foru gizarte zerbitzuek bermatzen dute, eta hala badagokio, autonomia erkidegoko gizarte zerbitzuek.

**Udaleko gizarte zerbitzuak** eta **foru gizarte zerbitzuak** sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima izan daitezkeen pertsonak detektatzeko, horiei laguntzeko eta baliabide espezializatuetera bideratzeko erakundeak bihurtu daitezke. Lehenengoak, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimekin harremanetan jarri daitezkeelako prostituzio, immigrazio eta/edo gizarte egoeran daudelako. Horiek, aukera gehiago dituzte poliziak zerbitzu horietara bideratuak izateko, ez pertsonen salerosketaren biktima gisa identifikatuak izan direlako, baizik eta beraien gizarte egoera larrian sortutako beharrei erantzuteko. Bigarrenak, umeen eta nerabeen babesgabetasun egoerak lantzen dituztelako, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketari lotutako testuinguru zaurgarrietan daudenenak. Horretarako, ondorengo kapituluak bi helburu hauek ditu: egoera horietan profesionalek ematen duten esku-hartzea aztertzea eta profesionalek dituzten zailtasunak identifikatzea.

#### - **Haurrak eta nerabeak babesteko zerbitzuak**

[Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen](#) 41.5. artikulua aplikatuz, foru aldundiek, [otsailaren 18ko 3/2005 Legearen](#) bitartez emandako eskumenekin, **babesgabetasun egoera larrian edo babesik gabe** dauden Haurrak eta nerabeak zaintzen eta babesten dituzte. Helburua, babesgabetasun egoeran dauden umeen eta nerabeen eskubideak bermatzea da, betiere adingabeen interes beharrezkoenekin bat eginez. Interes beharrezkoenak identifikatzeko, foru zerbitzuek kontuan hartuko dituzte segurtasun eta babes xedapenak, bereziki umeak eta/edo nerabeak pertsonen salerosketaren biktima izateko arriskuan baldin badaude.



Horretarako, babesgabetasunari buruzko balorazioa eta diagnostikoa egiten dute **BALORA** tresna erabiliz. Tresna hori Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal eta lurralde mailako gizarte zerbitzuetan arrisku eta babesgabetasun egoeren larritasuna balioesteko da, eta 2017koa da.

Babesgabetasun maila baloratu ondoren, zenbait neurri ezartzen dira babesgabetasun egoeratik eratorritako beharrei erantzuteko. Neurri horien artean egon daiteke pertsona bat familiarik **banatzea**, babesgabetasun deklarazioa ematen denean:

- Tutoretza automatikoa da, legearen betebeharraren bidezkoa, eta gurasoen ahala eten egiten da.
- Zaintza gurasoen eskaeraren araberrako da.
- Zaintza judiziala.

Kasu guztietan, honako babes neurriak aplikatuko dira:

- Familia harrera.
- Egoitza harrera.
- Adopzioak.
- **Umeen salerosketak detektatzea eta horri buruzko jarduketak egitea**

Umeen sexu esplotaziorako salerosketa gure gizartean gutxi detektatu den errealitatea da. Aztertutako kasuekin bat eginez, EAEko foru aldundiek delitu mota horrekin modu puntualean eta noizean behin jardun dute. Bi profil nagusi hauekin lan egin dute: sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima diren zenbait emakume gazte eta sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren zantzuak dituzten emakume batzuk, beraien kargura seme-alabak dituztenak.

**Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima diren emakume gazteei dagokienez**, Gipuzkoan zenbait kasu egon ziren adingabe errumaniar batzuekin, gizarte zerbitzuetara joan zirenak poliziak bideratuta, prostituzioa egitera behartuta baitzeuden. Bizkaian baita ere, adingabe nigeriarrekin bi alditan esku hartu zuten: bata estatuko erakunde batera lekualdatu zuten (ondoren adin nagusikoa zela egiaztatu zuten), eta besteak adingabeen zentro batetik ihes egin zuen. Bukatzeko, babes zerbitzuetako batean Guinea Bissautik zetorren adingabe baten espedientea jaso zuten, baina ez zuten pertsona aurkitu.

**Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren zantzuak zituzten eta beraien kargura seme-alabak zituzten amekin** egindako jarduketak, hasieran Andaluziako Juntak bidalitako jakinarazpen baten ondorioz egin ziren. Horretan, adierazten zen Bilbora emakume etorkinak iritsi zirela seme-alabekin, eta pertsonen salerosketa sareetan egotearen zantzuak zituztela. Bakarrik emakume bat aurkitu zuten.

**Ikerketan zehar esku-hartze espezifikokoago baten berri jaso zen:** mutiko baten kasua zen, eta uste zuten bere ama sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa sare batean zegoela. Umea ez zen eskolara joaten, eta oinarritzko gizarte zerbitzuek espedientea aldundira bidali zuten, aldundiak Ertzaintzarekin eta Polizia Nazionalarekin lan egin zuelarik gertakariok salatzeke. Azkenean ez zuten aurkitu.

Bukatzeko, Gasteizen, hiru aldiz **emakume nigeriarrekin** esku hartu zuten. Emakume horiek beste leku batzuetatik ihesean zeuden, polizia pertsonen salerosketaren inguruko ikerketa egiten ari zelako.



Hiru kasuen berri eman zitzaizkien fiskaltzari, epaitegiari eta poliziaari. Bakarrik kasu batean eten zen guraso ahala, eta umeak tutoretzapean jarri zituzten.

Azken finean, aztertutako datuetatik ondorioztatu daiteke, nahiz eta gure autonomia erkidegoan esku-hartzea gutxienekoa izan, zenbait **zailtasun** egon direla. Alde batetik, nola ikusarazi sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa, eta zein den une egokiena salaketa egiteko edo pertsonen salerosketa zantzuen berri polizia agintaritzari eta agintaritzak judizialei emateko, izan ere, ihes egiteari gehitzen zaion arazoa da. Bestalde, zaila da baita ere pertsonen salerosketaren biktima izan daitezkeen umeak eta nerabeak identifikatzea eta beraiei arreta emateko baliabide espezializatuak izatea. Bukatzeko, pertsonen salerosketarekin lotuta daudenaren zantzuak dituzten pertsonak aurkitzea zaila da.

Bereziki aipatu behar da adingabeen egoitzazko zentroen egoera, hautemate arriskuak direla-eta. Bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuen sarean dauden adingabekoen egoitzazko zentroak, beharrezkoak dituzten adingabekoei zuzenduta daude. Behar horiek inguruabar larriak direla-eta, zaintza lanak aldi batean egin ezin dituzten gurasoen edo tutoreen ezintasunak, babes egoera larriko arrisku egoerek edo babesgabezia egoerek zehazten dituzte. Zentro horien helburua adingabe horiei babestutako espazio bat ematea da, garapen afektiboa, soziala, intelektuala eta psikologikoa ahalbidetzeko.

Zentro horietan dauden adingabeek ez dute leku batean barneratu beharra zehazten duen neurri judizialik, eta beraz, zentro irekietan egoten dira. Zentro horietatik ihes egiteko arriskua dago, eta adingabeen zaurgarritasuna kontuan hartuz, umeen edo nerabeen salerosketa sareek atzemateko arriskua izaten dute, eta beraz, prebentzioko neurri bereziak ezarri behar izaten dira.

Azken finean, EAEn sexu esplotaziorako salerosketatik eratorritako umeen eta nerabeen babesgabetasun egoeren ondoriozko esku-hartze gutxi egin dira EAEn, baina osasun alorrean gertatu den moduan, agerian geratu dira gizarte zerbitzuetako langileek dituzten zailtasunak errealitate berri horri aurre egiteko, eta argi geratu da baita ere, beharrezkoa dela langileek prestakuntza egokia eta espezifikoa jasotzea, pertsonen salerosketa arriskua duten egoerak detektatzeko, eta sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa kasu baten aurrean nola jardun jakiteko.

#### **4.4.3. *Gizarte erakundeek arreta emandako sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima diren emakumeak***

Atal honen helburuak sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen beharrak aztertzea, laguntza mota jorratzea eta behar horiei aurre egiteko eskaintzen diren zerbitzuak aztertzea da, baita ere biktimekin egunero lan egitean sortzen diren zailtasun nagusiak ikertzea.

Gizarte erakundeak bi taldetan banatu daitezke: sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei laguntza integrala ematen dietenak eta laguntza espezializatua ematen ez dutenak, baina lan handia egiten dutenak sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima izateko zantzuak dituzten pertsonak detektatzeko, besteak beste etorkinei, errefuxiatuei eta aberrigabeei arreta humanitarioko programak kudeatzen dizkieten erakundeak.

Mota bateko edo besteko erakundeak izanik ere, biktimen hainbat beharrei erantzuten diete, eta horri dagokionez, elkarte eta GKE guztiak ezinbestekoak dira biktimak babesteko, sendatzeko eta biktimek sufritutako kalteak konpontzeko. Beraien helburua biktimen beharrak betetzen direla lehenestea eta biktimei ahalduntzeko prozesuan eta erabakiak hartzen laguntzea da. Gainera, biktimei laguntza ematen diete hausnarketa prozesuan eta biktimizaziotik sendatzeko aldian.

Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketagatiko biktimizaziotik eratorritako behar nagusiak hauek dira modu laburtuan:

- **Informazioa eta aholkularitza:**

Informazioa jasotzea biktima guztiak duten beharra da, beharbada lehenengoa, beste behar zehatz askoren artean, eta informazio hori sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak detektatzen direnean eta gizarte instituzio eta erakundeek babes eta laguntza prozesuetan sartzean ematen zaie. Horri dagokionez, zerbitzu guztietan eskubideei eta baliabideei buruzko informazioa ematen zaie modu argi eta sinplean, eta jarduketa guztiei buruzko orientabideak ematen zaizkie, beraien egoera larria eta zaila kontuan hartuz. Biktimei beraien eskubideei eta babes neurriei buruzko informazioa ematean azpimarratu behar den alderdietako bat da legez aukera dagoela indarberritze eta hausnarketa aldian ematen ez diren bestelako babes baliabideak eskatzeko (Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei, eta atzerritar horien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 59. bis artikulua). Ematen zaien informazioa nazioarteko babesa eskatzeko duten eskubideari edo gizarteratze prozesua jarraitzeko eskubide sozialei, laguntzei eta prestazio ekonomikoei buruzkoa da baita ere.

- **Ostatua:**

Ikerketa honen beste atal batean azaldu den moduan (IV. kapitulua), baliteke biktimek egoitzazko baliabide bat behar izatea, hau da, lehen harrerarako eta babeserako leku bat, segurua, sendatze prozesua egiteko eta autonomia pertsonala eskuratzeko, eta baliteke baita ere, bakarrik kanpoko laguntza programa behar izatea.

Egoitzazko harrera kasuetan, emakumeen egoera aztertzen da, eta ESİK-ek arriskuak baloratzeko egindako txostenaren ondoren, beharren arabera arreta eta esku-hartze integralerako prozesu bat ezartzen da.

- **Gizarte arreta:**

Biktimek harrerako egoitzazko baliabide batera joateko beharrik ez badute eta beste mota bateko laguntza behar izanez gero, erakundeek, alor guztietako aholkularitza eta programen bitartez, laguntza eskaintzen diete, adibidez alor hauetan: prestakuntza, lan orientazioa, osasun zentroetara, kontsulatuetara eta enbaxadetara laguntzea, administrazio izapidetzeetan laguntza ematea, interprete zerbitzuak, deklarazioetan laguntza ematea, eta abar. Horrez gain, prestakuntza espezifikoak ere egiten dituzte alor ezberdinetako trebetasun edo gaitasunen inguruan (informatika tailerrak, osasun tailerrak, defentsa pertsonalekoak, alfabetizaziokoak, hizkuntzak ikastekoak, eta abar).

Etorkinei, errefuxiatuei eta/edo aberrigabeei laguntza humanitarioa emateko programak dituzten erakundeek ostatua eta mantenua eskaini ditzakete, plazak eskuragarri egonez gero. Elkarte horiek laguntza psikologikoa eta aholkularitza juridikoa ere ematen dute.

Laguntza psikologikoa ezinbestekoa da jatorrizko herrialdeetik ateratzen direnean, bidaiari zehar eta helmuga herrialdean sufritutako kalte guztietatik sendatzeko. Emakume eta neskatok askorentzat, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa gehitutako indarkeria bat izan ohi da, bizitzan beste mota batzuetako indarkeriak jasaten baitituzte (indarkeria fisikoa, sexu gehiegikeriak, eta abar). Horregatik guztiagatik, biktimentzako oso garrantzitsua da laguntza psikologikoa eskuratzeko, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima gisa beraien burua hautemateko, beldurrak gainditzeko, autoestimua berreskuratzeko, eta azken finean, beraien bizitzan kontrola berriz ere hartzeko. Horrez gain, laguntzen dieten pertsonengan konfiantza eskuratu behar dute, ez dira epaituak sentitu

behar eta, jarduteko eta poliziarekin lankidetzan aritzea erabakitzeko edo hala badagokio, zehapen prozeduran parte hartzeko presiorik ez dute sentitu behar. Azken finean, hori guztia beraien egoera salatu ahal izateko eta agintaritzekin lankidetzan aritzeko, psikologikoki indarberrituta egon behar dira eta sistema juridikoaren babes bermeetan konfiantza izan behar dute.

Aholkularitza juridikoa ezinbestekoa da egikaritu ditzaketen eskubideen berri izateko eta zigor prozedura egonez gero, administrazio izapidetzei eta jarduketa judizialei buruzko informazioa izateko. Orokorrean, biktimek ez dute dokumentaziorik izaten edo dokumentazio faltsua izaten dute, eta hori oztoppo da beraien eskubideak egikaritzeko eta gizarteratzeko eta laneratzeko.

Bukatzeko, garrantzitsua da sufritutako kalteak konpontzeko konpentsazio ekonomikoa jasotzeko aukera egotea, horren bitartez, biktimek saleroslearen sareetatik ihes egiteko beharrezko independentzia eskuratu ahal izateko.

Behar horiek zerbitzuak emanez eta erakundeek jarduerak eginez estaltzen dira, bai erakundeen lokaletan bai kanpoko zerbitzuetan, eta banaka edo taldean egin daitezke. Elkarteen arteko koordinazioa handia da, eta beraz, elkarteek ezingo balukete eskariari behar besteko erantzunik eman harrera plaza gutxi daudelako edo pertsona baten behar bereziei erantzuteko laguntza programarik ez dutelako, pertsona horiek beste gizarte erakunde eta instituzio batzuetara bideratzen dira, EAEn edo estatuan (pertsonen salerosketaren aurkako Espainiako Sarea).

Biktimei harrera emateko, biktimak babesteko eta horiei laguntzeko prozesuan zehar, erakundeek **zailtasunak** izaten dituzte baita ere, batzuetan beraien inguruabarrei lotutakoak, eta besteetan administrazio kontuak direla-eta. Lehenengo inguruabarraren barne dago emakumeek programa modu boluntarioan uztea, eta hala, biktima ikusezinekin batera, babes zirkuitutik kanpo egongo lirarteke. Baliteke biktimek ezagutzen ez diren edo gizarte erakundeek tratatzen ez dakizkiten arazo psikologikoak izatea, eta horrek, zailagoa egiten du beharren arabera zerbitzua eman ahal izatea. Bigarren kontuari dagokionez, administrazio jarduketak eta prozedura judizial guztiak izapidetzean ohikoa den moteltasunaren ondorioz, zaila izaten da arazoak modu eraginkorrean jorratzea.

Azken finean, zailtasunak egon arren eta ahal duten heinean, euskal gizarte erakundeek biktimen beharrak jorratzen dituzte eta erantzuna ematen diete. Erakunde horietako batzuk ez dira estatuko beste erakunde batzuk agertzen diren bezainbeste agertzen komunikabideetan eta sare sozialetan, beharbada, arreta ematen zaien sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima kopurua estatukoa baino baxuagoa delako. Hala ere, azken horiekin esku-hartze eredu partekatzen dute ikuspuntu biktimologikotik eta giza eskubideen ikuspuntutik, ezinbestekoa dena helburu bikoitz hau lortzeko: arreta integrala ematea eta biktimak sendatzea.

#### **4.5. Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurka egiteko eta biktimei arreta emateko koordinazioa**

II. kapituluaz azaldu dugun moduan, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa faktore anitzeko fenomeno da, eta diziplina arteko jarduketa behar da horri aurre egiteko eta biktimei laguntza eraginkorra emateko. Horri dagokionez, atal honen helburua alor horretan eskumenak dituzten erakundeen eta profesionalen arteko koordinazioa aztertzea da, izan ere, ezinbesteko zeharkako alderdia da jarduketa guztietan, polizia ikerketen eta/edo ikerketa judizialen esparruan eta biktimei laguntzeko prozesuan zehar.

Azterketa honetan landu diren tresna juridiko gehienek ezartzen dituzte eskumenak dituzten erakundeen eta administrazioen koordinazio eta jarduketa oinarriak eta pertsonen salerosketaren aurka lan egiten duten gobernuz kanpoko gizarte instituzioen eta erakundeen lankidetzak baldintzak.

Horri buruz aipatu behar da, lankidetzaren alorrean aurrerakuntza handia izan delako, Segurtasun Estatuko Idazkaritzaren 6/2016 Instrukzioa ezarri izana, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen jarduketari buruzkoa, pertsonen salerosketaren aurkako borrokan eta biktimei laguntza ematen esperientzia egiaztatua duten instituzio eta erakundeekin lankidetzan. Bertan, gizarte solaskidearen nazio mailako eragileak diseinatzen da, lurraldeetako gizarte solaskideekin lankidetzan aritzeko eta koordinazioa gauzatzeko. Izan ere, gizarte solaskideak autonomia erkidegoko eta tokiko mailan lurralde alorretako baliabideak eskatu ahal izango ditu pertsonen salerosketaren biktimei arreta emateko. Gainera, koordinazio prozedura bat ezarriko da, ESIK-en eta erakunde espezializatuen artean informazioa trukatzeko pertsonen salerosketaren biktimei izan daitezkeen norbaiten berri izatean. Horrez gain, biktimen identifikazioa bakarrik polizia unitateek egiten dute, prestakuntza espezifikoa jaso dutenak pertsonen salerosketa prebenitzeko eta horren aurka egiteko eta biktimak identifikatzeko eta laguntza eskaintzeko. Bukatzeko, ESIK-ek, gizarte erakundeak jakinaraziko diete pertsonen salerosketaren biktimei izan daitezkeenak zeintzuk diren, horiek identifikazio goiztiarren lagundu ahal izateko, eta bereziki, identifikazio elkarrizketan laguntzeko.

Biktimei buruz zenbait aurreikuspen jaso dira. Lehenik eta behin, Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzeritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 59 bis artikulua berri emango zaie administrazio egoera irregularrean dauden atzeritarrek badira, eta arriskuei eta segurtasun neurriei buruzko informazioa emango zaie, baita bizileku baimena eskatzeko aukeraren berri ere, beraien egoera pertsonala eta gizarteratzeko erraztasunak kontuan hartuz. Bigarrenik, salaketa jasotzen denean, biktimarekin egon ahal izango da berak aukeratzen duen pertsona bat, erakunde espezializatu batekoa, betiere bermatu badaiteke eginbidea zuzentasunez garatuko dela eta egin ahal izango diren edo egin beharko diren ikerketen emaitzak baldintzatzen ez badira. Biktimek aukeratzen duten pertsona baten laguntza izateko eskubidea arrazoituta ezetsi ahal izango da, eta hala jasoko da jarduketetan.

Instrukzioaren azterketaren ondoren, ezberdintasuna dago ESIK-ek eta erakunde espezializatuak biktimak identifikatzeko gauzatutako jarduketetan. Alde batetik jasotzen da, pertsonen salerosketaren biktimei izan daitezkeen pertsona bat detektatzean, ESIK-ek **erakunde espezializatuen laguntza eskatuko dutela, baina beste alde batetik azpimarratzen da, biktimen identifikazioa bakarrik polizia unitateek** egingo dutela, prestakuntza espezifikoa dutenak pertsonen salerosketaren prebenzioan, horren aurkako borrokan eta biktimak identifikatzen eta horiei laguntzen.

Modu horretan, erakunde espezializatuak bigarren mailan geratzen dira identifikazio prozesuan, kontuan hartuz bakarrik ikerketaren arduradun diren polizia unitateek egin ditzaketela identifikazioak. Gainera, horiek biktimak laguntzaileak izateko duen baimena ukatu dezakete salaketa jasotzen duten unean. Kontu hori kritikagarria da, izan ere, biktimaren ongizatea eta konfiantza zati handi batean elkarrean laguntzaren baldintzapean daudenean, elkarre horiek ezinbestekoak dira identifikazio prozeduretan eta ikerketa zuzentasunez garatzeko lanetan, izan ere, biktimaren egoera pertsonala, bere eskariak eta beharrak hobekien ezagutzen dituztenak elkarrekin dira. EAEn, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren kontrako eta biktimei arreta emateko koordinazio sistema profesionalen arteko harremanetarako eta komunikaziorako fluxu diagrama bat da, eta Zigor Kodearen (2010) pertsonen salerosketaren delitua arautu zenetik, hainbat plan eta jarduketa protokolo sortu dituzte.

Tresna horiekin, aurrerapen nabarmenak egin dira pertsonen salerosketaren aurkako lanean, eta biktimak babesteko beharrei erantzutean. Koordinazio alorreko **alderdi positiboak** artean dago euskal erakundearen arteko (Eusko Jaurlaritza, Emakunde eta foru aldundiak) eta eskumenak dituzten eragilearen arteko harremana (eragile juridikoak, gizarte erakundeak, Ertzaintza, Atzeritarren eta Mugen Brigada, eta abar). Hala, horien guztien arteko koordinazioa **eraginkorra eta egokia** da bi oinarri nagusi hauengatik: profesionalen inplikazioa eta fenomeno horren aurka borrokatzeko helburua eta biktimak babesteko helburua, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa EAEn geroz eta ikusgarriagoa den errealitatea izatea lortzeko.

**Poliziaren alorrean**, nahiz eta Ertzaintzak eta Atzerritarren eta Mugen Brigadak jarduketa puntualak egin, ez dirudi kidego bien artean ohiko moduan datuak eta informazioa partekatzen dutenik.

Era berean, biktimen jatorrizko herrialdeekin egiten den lankidetzak poliziala, adibidez Nigeriarekin egiten dena, zaila da zenbaitetan. Alderantziz, Europar Batasuneko herrialde batzuekin (Errumania, Polonia edo Bulgaria) egiten den informazio truketzea nahiko ona da.

**Eremu judizialean** aipatu behar da koordinazioa ona dela EAEko Fiskaltza Nagusiaren, ESIK-en eta Ertzaintzaren artean. Egokiak dira baita ere EAEko Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusiaren eta Madrilgo Atzerritarren Fiskaltzaren arteko koordinazioa, eskuragarritasunari eta esperientziari esker, gainerako profesionalen segurtasuna bermatzen baita. Era berean, epaileen eta ESIK-en arteko koordinazioa ona da, bereziki Polizia Lankidetzako eta Aduanetako Zentroarekin egiten dena.

Alderantziz, epaileen eta fiskalen arteko koordinazioa eta Europako agintaritzak judizialekiko lankidetzak hobetu egin behar dira, izan ere, jarduketa judizialen izapidetzeak motel egiten dira.

**Zerbitzu publikoen arteko koordinazioari** dagokionez aipatu behar da osasun zerbitzuen eta sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima diren adingabeak babesteko zerbitzuen arteko koordinazioa urria izan dela. Hala ere, beharrezkoa izan denean, batera lan egin dute eragile juridikoekin, sozialekin eta EAEko erakundeekin (adingabeak babesteko zerbitzuak, oinarrizko gizarte zerbitzuak, epaitegiak, fiskaltza, Ertzaintza eta ESIK).

Bukatzeko, **laguntza alorrean** aipatu behar da, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei laguntzen dieten euskal elkarteek (Askabide, Oblatas, Gurutze Gorria, Accem) Estatuko eta Immigrazio-Idazkaritzarekin, ESIK-ekin, Ertzaintzarekin, euskal gizarte erakundeekin eta estatuko biktimei laguntzeko erakundeekin koordinazioan lan egin dutela. Kasu batzuetan, biktimak jatorrizko herrialdeetara itzultzeko prozesuetan lagundu dute, baita biktimak estatuko erakundeetara bideratzen ere. Biktimei laguntzeko eta biktimak babesteko sarean eta modu koordinatuan egindako lanaren adibide bat da nazioarteko gizarte erakundeekin egin den lana, besteak beste Guatemalako, Kolonbiako, Venezuelako, Peruko eta Paraguaiko erakundeekin egin dena.



## V. KAPITULUA

### Ondorioak eta hobekuntza proposamenak

#### 5.1. Ondorioak

Atal honetan azterketari buruzko ondorio nagusiak eta hobekuntza proposamenak azaltzen dira, horrela, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurkako borrokan eta prebentzioan eta biktimak babesteko prozeduran aurrera egitea ahalbidetzen duten neurriak proposatuz.

Erreferentzia gisa azterketaren egitura hartu dugu, eta horrenbestez, ondorioak gai eta maila ezberdinen arabera azalduko dira. Gai orokorrak sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren fenomenoak, esparru juridikoa, datu estatistikoak eta EAEko biktimen profilak dira. Gai zehatzagoetan, pertsonen salerosketaren alorrean lan egiten duten profesionalak eta biktimek poliziaren ikerketak eta zigor prozedurak irauten duen bitartean dituzten zailtasunak eta mugak azalduko dira, baita gizarte erakundeek ematen duten arreta integrala ere. Bukatzeko, alor horretan lan egiten duten agenteen eta erakundeen arteko koordinazioari buruzko ondorioak azalduko dira.

#### **Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren ezaugarriei dagokienez:**

- 1. Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa, gaur egungo pertsonen salerosketa mota ohikoena da, baina ez bakarra.** Fenomeno hori konplexua eta ikusezina da, eta gainera, polizia etxe mugakideetatik pasatu gabe egindako igarotzeekin (pertsonek trafikoa) eta prostituzio koaktiboarekin lotuta dauden bestelako delituekin erraz nahasten da.

Nahiz eta sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa gehien detektatutako eta dokumentatutako salerosketa mota izan, ia ezinezkoa da benetako arazoaren tamaina zein den jakitea, izan ere, zifra beltz handia duen delitu mota da, eta beste delitu mota batzuekin gertatzen ez den moduan, kasu honetan ez da ohikoa biktimek zuzenean salaketak jartzea.

Orokorrean egiten den akats bat da pertsonen salerosketa, salerosketa mota zehatz batekin identifikatzea, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketarekin hain zuzen ere. Hala ere, errealitate kriminologikoak erakusten du gizakiak ustiatzeko helburua duten hainbat hautemate mota daudela, besteak beste lan esplotaziorako, eskaletzarako, derrigortutako ezkontzetarako, organoak ateratzeko eta batzuetan, oraintsu gertatzen ari den moduan, zenbait talde estremistek (Boko Haram eta estatu islamiarra) gerra eta terrorismo arma gisa erabiltzeko gauzatzen dituzten pertsonen salerosketak.

- 2. Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria mota bat da.** Indarkeria mota horren berezitasunetako bat da nagusiki emakumeei eta neskatoei eragiten diela, bakar-bakarrik emakumeak edo neskatok izateagatik. Fenomenoaren ezaugarriak eta giza eskubideen urraketa horren aurka egiten duten tresnei esker, pertsonen salerosketa mota hori genero indarkeriaren adierazpen bat da.
- 3. Ez dago sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen profil bat bakarrik.** Biktimak hainbat lekuetakoak dira, eta zaurgarritasun egoerak eta salaketak jartzeko ingurubarrak ere ezberdinak dira nazionalitate batetik bestera. Azterketan gehien detektatu den profila emakume gazteek osatzen dute, nigeriarrek eta errumaniarrek, baina emakume bakoitzak, biktimizazio prozedura modu bakarrean eta pertsonalean bizitzen du. Hala ere, biktima guztiek beldurra izaten dute, eta guztiek sufritzen dituzte kontroleko eta/edo indarkeria fisikoko egoerak, jatorrizko herrialdetik ateratzen direnean, bidaiari zehar, eta helmuga herrialdera iristean. Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketagatiko biktimizazioaren inpaktu psikologikoak kalte larriak eragiten dizkie biktimei, eta horri dagokionez, gehienek babesa eta sufritutako kalteetatik sendatzea behar izaten dute.
- 4. Emakumeek arau-hausle gisa pertsonen salerosketa sareetan parte-hartzea.** Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa, nagusiki biktimaren nazionalitate berdineko, eta batzuetan, familia berdineko gizonak egiten dute, zeintzuk sare edo erakunde kriminaletan sartuta egoten diren, baina beste delitu batzuetan ez bezala, honetan, emakumeek ere eginkizun handia dute arau-hausle gisa.

Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima izan diren emakume batzuk salerosle gisa jarduten dute fase ezberdinetan, dirua irabazteko egiten dutelarik. Batzuk prostituzioa egiten duten emakumeak hautemateko erakundeetan egoten dira, beste batzuk emakumeak garraiatzeko arduradunak izaten dira, eta bukatzeko, beste emakume batzuk, esplotaziorako biktimei bakarrik ostatua edo hasierako harrera ematen diete.

- 5. Dokumentaziorik ez izateak, hizkuntza ez jakiteak eta enplegua lortzeko zailtasunek emakume horiek zaurgarriago egiten dituzte salerosleen sareekiko, eta sareekiko menpekotasuna gehitu egiten da, emakumeen autonomia eta gizarteratzea zaildu egiten delarik.** Helmuga herrialdean biktima gehienek dokumentaziorik ez izateak, salerosleen sareen menpeko izateak eta hizkuntza ez jakiteak, zailtasunak sortzen dituzte, eta ondorioz, enplegua lortzea zaila izaten da eta biktimek normalean ez dute diru-sarrerara ekonomikorik izaten, eta hala, horrek guztiak, ondorio negatiboak ditu biktimak helmuga herrialdean pertsonalki autonomoak izateko eta gizarteratzeko.



**Araubide esparruari dagokionez:**

- 6. Delitua jazartzeko eta biktimak babesteko araubide asko dago.** Nazioarte mailan pertsonen salerosketa gehitu egin da eta ondorioz, horri buruzko nazioarteko kezka ere bai, eta hala, hainbat tresna juridiko sustatu dira (legeak, planak, protokoloak, eta abar) pertsonen salerosketaren aurka egiteko eta biktimak babesteko. Europan eta Espainian hainbat lege eta araubidezko dokumentu sortu dituzte pertsonen salerosketa jazartzeko eta zigortzeko, prozesu hori nazioarte mailan hasi zelarik, eta gaur egungo legeriaren araubidea biktimak gehiago babestera bideratuta dago.

Azpmarratu behar da araubide ekoizpen handi eta hedatu horrekin, alor horretan aurrerapen oso garrantzitsua egin dela, izan ere, giza eskubideen urraketa larria egiten dela aintzatesten da, eta botere publikoek horri erantzun behar diote. Hala ere, nahiz eta aurrerapenak egitea positiboa izan, nolabaiteko zatiketa dago, eta batzuetan, koherentzia falta egoten da horiek guztiak modu praktikoan aplikatzean.

- 7. Gabeziak daude biktimen identitatea babesterako orduan,** Auzi kriminaletan lekukoak eta adituak babesteko abenduaren 23ko 19/1994 Lege Organikoaren ondorioz sortutakoak, izan ere, lege horrek baimendu egiten du alderdiek biktimaren edo lekukoaren identitatea ezagutzea, betiere eskaria arrazoituta eginez gero eta epaileak edo epaimahaiak baimena emanaz gero.
- 8. Aurrekontu zuzkidura falta da Delituaren biktimen estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legean ezarritako eskubideak egikaritzeko eta babes neurrietarako.** Lege horretan biktimen eskubideei eta biktimak babesteko neurriei buruzko katalogoa dago jasota, baina oztopo garrantzitsu bat du, izan ere, ez dago aurreikusita langile hornidurak eta ordainsari ekonomikoak gehitzea, ezta beste gastu batzuk ere, bermatzeko eskubideak eraginkortasunez egikaritzen direla eta bermatzeko baita ere legeak biktimari aintzatesten dizkion babes neurriak aplikatzen direla.
- 9. LOEX deritzon legeak emandako babesean gabeziak egotea,** biktimak identifikatzeari buruzko aurreikuspenei eta indarberritze eta hausnarketa aldiari dagokionez. Hasiera batean, neurri positiboa da babesari dagokionez, baina batzuetan, beharrezko eraginkortasuna eta efikazia ez dira lortzen. Hori horrela da, biktimak identifikatzeko elkarrizketaren ondoren, gaur egun 48 orduko epea ematen delako biktimek erabakitzeko ea prozesu hori onartzen duten eta delitua ikertzen agintaritzekin lan egin nahi duten, eta hala badagokio, zigor prozeduran baita ere, eta epe hori oso laburra da. Era berean, indarberritzeko eta hausnartzeko 90 eguneko epea laburra da biktimek sufritutako indarkeria kontuan hartuz, guztiz osatzeko nahiko denbora izateko.

Gainera, 59 bis artikuluan adierazita dagoen moduan, indarberritze eta hausnarketa aldia bakarrik egoera irregularrean dauden biktima atzerritarrei aplikatzen zaiela dirudi. Hala ere, 59 bis artikulutik ondorioztatu da aplikazio eremuak pertsonen salerosketaren biktima guztiak barne hartzen dituela, horien nazionalitatea eta administrazio egoera kontuan hartu gabe. Horrez gain, Atzerritarren araubideko lehenengo xedapen gehigarrian (apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoan) baimendu egiten da Europar Batasuneko herrialde bateko edo atzerritarren Europako Erkidegoko aplikaziozko eremu subjektiboaren barneko nazionalitatea duten eta biktimak izan daitezkeen pertsonen aplikatzea.

Hortik ondorioztatu da, nahiz eta azkeneko araubidean ematen duen xedea biktimak babestea dela, babes hori ez dela osoa, izan ere, biktimak babesten dira delituaren ikerketan eta/edo zigor prozeduran lankidetzan aritzen badira bakarrik.

Informazioa emateko edo deklaratzeko behar horrek zaildu egiten du biktimek indarberritzeko eta hausnartzeko eskubidea egikaritzea, eta alderantziz, ustezko delitu baten biktima izateagatik bizileku baimena emanez gero, beharrezko konfiantza eskuratuko lukete polizia agintaritzekin eta agintaritzak judizialekin lankidetzan aritzeko, eta herrialdetik kanporatuak izateari beldurra galduko liekete.

- 10. Araubidean, batzuetan, legezko betekizun batzuk ez datoz bat sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen egoerarekin eta beharrekin, eta beraz, ia ezinezkoa da legeak aintzatesten dituen onurak jasotzea.**

**Indarkeriazko Delituen eta Sexu-askatasunaren aurkako Delituen Biktimei Laguntzeko eta Sorosteko abenduaren 11ko 35/1995 Legean**, adibidez ezarrita dago laguntza publikoen sistema bat indarkeriazko delituen biktimen onurarako, delitua egiten den unean nazionalitatea izanez gero edo Espainian legezko bizilekua izanez gero. Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimek nazionalitate edo legezko bizileku baldintza ez baldin badute betetzen -gehienek ez dute betetzen-, zailtasunak izaten dituzte legean aurreikusitako laguntzak eta babesak jasotzeko.

**Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketari buruzko datuak eta informazioa eskuratzeari dagokionez:**

- 11. Ez dago datu nahikorik fenomenoaren aldizkakotasuna zehazteko eta sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren kasu zehatzak zeintzuk diren jakiteko.** Nahiz eta egiaztatuta egon pertsonen salerosketa mota hori EAEn geroz eta ikusgarriagoa den arazoa dela, aztertutako datuekin ezin da zehaztu aldizkakotasuna, eta datuek bakarrik errealitatearen zati bat erakusten dute, ez dituztelarik jasotzen sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren zifra guztiak. Hori horrela da sexu esplotaziorako pertsonen salerosketan hainbat aldagai daudelako. Lehenik eta behin, biktimek zailtasunak izaten dituzte egoera zuzenean salatzeke, eta bigarrenik, eskumenak dituzten hainbat polizia kidegok delituei buruzko informazio ezberdina dute, eta horrenbestez, ezin da datuen bateratasun eta sistematizazio bat ezarri EAEn sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa kasu guztiak aztertzeke eta konparatzeko.

- 12. Ez dago pertsonen salerosketaren biktimen kontzeptu bateraturik.** ESIK-ek eta gizarte erakundeek biktimen kontzeptu ezberdinak erabiltzen dituzte, hau da, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimatzat bakarrik salaketa prozesua hasi duten emakumeak hartzeak ondorioak ditu benetako biktimak zenbatzean eta kopuru zehatzak zeintzuk diren jakitean.

**Delitua jazartzeari dagokionez:**

- 13. Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak identifikatzea garrantzitsua da.** Identifikazioa ezinbesteko prozedura da biktimek legeak aintzatestitako eskubideak eta babes neurriak izan ditzaten. Prozesu horren hasieran identifikazio elkarrizketa bat egiten da, eta bertan, biktimaren testigantzarekin eta/edo berak emandako informazioarekin, datu garrantzitsuak lortzen dira biktima modu formalean identifikatzeko, eta hala, prozedura judizial batekin bukatu daitekeen ikerketa poliziala hasteko.

Hala ere, batzuetan prozesu hori ez da erraz egiten, batzuetan biktimek beraien burua ez dutelako biktimatzat jotzen, edo ez dutelako informaziorik ematen saleroslearen errepresalientzia beldur direlako, ESIK-enganako mesfidantza dutelako eta/edo jatorrizko herrialdera kanporatuak izatearen beldur direlako, eta batzuetan, biktimek emandako informazioa ez da nahikoa izaten identifikazioa egiteko. Azken finean, identifikazio prozesuak biktimgan presio handia eragiten du.

Identifikazio elkarriketaren ondoren, biktimek indarberritze eta hausnarketa aldia (IHA) onartu dezakete, baina aurretik esan dugun moduan, identifikazioaren ardura biktimak izaten du, eta biktimak bere burua biktimatzat ez badu jotzen eta/edo ematen duen informazioa ez bada nahikoa biktima identifikatzeko, identifikatutako sexu esplotaziorako pertsonen salerosketako biktima gutxi egongo dira, eta ondorioz, emandako IHA-k ere gutxi izango dira.

14. **Biktimek salaketak jarri behar izateak eta deklaratu behar izateak zaildu egiten du zigor prozedura hastea eta bukatzea.** Zigor prozedurako zailtasun handienetakoa da biktimak izatea informazioa ematen duten informazio iturri nagusiak, eta biktimek aurkeztu ahal izatea beharrezko frogak, ondoren epaiketan onartu ahal izango direnak salerosleei zigor epaia emateko. Hala ere, nahiz eta biktimek beharrezko frogak eman ahal izan, baliteke deklaratzeko baldintza egokietan ez egotea eta ahozko epaiketan hitz egiteko gai ez izatea, desagertuta daudelako edo salerosleen beldur direlako.
15. **Aurrez eraturako frogen garrantzia, zigor prozesuan aurrera egin ahal izateko.** Instrukzio fasean ohikoa ez den praktika da, eta beste antolamendu egitura batzuk behar ditu eta eragile juridikoen arteko koordinazioa handiagoa izan behar da, baina aurrez eraturako froga pertsonen salerosketaren prozeduretan egikaritu ahal izatea beharrezkotzat jotzen da. Horretarako, derrigorrezkoa da berme guztiekin egikaritzea eta alderdien arteko kontraesan printzipioa eta defentsarako eskubidea errespetatzea.
16. **Bigarren biktimizazioaren arriskua.** Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimek giza eskubideen urraketa larriak eta kalte fisiko eta emozional handiak sufritzen dituzte. Horrez gain, ezagutzen ez duten sistema judizial batean parte hartu behar izanez gero eta konfiantzarik ez duten langileen aurrean bizitakoa gogoratu eta azaldu behar izanez gero, hasieran delituagatik sortutako mina beste egoera batean ager daiteke, judizialean, eta biktimek bigarren biktimizazioa sufritu dezakete.
17. **Delituaren biktima estatutua garrantzitsua da,** izan ere, eskubideen eta neurrien katalogoa, aurrerakuntza handia da, bigarren biktimizazioa arintzeko edo gutxitzeko.
18. **Biktimei sistema judizialak ematen dien babes bermeen artean oreka lortzeko beharra, eta aldi berean, alderdi guztientzako zigor prozesuak ezarritako bermeak errespetatzea.** Berme bien xedeak batzuetan ez datoz elkarrekin bat, eta beraz, “inguruabar bereziak” kontuan hartu behar dira aplikatzerako orduan, xede biak ahalbidetu daitezten.

**Erakundeek sexu esplotaziorako biktimen arreta eta babes beharrei emandako erantzunari dagokionez:**

19. **Euskal erakundeek erantzun eraginkorrak eman dizkiete** sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen arreta eta babes beharrei. Nahiz eta aurrerakuntzak egin diren, nolabaiteko sakabanaketa ere badago, profesional eta erakunde ezberdinek sustatutako hainbat protokolo eta jarduketa plan daudelako, eta horri dagokionez, beharrezkoa da EAE guztian aplikatzeko tresna bakarra egotea, koordinazio jarraibide guztiak eta delitua prebenitzeko eta jazartzeko jarduketa guztiak eta sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen gizarte esku-hartze guztiak batzeko.
20. **Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei arreta emateko euskal eredia estatutuko arreta eredu integralaren antzekoa da.** Estatu mailan eta autonomia erkidego mailan, gizarte elkarte eta erakundeek biktimei arreta emateko antzeko metodologia erabiltzen dute, eta

metodologia horren oinarria biktima bakoitzarentzako banakako plan bat ezartzea da, biktimizaziotik eratorritako arrisku pertsonala baloratu ondoren. Biktimen eskariei eta beharrei erantzunez eta giza eskubideetan oinarrituz ikuspegi biktimologikoa ezartzea ezinbestekoa da esku-hartzean.

**21. Gizarte erakundeek biktimei arreta ematearen garrantzia.** Gobernuz kanpoko erakundeak eta gizarte erakundeak ezinbesteko tresna dira biktimek beldurra galtzeko, konfiantza eskuratzeko eta ongizate egoera ezin hobea izateko. Gainera, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima bat indarberritzean, ondoren modu eraginkorragoan lan egin ahal izango du ikerketa polizialean eta zigor prozeduran.

**22. Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak gizartean ez dira ikusgarriak.** Nahiz eta erakundeek neurriak ezarri dituzten biktimak “ikusgarri” egiteko, erakundeek lan hori egiteak ez du esan nahi gizartean ikusgarriak direnik.

Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak gizarte mailan aintzatesteko alorrean gabeziak daude, genero indarkeriaren beste biktima batzuekin konparatuz gero. Gizartean, orokorrean, pertsonen salerosketaren errealitatea ez da ezaguna, ez da ohikoa jakitea gure inguruan sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak daudenik, izan ere, urruti dagoen egoera dela uste dugu, beste herrialde batzuetan gertatzen dena.

Erakundeek jarduera eta prestakuntza jardunaldi puntualak egin dituzte, baina horrez gain, beharrezkoa da ohiko moduan eta modu jarraituan jarduketa eta ekimen gehiago sustatzea, albo batera utzita EAEn erregistratutako biktima kopurua baxua izatea. Horrekin guztiarekin, gizartea fenomeno horrekiko hurbilago egongo litzateke eta gehiago jakingo genuke, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen inguruan ditugun aurreiritziak eta estereotipoak deuseztatuz. Erakundeak ezinbesteko elementuak izan daitezke biktimak gizartean aintzatesteko eta biktimen ikusgarritasuna Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean sustatzeko, edo baita legea etorkizunean aldatzeko eta bertan garrantzitsutzat jotzeko genero indarkeriaren aurkako borroka.

**23. Alor horretan lan egiten duten erakunde eta eragile guztien artean koordinazioa egotearen garrantzia.** Beharrezkoa da bermatzea sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren alorrean esku-hartze eraginkorrak egingo direla, biktimei modu integralean laguntza, babesa eta sendaketa eskaintzen dizkienak, eta horretarako, koordinazio eta inplikazio handia behar da, bilerak egin behar dira eta alor horretan ezinbestekoak diren erakundeen eta eragileen artean komunikazio asko egon behar da. Horri dagokionez, EAEn ezarri diren plan, protokolo eta mahai guztiei esker, profesionalen arteko koordinazio sare garrantzitsua sortu da.

**24. Pertsonen salerosketaren alorrean prestakuntza kualifikatua duten langileak falta dira.** Pertsonen salerosketaren alorrean profesionalen arteko koordinazioa ezinbesteko zeharkako alderdia da, eta era berean, prestakuntza espezializatua beste ezinbesteko eta beharrezko elementu bat da, delitu mota horretan jarduten eta esku-hartzen duten pertsona guztientzat eta sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimekin edo biktima izan ahal direnekin harremanetan dauden guztientzat.

Ondorio horiek guztiak osatzen dira ezinbesteko eragileei eta erakundeei zuzendutako hobekuntza proposamen batzuekin; horiek guztiek, jardun profesionala sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren alorrean egiten dute eta/edo biktimekin harremanetan egoten dira.

## 5.2. Hobekuntza proposamenak

### Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak babesteari buruzko lege xedapenak berrikusteari dagokionez:

1. **Biktimak babesteko legezko xedapenak berrikustea.** Lehenik eta behin, 59 bis (LOEX legearena) artikuluan aurreikusitako araubidea egokitu beharko litzateke, baita bere garapen araubideko 142. artikuluan xedatutakoa ere (apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretua).

Azaldu dugun moduan, 59 bis artikuluan babes neurri bat arautzen da pertsonen salerosketaren biktimentzako, eta neurri hori “indarberritze eta hausnarketa aldia” deitzen da. Kontuan hartuz identifikaziorako zailtasunak egoten direla, biktimek egoera berezietan sufritutako kalteak zeintzuk diren, eta agintaritzetan konfiantza gutxi izan ohi dutela, biktimei polizia agintaritzekin eta agintaritzak judizialekin lankidetzan aritzeko aukera eskaintzean eta denbora gutxian erabaki hori hartu behar izatean (bi egunetan), zaila da biktimek neurri horiek onartzea, eta inguruabar horren ondorioz, babes eskubideak murriztu ahal dira.

Aurreko guztia kontuan hartuz, LOEX legearen 59 bis artikulua aldatzeko aukera aztertzea proposatzen da, eta indarberritze eta hausnarketa aldia Delitu biktimen estatutuan gehitzea. Hori guztia, pertsonen salerosketaren biktima guztiek jaso beharko lituzketen babes neurriei bateratasuna eta koherentzia emateko, izan ere, guztiek giza eskubideen urraketa larriak sufritzen dituzte, albo batera utzita beraien nazionalitatea, administrazio egoera erregularra edo irregularra izatea, eta agintaritzekin lankidetzan aritzea ikerketan eta zigor prozeduran.

Gainera, neurria onartuko duten edo ez duten erabakitzeko 48 orduko epea gehitzea proposatu da eta indarberritze aldia epe zehatz batekoa ez izatea, hala, biktimak guztiz sendatzeko eta beharrezko konfiantza eta segurtasuna eskuratzeko agintaritzekin lan egiteko, eta bermatzeko polizia ikerketak eta ikerketa judizialak zuzentasunez gauzaten direla.

Horrez gain, inguruabar bereziengatik bizileku eta lanerako baimena ematea erabaki beharko litzateke, biktimen egoera pertsonala kontuan hartuz, izan ere, indarberritzeko aukerak eta baimen horrek ematen duen babesa eta segurtasuna ziurrenik biktimak polizia agintaritzekin eta agintaritzak judizialekin lankidetzan aritzea ahalbidetuko duten faktoreak dira.

2. **Auzi kriminaletan lekukoak eta adituak babesteko Legearen 4.3. artikulua aldatzeari buruz hausnartzea.** Lekukoaren edo biktimaren identitatea ezagutaraztea, kontuan hartuz sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen egoera berezia, batzuetan, handicap-a izan daiteke biktimen segurtasuna bermatzeko.
3. **Langileak hornitzeko eta delituaren biktimen estatutua garatzeko eta praktikan jartzeko beste gastu batzuetarako zenbateko ekonomikoak aurrekontuan sartzea aztertzearen egokitasuna.** Ezinbestekoa da zuzkidura ekonomiko bat egotea Delituaren biktimen estatutuaren apirilaren 27ko 4/2015 Legea aplikatzen dela bermatzeko, eta ondorioz, legean zehaztutako biktimak babesteko neurriak aplikatzen direla bermatzeko. Martxan jartzeko giza baliabiderik eta bitarteko materialik ez bideratzeak, zaildu egiten du guztiz horiek aplikatu ahal izatea, edo hala badagokio, baliabide horiek aplikatzea eragile juridikoen jarreraren, esfortzuaren eta sentsibilitatearen menpe egongo da.
4. **Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei eskubideak egikaritzea zailtzen dieten baldintzen inpaktua ebaluatzea.** Legezko eta administrazioko baldintzak ezartzean, batzue-

tan, zaila izaten da sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimek legeetan, protokoloetan eta laguntza publikoetan aintzatetsitako eskubideak izatea, adibidez, kalte-ordainak jasotzea indarkeria delituak sufritzearren edo Eusko Jaurlaritzako emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen laguntza ekonomikoak jasotzea. Horri dagokionez, beharrezkoa da baliabideak eskuratzeko irizpideak ezartzen dituzten dokumentuak berrikustea, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen beharrak eta berezitasunak kontuan hartuz.

- 5. Pertsonen salerosketaren aurkako lege integrala onesteko aukeraren inguruan hausnartzea.** Alde batetik, lege integral batean pertsonen salerosketaren fenomenoak jorratuko litzateke modalitate guztietan (lanerako salerosketa, sexurako, eskaletzarako, eta abarrerako) askotariko alderdiak jorratuz (biktimen eskubideak arautzea, esku-hartzea, profesionalen arteko koordinazioa, eta abar), eta beraz, modu horretan, legeak ordena eta koherentzia eskainiko litzuzke gaur egunera arte ezarritako arau xedapen guztiei dagokienez. Gainera, pertsonen salerosketaren alorreko legeria egokituko litzateke, gaur egun sakabanatua eta zatituta dagoena. Hala ere, aplikazio praktikotik aztertuta ahultasun bat dago, izan ere, kostu ekonomikoek eta hura ezartzeko giza baliabideek eta bitarteko materialek, kasu kopuru altua kontuan hartuz, arazoak izan ditzakete gaur egungo estatu sisteman sostengatu ahal izateko. Aurretik aipatutako Delituen biktimen estatutua bermatzeko bitarteko faltagatik ezarritako aurrekaria ez da aurrekari itxaropentsua.

Ondorioz, xehatutako azterketa juridiko-ekonomikoa egitea aztertu beharko litzateke hedatu aurretik, ezartzearen eta aplikazio eraginkorraren bideragarritasuna aztertzeko, eta ekonomikoki sostengatu ezin badaiteke, gaur egungo legeria egokitzen eta bateratzen lan egin beharko litzateke.

- 6. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen aldaketan zenbait artikuluko gehitzea aztertzea, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei arreta eta babesa emateari buruz.** Beharrezkoa da sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak genero indarkeriaren biktimatzat hartzea Berdintasunerako euskal legearen artikuluetan, bestelako indarkeria moten biktimekin egiten den moduan.

#### **Informazioa eta datu estatistikoak jasotzeari buruz:**

- 7. Datu base bat sortzea,** adierazle homogeneoekin, informazio bateratua eta sistematizatua ikusarazteko, eta hori guztia, fenomenoari eta biktimen profilari eta egoerari buruzko datu estatistikoen berri izateko eta datu horiek eguneratzeko.
- 8. Instituzio eta erakunde publikoetako webguneetan argitaratzea** memoriak, jarduketa protokoloak, eta abar, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketari buruzko informazio eguneratua izateko.
- 9. Datu estatistikoak eta informazioa partekatzea alor horretan lan egiten duten polizia kidegoen artean.** Beste helburu bat EAEn gauzatutako polizia jarduketari buruzko informazioa eta praktika onak partekatzea da, eta hori guztia sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren aurkako borroka eraginkorragoa izateko.

#### **Polizia ikerketei dagokienez:**

- 10. Biktimak identifikatzeko prozesua hobetzea.** Ikerketa poliziala alderdi garrantzitsuetan oinarritzea, besteak beste, biktimak indarberritzea eta sendatzea eta biktimek konfiantza izatea polizia agintaritzekin eta agintaritzak judizialekin, hori guztia baliagarria izan daitekeelarik biktimen identifikazio prozesua hobetzeko. Horregatik, identifikazioa zuzena izateko, erakunde

sozialen zeregina indartu behar da. *Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek pertsonen salerosketaren aurka eta biktimei laguntza ematen esperientzia egiaztatua duten erakunde eta instituzioekin lankidetzan gauzatzen dituzten jarduketegi buruzko Segurtasuneko Estatuko Idazkaritzaren 6/2016 Instrukzioak aintzatetsi egiten du beraien zeregin garrantzitsua identifikazio prozesuan, baina hala ere, nagusiki ESIK-ek zeregin aktiboagoa dute, eta elkarteek intentsitate baxuagoarekin jarduten dute identifikazio prozesuetan. Aurreko guztia kontuan hartuz, beharrezkoa litzateke instrukzioa berrikustea, elkarteek eta GKE-ek biktimak identifikatzeko elkarrizketan duten parte-hartzea eta eskumenak indartzeko.*

- 11. Biktimen jatorrizko herrialdeetako polizia kidegoekin lantalde iraunkorrak sortzea sustatzea,** esperientziak partekatzeo eta prebentziorako, fenomenoaren aurka lan egiteko eta biktimak babesteko polizia sareak sortzeko.

### Zigor prozedurari dagokionez:

- 12. Biktimak babesteko bermeen eta zigor sistemak alderdi guztientzat eskatzen dituen bermeen artean oreka lortzea.** Biktimen ongizate fisikoa eta psikologikoa kontuan hartuz baldintza onetan deklaratzeko gai badira, zigor prozedura hobea izango da eta oreka lortu ahal izango da zigor prozesuaren arrakastaren eta biktimaren babes eraginkorraren artean. Azken finean, biktimaren sendatze prozesua sustatzean, aukera gehiago sortuko dira ikerketa poliziala eraginkorra izateko, eta alderdi bien, hau da, biktimaren eta biktimarioaren bermeak errespetatzeko.

- 13. Eragile juridikoei biktimen egoerari eta beharrei buruzko informazioa ematea, eta horiek sentsibilizatzea.** Pertsonen salerosketaren eta biktimen sufrimenduaren berri izatean, eragile juridikoen lana hurbilekoagoa eta gizatiarragoa izan daiteke. Beharrezkoa da epaileek jakitea biktimek deklaratzeko beldurra izaten dutela, eta sistema judizialak segurtasuna eta babesa ematen dietela sentitu behar dutela. Horretarako, ikuspegi biktimologikoa izan behar da, biktimek dituzten giza eskubideak kontuan hartuz. Horrez gain, epaileek eta fiskalek prestakuntza kriminologikoa, biktimologikoa eta generoari buruzkoa jaso behar dute, eta ondorioz, pertsonen salerosketa giza eskubideak urratzen dituen delitutzat joko dute, delituaren jazarpenaren eta biktimak bigarren aldiz biktima egitearekin bukatzearen arteko oreka lortuz.

Era berean, abokatuei prestakuntza ematea proposatzen da, bereziki ofiziozko eta atzerritarren txandetan, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei laguntza eta informazioa emateko, biktimak detektatu eta identifikatzen direnetik eta biktimek sufritutako kaltea konpondu arte.

Bukatzeko, beharrezkoa da biktimekin lan egiten duten interpreteei pertsonen salerosketaren fenomenoari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa ematea.

- 14. Biktimak, lehenengo unetik, Biktimei Laguntzeko Zerbitzuetara joatea sustatzea (BLZ).** Positiboa da ofizioz sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimak BLZ-ra bideratzea, izan ere, erakunde horiek Justizia Administrazioaren eta gizarte zerbitzuen arteko zubi lanak egiten dituzte. Gainera, laguntza zeregin guztiak emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekin egiten diren antzeko moduan gauzatu ahal izango dituzte. Horretarako, garrantzitsua da sexu esplotaziorako pertsonen salerosketako biktimek BLZ zerbitzuen berri hasieratik izatea, informazioa zerbitzuen funtzionamenduari buruzkoa izango delarik.

Era berean, positiboa da BLZ-en eta pertsonen salerosketan espezializatutako gizarte erakundeen arteko lankidetzaren ereduak ezartzea, biktimak identifikatzeko eta biktimei laguntzeko prozesua hobetze aldera.

**15. Zigor prozedurako babes neurri teknikoek edo materialek ondo funtzionatzen dutela bermatzearen beharra azpimarratzea.** Prozesalak diren babes neurriez gain, beste batzuk instrumentalagoak dira (bideokonferentziak, ahotsa aldatzea, eta abar), eta horiek akatsik gabe funtzionatu behar dute. Era berean, biktimei jarduteko moduari buruzko informazioa une oro emango zaie, eta bitarteko teknikoak nola erabiliko diren jakingo dute, babestuta daudela bermatzeko.

### **Sexu esplotaziorako biktimen arretarako eta babeserako politika publikoei dagokienez:**

**16. Genero indarkeriaren aurkako politika publikoak sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen beharrei egokitzea.** Emakumeen aurkako jokaerak prebenitzeko eta zigortzeko araubidezko tresna eta dokumentuei buruz azaldu den moduan, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa genero indarkeriaren modu bat da. Emakumeen eta neskatoen aurkako beste indarkerien maila berean egoteko, besteak beste tratu txarrak, sexu erasoak, eta abar, genero indarkeriaren aurkako lege, plan eta protokolo guztietan gehitzea proposatu da, eta ondorioz, beharrezko egokitzapenak egin beharko dira, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei aplikatzeko, eta biktimek, genero indarkeriaren biktimek jasotzen duten laguntza integral berdina jasotzeko.

**17. Umeen eta gazteen salerosketa lantzeko esku-hartze ereduak diseinatzea.** EAEn dauden egoitzazko zentroen sarean hasierako erantzuna eman daiteke adingabeei arreta emateko, baina horiek zentro irekiak direnez, adingabeek ihes egiteko arriskua dago eta/edo etorkizunean pertsonen salerosketa sareek adingabe horiek hautemateko. Beraz, zenbait kontu, arreta eta jarraipen neurri ezarri behar dira ume eta gazte horiengan, babeseko gehienezko bermeak ezartzeko.

Horri dagokionez, garrantzitsua da baliabide espezializatuetan langile kualifikatuak eta prestatuak egotea, umeen eta gazteen salerosketaren biktimei arreta egokia emateko.

**18. Gizarte Zerbitzuetan pertsonen salerosketaren gaia sartzeta.** Egokia da jarduketa plan batzuk ezartzea gizarte zerbitzuetan pertsonen salerosketaren errealitatea sartzeko, kontuan hartuz hiru erakunde mailen eskumenak, eta hori guztia, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren autonomia erkidego ikuspuntua betetzeko eta prostituzioan egon daitezkeen pertsonen beharrak betetzeko, baita zaurgarritasun eta/edo gizarte bazterketa egoeran daudenak ere, guztiek ere arriskua baitute sexu esplotaziorako edo bestelako pertsonen salerosketan egoteko.

**19. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa eguneratzea aztertzea.** Gizarte Zerbitzuen euskal sistema eratzen duten erantzukizun publikoko prestazioek eta zerbitzuek une bakoitzean arreta emandako pertsonen eta kolektiboen beharrei erantzun egokia eman behar diete. Kontuan hartuz sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa EAEn geroz eta ikusgarriagoa den errealitatea dela, beharrezkoa da Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimen beharrei egokitzea, eta hala badagokio, beraien kargura dauden seme-alabei, genero indarkeriaren biktimak diren heinean.

**20. Gizarte zibila sensibilizatzea.** Azterketa honetan adierazitako erakundeek eta elkarteek ezarritako laneko eta sensibilizaziorako jarraibideekin jarraitzea proposatu da, baina komunikabideetan eta sare sozialetan gehiago agertuz, gizarteak jakin dezan fenomeno hau egon badagoela eta biktimen egoeraren berri izateko, eta biktimak detektatzen eta identifikatzen laguntzeko.

**21. Afektibitate eta sexu hezkuntza ematea.** Beharrezkoa da sexu hezkuntzako eta afektibitatea lantzeko programak sustatzea ikastetxeetan eta unibertsitateetan, horiek nerabeen eta gazteen hezkuntza ibilbide guztian egon beharko lirakeelarik, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren prebentzioan jarduteko, tratu txar, indarkeria eta emakumeen eskubideen aurkako urratze mota baita.



## **Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren alorrean eta bestelako salerosketetan prestakuntza kualifikatua izateari dagokionez:**

**22. Prestakuntza espezializatua ematea.** Ezinbestekoa da sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimekin lotura duten langileen kolektiboak esku-hartze eraginkorra egiteko prestakuntza egokia jasotzea, bai detektatze eta ikerketa faseei dagokienez, bai biktimei arreta eta laguntza integrala emateari dagokienez.

Adierazi dugun moduan, sexu esplotaziorako pertsonen salerosketa oso konplexua eta biktimenzat kaltegarria den fenomeno kriminala da, eta beraz, diziplina anitzeko esku-hartzea eta koordinazioa behar dira (juridikoa, soziala, psikologikoa, medikoa, kriminologikoa, biktimologikoa, eta abar), gutzia ulertzeko eta jazartzeko. Horregatik, ezagutza espezifikoa behar dira, biktimak detektatzeko, beraiei laguntzeko eta salerosleak ikertzeko eta zigortzeko. Arau-hausle gehienak delitu sareen barne daudenez, zailagoa egiten da fenomenoak jazartzea, eta biktimak sare horien menpeko direnez, egoera zailan aurkitzen dira, bai salatzeak bai biktimizazioa gainditzeko.

Ezinbestekoa da sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimekin lotura duten langileen kolektiboak esku-hartze eraginkorra egiteko prestakuntza egokia jasotzea edo jasotako prestakuntza berritzea, bai detektatze eta ikerketa faseei dagokienez, bai biktimei arreta eta laguntza integrala emateari dagokienez.

**Euskal osasun alorrari** dagokienez, beharrezkotzat jotzen da erizainei eta salerosketako biktima izan daitezkeenekin harremana duten osasun zerbitzu nagusietako langileei prestakuntza eta ikastaroak ematea. Beharrezkotzat jotzen da baita ere sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren egoera posibleen aurrean jarduteko eta egoera horiek detektatzeko osasun jarduketaren jarraibideak modu zabalagoan eta espezifikagoan garatzea, erreferentziatzen estatu eta nazioarte mailetakoa jarduketak gidak hartuz.

**Gizarte Zerbitzuei** dagokienez, egokitzen jotzen da **gizarte langileek** prestakuntza espezializatua jasotzea pertsonen salerosketari buruz. Horri esker, beharrezko tresnak eskuratuko dituzte biktimak detektatzeko eta programa espezifikoa ezartzeko, pertsonen salerosketaren zuzeneko biktima diren umeen eta nerabeen edo pertsonen salerosketarekin lotutako babesgabetasun egoeretan daudenen egoera eta inguruabar bereziak kontuan hartuz, eta hori gutzia, esku-hartze eta jarraipen eraginkorak egiteko.

**23. Pertsonen salerosketaren aurkako borroka Gizarte Zerbitzuen funtzioen artean gehitzearen garrantzia.** Beharrezkoa da Gizarte Zerbitzuen funtzioen artean gehitzea sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren prebentzioa, baita biktimei eman beharreko babesa ere.

## **Eragile publiko eta pribatuaren arteko koordinazioari eta lankidetzari dagokionez:**

**24. Koordinazio ereduak indartzea.** Positiboa da 2011ko pertsonen Salerosketaren Biktimak Babesteko Esparru Protokoloan (XVI. B atala) zehaztutako jarraibideak ezartzea, EAEn, modalitate guztietan, detektatutako pertsonen salerosketarekin lotutako jarduketan jarraipena egiteko. Horrez gain, beharrezkoa da sareko lanarekin jarraitzea, adierazi ditugun esku-hartzeko protokolo eta planetan jasotakoak, eta honakoak gehitzea ere positiboa litzateke:

- Pertsonen salerosketan aditua den koordinatzaile bat, EAEn detektatutako pertsonen salerosketarekin lotutako jarduketak berrikusten dituen eta gaur egungo planak eta protokoloak ebaluatzen dituena.

- Biktinek –hala nahi dutenek– adituekin lantaldeetan parte hartzea, zuzenean beraien eskarien eta beharren berri emateko.
- Jarduketa eta koordinazio protokolo bakarra egotea, gaur egungo esku-hartze eta protokolo planen sakabanatzea bukatutzat emateko, eta alorrean eskumenak dituzten erakunde eta profesional guztiak batzeko, era berean, aplikagarria izango dena EAEko sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktima guztientzat.

**25. Segurtasuneko Estatu Idazkaritzaren 6/2016 Instrukzioa berritzea aztertzea.** Egokia litzateke biktimak identifikatzeko eskumena ez izatea bakarrik polizia unitateena, baizik eta berdintasunean, espezializatutako erakundeekin partekatutako eskumena izatea (identifikazio elkarrizketa egiten denean, indarberritze eta hausnarketa aldia eskaintzen denean, eskubideei buruzko informazioa ematen zaienean, eta abar), izan ere, biktinek konfiantza izateko, identifikazio prozesua hobetzeko eta diligentzietan eta ikerketetan laguntzea erabakitzeke ezinbestekoa da alderdi hori.

**26. Nazioarte mailan prebentzioan, jazarpenean eta biktima babesten lan egitea.** Beharrezkoa da nazioarte mailan prebentzio, jarraipen eta laguntzan egin beharreko jarduketetan lankidetzan aritzea. Horretarako, funts ekonomikoak bideratu beharko dira lankidetzarako, eta hala nahi dutenek, jatorrizko herrialdera itzultzea errazteko.

**ERANSKINAK****1. Datu estatistikoak****Polizia ikerketako eginbideak**

Data	Tokia	Eginbideak	Mota	Biktima kop.	Biktimen nazionalitatea	Ikertuak/ Inputatuak	Nazionalitatea	59 art. atxikitako biktimak (OHA)
2010-09-17	Bilbo	Ezin da deliturik dagoen zehaztu	Sexuala	1	Kamerun	Autoreak ezin dira identifikatu	Kolonbia Peru	0
2011-05-27	Bilbo	163d1100009 594a1103079	Sexuala	3	Nikaragua	2	Polonia	0
2011-10-12	Bilbo	163a1100026 163d1100008	Sexuala	1	Polonia	1	Txina	1
2011-09-22	Bilbo	163a1100022	Sexuala	1	Txina	1	Espainia	1
2011-05-31	Vitoria-Gasteiz	164a1100034	Sexuala	1	Paraguai	1	Errumania	1
2011-03-28	Orozko	586a1100107	Sexuala	Adingabe 1	Errumania	1	2 Maroko 2 Espainia	Europarra/ Ez dagokio
2011-10-01	Vitoria-Gasteiz	164a1100035	Sexuala	1	Maroko	4	4 Errumania 1 Espainia	1
2012-11-21	Vitoria-Gasteiz	164a1200012	Sexuala	Adingabe 1	Errumania	5	Errumania	Europarra/ Ez dagokio
2013-01-16	Trapagaran	163a1300003	Sexuala	1	Errumania	Ezin da deliturik egiaztatu	Txina	Europarra/ Ez dagokio
2013-11-28	Bilbo	163a1300053	Sexuala	5	Txina	3	2 Nigeria 2 Kamerun	5
2015-08-17	Bilbo	163a1500066	Sexuala	3	Nigeria	4	Zehaztu gabe	3
2015-09-27	Abadiño	163a1500077	Sexuala	1 salaketarik ez	Nigeria	Autoreak ezin dira identifikatu		0
2019-07-30	Bilbo	CNP	Sexuala	Adingabe 1	Ghana	CNPk (Bilboko Atzerritarren eta Mugen Probintzia Brigada) egindako ikerketa	Nigeria	1
2016-01-29	Errenterian antzemanda. Costa del Solen gertatua	163a1600016	Sexuala	1	Nigeria	Valentziako Polizia Nazionalari transferitua Ikerketa aribidean	Nigeria	1
2016-06-24	Bilbo	163a1600055	Sexuala	6	Nigeria	Ikerketa aribidean. 2 atxilotu		2

Iturria: Ertzaintza.

**Sexu esplotaziorako pertsonen salerosketaren biktimei buruzko datuak, elkaratek emandakoak**

Gizarte erakundeak (2015)	Emakume biktimak	Haur eta nerabe biktimak	Adingabeak salerosketaren biktimen seme-alabak	Salerosketaren balizko emakume biktimak	Salerosketaren balizko biktima nerabeak adingabeak	Salaketak
Askabide	5	1	1			
Oblatas				33 (8 ESIKek formalki identifikatuta)		8
Gurutze Gorria			4	16	2	
CEAR-Euskadi				14		

Iturria: egileak egina, aipaturiko elkaratek emandako datuak oinarri hartuta.

## 2. Galdetegiak

### GALDETEGIA BIKTIMAK

1. Zein da zure herritartasuna?
2. Adina?
3. Seme-alabarik al duzu? Adingabeak?
4. Hezkuntza-prestakuntza.
5. Lan-esperientzia.
6. Kontatu dezakezu migrazioaren arrazoia?
  - Zure jatorrizko herrialdetik irteteko arrazoiak.
  - Zure etorkizunari buruzko itxaropenak, lan-eskaintzak, bizitza helmugako herrialdean.
7. Bidaiaren garapena:
  - Nola gertatu ziren erreklutatzea eta lekualdaketa?
  - Garraiobideak, bidaiaren iraupena, dokumentazioa.
  - Mugak gurutzatu dituzu edo ez?
  - Engainatu edo hertsatu egin al zaituzte esplotatua izateko xedearekin?
  - Zer lan eskaini zizuten eta zer lan egin zenuen?
8. Helmugako tokian:
  - Zorrak al zenituen zure tratulariekin?
  - Mugitzeko askatasuna zenuen?
  - Egoera horretan, eraso fisikorik, abusurik, mehatxurik, tratu txarrik edo bestelakorik jasan zenuen?
  - Nola zeunden zure egunerokoan?
  - Zure jatorrizko familiak ba al zekien zein egoeratan zeunden?
9. Nola amaitu zen egoera hori?
10. Zer zailtasun izan dituzu? Nola sentitu zara egoera honetatik irtetean? Babestuta/lagunduta sentitu zara?
11. Zer iritzi duzu oneratzeko eta hausnartzeko aldiaren inguruan?
12. Poliziarekin, epaileekin, fiskalekin eta bestelako eragile juridikoekin harremanik izan baduzu, nolakoa izan da esperientzia?
13. Zein izan da zure esperientzia elkarte eta GKEekin?
14. Zein izan da zure esperientzia osasun-zerbitzuekin?
